

---


Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia  
1994



Memoria  
1994  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia

---











UNIBERTSITATEA  
AZKUE BIBLIOTEKA



Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia  
1994

Testu-idazketa: J. L. Lizundia, P. Telleria, I. Rekalde  
Testu gainbegiratzea: Endrike Knörr

© Euskaltzaindia  
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.  
Cuevas de Ekain, 3, 1.º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.  
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-1608-1995

# AURKIBIDEA

---

<b>Aurkezpena</b> .....	7
<b>I. Ekintza orokorrak</b> .....	9
I.1. Akademi bilkurak eta erabaki behinenak .....	11
I.2. Gertakari akademikoak .....	17
<b>II. Euskaltzainak, karguak eta batzordeak</b> .....	27
II.1. Euskaltzainen eta karguen zerrendak .....	29
II.2. Euskaltzaindiko batzordeak .....	31
<b>III. Iker Saila</b> .....	35
III.1. Hiztegitza batzordea .....	37
<i>Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)</i> .....	39
Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF) .....	43
Hiztegi Batukoa .....	45
III.2. Gramatika batzordea .....	47
III.3. Dialektologia batzordea (Hizkuntz Atlas) .....	51
III.4. Onomastika batzordea .....	59
III.5. Literatura batzordea .....	65
Herri-Literatura .....	67
Literatura-Ikerketa .....	71
III.6. Batzorde suntsikorrak .....	73
Euskara Batukoa .....	75
Ahoskera .....	77
Administrazioko hizkuntza-eskakizunetan euskalkiak neurtzeko batzordea .....	79
<b>IV. Jagon Saila</b> .....	81
<b>V. 75. Urteurrena</b> .....	87
V.1. Ospakizunak .....	91
V.2. Jardunaldiak .....	99
V.3. XIII. Biltzarra .....	109

<b>VI. Zerbitzu orokorrak</b> .....	119
VI.1. Egoitza .....	123
VI.2. Ordezkaritzak .....	129
Gipuzkoakoa .....	131
Arabakoa .....	133
Nafarroakoa .....	135
Baionakoa .....	137
VI.3. Azkue Biblioteka .....	139
VI.4. Argitalpenak .....	143
Argitalpen batzordea .....	145
Argitalpen banaketa eta salmenta zerbitzua .....	149
VI.5. Bestelako zerbitzuak .....	153
Aurkitegia .....	158
VI.6. 1994. urteko balantzea .....	159



## Aurkezpena

*Berriro ere eskaintzen du urteko Oroit-idazkia Euskaltzaindiak, oraingoan 1994. urteari dagokiona.*

*Ikuskatze soilean ere nabarmena da liburu honetan Euskaltzaindiaren 75. urteurrenkari egin diren ospakizunen pisua. Ospakizun horiek 1993aren azken aldean hasi ziren eta 1994an bukatu. «Oñaitik Leioara», esan genezake, unibertsitate zaharreko ekitaldi jaitsua gogoratuz, 1993ko urriaren leian, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean egin zen XIII. Biltzar trinkoa, 1994ko urriaren 3tik 7ra. Gainera, hemen bilduak dira gaikako Jardunaldi guztiak (hizkuntzaren jagotea, lexiko finkapena eta hiztegia, gramatika, ahoskera, onomastika, literatura, e.a.). Atsedean hartzeko ia denborarik gabe eraman zen aurrera egutegi osoa, alde guztietatik arrakastatsua izen zena.*

*Festak eta ospakizunak bere tokia izan badu ere, lana izan da nagusi, zer esanik ez, Jardunaldi-batzarretan. Horiek direla eta, Bidasoaz honaindiko lau hiriburuetan izan da Euskaltzaindia, eta, haraindikoaz denaz bezanbatean, Biarritzen. Ibiltari izan, bada Akademia, neurri batean, baina ez gutziak eraginik. Tradizioari jarraiki, Euskaltzaindiak euskaldun guztiona eta Euskal Herri osoarena dela erakutsi nahi izan du. 75. urteurrena aukera ezin hobea zen hemen, hor eta han bilkurak egiteko.*

*Egunoroko lanean, ordea, ezin ahanzt daiteke Euskaltzaindiak eskaintzen duen zerbitzua, etxean eta atzerrian, maila guztietako Administrazio eta Erakundeentzat eta gizabanako mota askorentzat ere, irakasteak direla, funtzionariak direla, zein idazleak eta beste.*

*Zerbitzu hau guztia horretarako behar den giza- eta diru-bitarteko maila egokitik urruti egiten da. Kezka larria du Akademiak, premia handiko anitz lan, ikerketa alorrean, arautze eremuan eta hizkuntzaren jagotean, orobat beste ekimen batzuk, aztertzea bederen merezi dutenak, ezin baitaitezke inola ere aurrera eraman, diru ezagatik. Ildo honetatik, on da Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Nafarroako Comptos Ganbararen Txostenak, zein 1994an prestatu baitzen eta Oroit-Idazki hau prestatzen hasi garenean, 1995eko lehen hilabetetan, aurkeztu baita, honako bi puntuok, oroz gain, azpimarrazten dituela gogoraraztea:*

1. Euskaltzaindiaren kontuek baldintza guztiak betetzen dituzte, diruaren justifikazio, zehaztasun eta erabilera zuzenari dagokiola.

2. Gure Erakundeari ematen zaion diru-laguntza ez da inondik ere aski, Akademiak dituen beharrak asetzeko.

*Euskaltzaindiak espero du egoera latz honetatik laster aterako dela, Herri-Aginteekin garbi eta onez onean hitz eginenez, bai eta alor pribatuarekiko harreman estuagoan. Honengana, egia esateko, behar zen neurrian joango ginatekeen, baldin adierazi balitzaigu gure diru-premia guztiak ez zirela alor publikotik beteak izango.*

*Aurkezpen labur honetan 1994ko beste zenbait gertakari garrantzitsu aipatu behar ditugu, dagokien tokian jasotzen direnak. Haien artean dugu Espainiako Errege-Erreginei egin dako ikustaldi atsegina, La Zarzuelako jauregian, irailaren 19an. Aipa daiteke, berebat, otsailaren 25ean izan zen bilkura adiskidekorra, Erret Akademiekin eta Institut d'Estudis Catalans-ekin, Jagon Sailaren Jardunaldien atari. Bilkurak ekarri zuen ondorio praktikoa, Espainian hizkuntza propioa duten Komunitateen hizkuntz politikaren goi-arduradunak lehenbikoz batu baitziren. Europar Batasuneko komisaria den Marcelino Oreja jaun txit argiaren bisita, ekainaren 3an, oroitaraztea ere laket zaigu.*

*Garrantzitsuenean dugu, zalantzarik gabe, Euskaltzaindiak Bizkaiko Foru Diputazioarekin sinatu duen hitzarmena, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren entzun-material guztia CD-ROMera pasatzeko. Era honetara, bandetan azken urteotan jaso den informazio ondare mukurua gorde ahal izango da.*

*Euskaltzaindiaren Arauen lehen sorta argitaratu izanak ere merezi du lerro hauetan lekua. Kaleratzea Durangoko XIX. Liburu eta Diskoaren Azokan, abenduan, izan zen. Sorketak gutik espero zuen arrakasta bildu zuen. Horrek esan nahi du egoera berri batean bizi garela, euskararen erabilerari eta hizkuntzaren arautzearekiko sentiberari datxekola.*

*Azkenik, Erakundearen barruan, ezin aipatu gabe utzi Albistorria deritzanaren jaiotza. Barneko aldizkari honek biziki ongi betetzen du bere xedea, berri-emaile izateaz gainera Euskaltzaindiaren zerbitzu guztien lokarri ere.*

E. Knörr,  
idazkaria

## **I. Ekintza orokorrak**



## **I.1. Akademi bilkurak eta erabaki behinenak**



## AKADEMI BILKURAK ETA ERABAKI BEHINENAK

### Urtarrila

— Donostiako ordezkarietan, 1993. urtean hasitako Euskaltzaindiaren Erregelen berriztapenarekin jarraituz, 39. artikulua, hots, «euskaltzaina izatea»rena eztabaidatu eta onartu da, eta 40. artikulutik 50.era bitarteko testu zirriborroa banatu da.

— Euskaltzaindiaren 75. urteurrena ospatzeko Akademiak egin behar dituen jardunaldien artean, urteko lehenengoa den Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Jardunaldien lehen partea burutu da.

### Otsaila

— Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan, urtarrileko bileran proposatutako Erregelen artikuluen azterketari ekin diote batzartuek. Horrela 40. artikulutik 50. bis artikulura, Zuzendaritzak proposatu bezala onartu dira, salbu 48.a. Eztabaida luzea izan ondoren, artikulua hauen onarpena hurrengo bilerarako utzi da. Hauek Akademi bilkuren mailakatze eta jaupidea arautzen dute. Ondoren, X. eta XI. atalburuak -ordezkaritez eta ordezkariez- ere onartu dira.

— Hileroko bilkura amaitu eta gero, Akademien arteko ageriko batzarrea ospatu da.

— Ondoren eta hurrengo bi egunetan zehar, 25 eta 26an, Jagon Jardunaldiak, «hizkuntzaren kalitateaz», egin dira.

### Martxoa

— Iruñean, Akademiaren Erregelen berriztatzearekin jarraituz, 21. artikulutik 25.era bitarteko testua onartu da. 28. artikulua, karguen luzeraz, aztertu ondoren, lehen bezala uztea erabaki da. Beraz, kargudunek bi urteko agintaldia izango dute.

— Euskara Batuko batzordetik aurkeztutako hitanozko aditzari buruz, *nagok/zagok*, *negok/zegok*, *zabilak/zebilak*, eta hirugarren pertsona, *zagok/zegok*, eta antzekoak, eztabaidatu dira.

— Ondoren, ekintza akademikoa, hasierako nafar euskaltzainen omenez eta Gramatikako Jardunaldiak egin dira.

### Apirila

— Gasteizen, Arabako Diputazioaren jauregian, hitanoko aditzaren azterketaz jarraitu da. Horrela, aditz laguntzaileen paradigma multzoa ikertu da. Euskara Batuko batzordeak *benetako* eta *ohiko*, batetik, eta *bat-batean*, *behinik behin* eta *batik bat* formei buruzko testu proposamen bat banatu du.

— Administrazioarako, euskalkien erabilerari buruzko txosten hau onartu da: *Euskalkien erabilera Administrazioko 1. eta 2. Hizkuntza-eskakizunetan*.

— 75. urtemugaren barruan, Euskaltzaindiaren hasierako euskaltzain arabarren omenez ekintza akademikoa egin da.

— Ondoren, LEF Jardunaldien jarraipena eta Hiztegi Batuko Jardunaldiak egin dira.

### **Maiatza**

— Bilboko egoitzan egin den bilkuran, Jon Bilbao, euskaltzain ohorezkoaren heriotzearen berri eman du Euskaltzainburuak.

— Erregelen artikuluen azterketari jarraiki, «botu eskubideaz» eta «botu prokurazioaz edo ahalaz» eztabaidatu eta erabaki da. Hurrengo bilkurarako, «Akademi bilkura, onartze, mailakatze eta prozeduraz» deritzan atala banatu da.

— Euskara Batuko batzordeak apirilean banaturiko bi erabaki-proposamen eztabaidatu dira: *benetako*, *ohiko* tituluduna eta *bat-batean*, *behinik behin*, *batik bat* deritzana. Jaso diren oharrak aztertu ondoren, aho batez honako hau gomendatzea erabaki da: *ohiko* eta *ohizko* zilegi jotzea, baina *ohikoa* dela tradizioan nagusi eta Iparraldean dagoen forma bakarra kontuan harturik *ohiko* formari lehentasuna ematea. Bigarren testuari buruz, *bat-batean*, *behinik behin* eta *batik bat* gomendatzen dira, ahoskera betiko eran egin behar dela gogoraraziz.

— Nafarroako Euskararen Legea aldatzeko proposamena bertan behera gelditu dela eta, gai honetaz adierazpen bat egitearen premia ikusten da.

— III. Ahoskera Jardunaldiak egin dira Bilboko egoitzan.

### **Ekaina**

— Miarritzen, «Akademia bilkurak» deritzan Erregelen atala onartu da, eta «Onarpen mailak eta prozedura» izenekoa aurkeztu.

— Hitanoari dagokionez, *nor-nori-nork* saileko paradigmak ontzat eman dira.

— Nafarroako Euskararen legearen berriztatzeaz, Euskaltzaindiaren adierazpena eztabaidatu eta onartu da.

— Iparraldean euskararen ofizialkidetasunaz ere Akademiaren adierazpena onartu da.

— Jarraian eta bi egunez, Exonomastikari buruzko Jardunaldiak egin dira Miarritzen.

### **Uztaila**

— Hil honetako bilkuran, Donostian, Jose Antonio Arana euskaltzainak irakurri du Jon Bilbao euskaltzain ohorezko zenari buruzko txostena.

— Erregeletako «Onarpen mailak eta prozedura» deritzan atala eztabaidatu ondoren onartu da.

— Euskara Batuko batzordekide den Beñat Oihartzabalek *Adizkera trinko alokutiboak: ergatiborik gabeko formak* eta *Adizkera trinko alokutiboak: forma ergatibodunak* izeneko txostenak aurkeztu ditu. Bilkuran eztabaidatu ondoren, oharrak egiteko epea ireki da.

— Literatura Jardunaldiak egin dira Donostian.



## Iraila

— Donostian hitanoaz aurreko bilkuran adizkera trinko alokutiboari buruz banatutako testua aztertu da.

— Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak eskaturik, *batzar*, *biltzar*, *batzarre* formatik zein hobetsi behar den aztertu da, eta *batzar* forma hobetsi da.

## Urria

— Bilbon, Bizkaiko Diputazioaren Jauregian ospatu da urriko hileko bilkura.

— Leioako XIII.Biltzarrean agindutakoari eutsiz, honako arauak onartu dira:

- *Bat-batean, behinik behin, batik bat*
- *Baitu, baikara, bainaiz...*
- *Aurrealde, atzealde* eta antzekoak
- *Hau guz(t)ia* izenburua duen erabakizuna
- *Ene/nire, niri* izeneko erabakizuna (etc.)
- *Usain, arrain, zain* izenburukoa
- *Zenbakiaren idazkerari dagozkionak*
- *Zenbakien deklinabidea.*

— Erregelen azken artikuluen azterketa egin da: «Gehigarritzko xedapenak», «Indargabetze xedapena» eta «Azken xedapena» izenekoak.

— Barne-Erregelen testuari lege aldetikako azken azterketa egiteko, batzordeño bat izendatu da, bertako kideak Jose Antonio Arana, Beñat Oihartzabal eta Andrés Urrutia izango direlarik.

## Azaroa

— Euskara Batuko batzordearen arau-proposamen hauek onartu dira:

- *Zio*
- *Nornahi, nonahi, non-nahi*
- *Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk*
- *Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea
- Lerroz aldatzean marratxoa nola jarri
- Adizki alokutiboak (hikako moldea)
- Partitiboaren erabilera okerra
- *Zu izan ezik*
- Euskal alfabetoaren letren izenak

— *Biarritz/Miarritze* toponimoaz herriko auzapezarengandik jasotako galderari erantzuteko Onomastika batzordearen izenean, Alfonso Irigoyen euskaltzainak bere proposamen-txostena irakurri du. Bilkuran eztabaidatu ondoren, bertan proposatzen dena onartzea erabaki da, hots, euskaraz *Miarritze*-z gainera, *Biarritz* ere zilegia dela.

## Abendua

— Arauekin jarraituz, honako erabakizunak aztertu eta onartu dira:

- Ordinalen eta banatzaileen idazkera
- *Benetako, ohiko* formez
- *Betiko* eta honen kideak
- *Arabera*
- *Iritzi*

- *Arazi*
- *Ba* eta *gabe*-ren idazkera

— Baionako hirian bideseinaleetan bertako *Aturria* eta *Errobia* bi ibaiak legez agertzen direla aipatu da. Horri buruz Akademiaren iritzia helaraziko zaio udalari.

— 1995.erako batzar egutegia onartu da.

## **I.2. Gertakari akademikoak**



## GERTAKARI AKADEMIKOEN LABURPENA

### Urtarrila

— «Príncipe de Asturias» fundazioaren zuzendariak, erakunde honek urteoro deitzen dituen sarietarako hautagaiak aurkeztea eskatu du.

— Euskal Herriko Hizkuntz Atlasari buruzko bilkura egin da Parisen Centre Nationale de la Recherche Scientifique-ko arduradunekin.

— Errenteriako Udalak urteoro antolatzen duen *Koldo Mitxelena* ikerlan sarietako epaimahaikide Juan M. Lekuona izendatu da.

### Otsaila

— Lehenengo aldiz, eta I. Jagon Jardunaldietako ekintzen barruan, Estatuko Hizkuntza Politikarako arduradun guztiak, hots, Balearietakoa, Katalunia, Euskal Herriko Komunitate Autonomokoa, Galiziakoa, Nafarroako Gobernuakoa, bildu dira Euskaltzaindiaren egoitzan, Galesko ordezkari bat ere bertan izan delarik.

— Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak eskatuz, Administrazioetan hizkuntz eskakizunen esparruan euskalkien ezagutza neurtzeko txostena egingo duen batzorde suntsikorra izendatu da. Bertako kideak: M. Azkarate buru, X. Kintana, J. L. Goikoetxea, J. M. Larrarte, J. A. Mujika eta P. Uribarren.

— Hilaren 17an, BBKren kultur aretoan, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kulturak elkarrekin antolatzen duten R.M. Azkue literatura-saria 1993an irabazi zutenen liburua aurkeztu da, *Ipuin eta bertsoak*, 1994ko sarituen berri emateaz gain.

### Martxoa

— Jean Haritschelhar euskaltzainburuak J.L. Lizundiari eta M.P. Lasarteri Euskaltzaindiaren domina bana eman die, Akademiako beren lanaren 25. urteurrenkari. Bien izenean, J.L. Lizundia mintzatu da esker ona agertzeko.



1994.3.25, Iruñea. Nafarroako Diputazio Jauregian Campion eta Etxenikeri omenaldia: M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte eta Jose Luis Lizundiari zilarrezko domina ematerakoan.

### **Apirila**

— Espainiako Kultur Ministerioaren Liburuaren Zuzendariak literatur sormenaren dirulaguntzak erabakitzeko epaimahaikidea eskatu du. Xabier Kintana euskaltzaina izendatu da.

### **Maiatza**

— Jon Bilbao euskaltzain ohorezkoaren heriotzearen berria eman da.

— Pirinio Atlantikoen Departamenduko Conseil de Développement izeneko erakundeak Euskaltzaindia hizkuntza eta kulturari buruzko gaietan aholku-emale izatea eskatu du. Akademiak eskainitako partaidetza onartu du.

— Euskaltzaindiak bere zorionak eman dizkie X. Diharceri eta F. Krutwig euskaltzainei. Lehenengoari, Eusko Ikaskuntzaren *Manuel Lekuona* saria hartu duelako eta Krutwig jaunari ondoko izendapenengatik: Atenasko Nazioarteko Zientzi Forumaren ohorezko buru, Salonikako Grekera Nazioartean Sustatzeko Elkarteko kide eta Erromako Accademia Internazionale di Propaganda Culturale izeneko kide.

— Juan M. Lekuona buruordeak, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean ospatutako Jardunaldien barruan, *Prentsa idatziko eta ikusentzuteko komunikabi-deetako euskara: azken hitzak* izeneko mintzaldia eman du.

### **Ekaina**

— Frantziako Gobernuari zuzendutako adierazpen bat zabaldu da. Bertan, Iparraldean euskararen ofizialkidesuna eta Euskaltzaindiaren aitortpen ofiziala eskatu da.

— Madrileko Kultur Ministerioak antolatzen dituen sormenaren dirulaguntzen berri eman da, Euskaltzaindiko ordezkariak parte hartu baitute epaimahaian. Euskarari dagokionez, saritutakoak honako hauek dira: Patri Urkizu (saiakeran), Xabier Mendiguren Elizegi (eleberrigintzan) eta Xabier Olarra eta Koldo Biguri (itzulpenean).

### Uztaila

— Espainiako Kultur Ministerioak antolatzen dituen Nazio Sariak izenekoetan epaimahaikide izango diren Euskaltzaindiaren ordezkariak izendatu dira:

- Letretako Nazio Saria: J.M. Satrustegi
- Poesia: Karlos Otegi
- Narrazioa: Ana Toledo
- Saiakera: Jon Kortazar
- Antzerkia: Luis Haranburu Altuna
- Haur eta Gazte literatura: Xabier Etxaniz
- Itzulpena: Josu Zabaleta.

— Beñat Oihartzabal euskaltzaina C.N.R.S.ko Directeur de Recherches izendatu dutela jakinarazten da, eta horregatik zorionak eman zaizkio.


— Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak uztailako bilkuretariko bat Barakaldoko udaletxean egin du, herri horretan Euskaltzaindiaren izena duen plaza dagoela eta. Bilkuraren ondoren, alkateordeak eta udal talde politikoen ordezkariak Zuzendaritzakoak hartu dituzte.



*Barakaldo, 1994.7.7. Zuzendaritzaok Barakaldoko alkateorde eta zinegotziekin.*

— Joseba Intxausti euskaltzain urgazleak *Euskerazko biblien historiaz* bere txostena aurkeztu du.

— Donostiako ordezkarietan aurkeztu da *Andoaingo Toponimia* izeneko liburua. Argitalpen hau Onomasticon Vasconiae bildumako 10. liburukia da.



### **Iraila**

— Emakunderen Zuzendariak, hizkuntzaren alorrean sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko Estatu osoko batzorde bat eratuko dela eta Euskaltzaindiari bertan parte hartzeko kide bat izendatzea eskatu dio. Akademiak Miren Azkarate euskaltzaina hautatu du.

— Nils Holmer suediarra ohorezko euskaltzainaren hil berria adierazi da.

### **Urria**

— Gipuzkoako Diputazioak Euskaltzaindiari Gipuzkoako Urrezko Domina ematea erabaki duela adierazi du.



*Bilbo, 1994.10.28. L. Villasanteri omenaldia. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Jose Alberto Pradera, Luis Villasante eta Tomás Uribeetxebarria.*




— Bizkaiko Diputazioak Aita Luis Villasante euskaltzainburu ohiari omenaldia eskaini dio, euskararen alde egin duen lan bikainaren aitorgarri.

— J. Haritschelhar euskaltzainburuak, urriaren 12an Tolosan hil zen Antonio M. Labaien euskaltzainaren heriotzearen berri eman du. Labaien jaunaren hutsunea betetzeko epealdia zabaldu da. Hurrengo bi hilabeteetan aurkeztu ahalko dira hautagaiak eta bozketa urtarrileko batzarrean egingo da.

— Pedro Diez de Ulzurrun medikua eta euskaltzain urgazlea hil honen 20an, Iruñean, hil dela aditzera eman du halaber Euskaltzainburuak. J.M. Satrustegik eta A. Irigoienek -labur- aipatu dute Diez de Ulzurrun jaunaren lan ederra Nafarroako Diputazioaren *Sección de Fomento del Euskera* zeritzanean, batez ere.

— Baionan, hilaren 14an, eta Donostian 18an, *Oihenarten Laugarren Mendeurrena*, -Iker 8- liburua aurkeztu da.



— Iruñean, Patxi Salaberriren *Eslaba aldeko euskararen azterketa Toponimiarren bidez* deituriko liburua aurkeztu da, *Onomasticon Vasconiae* bildumako 11. liburukia.

— Bilbao Bizkaia Kutxak diruz hornituriko Euskaltzaindiaren Literatura sarietarako epaimahaiak izendatu dira.


- Tx. Agirre eleberriz saria: Txomin Peillen, Bernardo Atxaga, Ana Toledo.
- T. Alzaga antzerki saria: Daniel Landart, Eugenio Arozena, Patri Urkizu.
- F. Arrese Beitia olerki saria: Juan M. Lekuona, Mikel Lasa, Jon Kortazar.
- M. Zarate saiakera saria: Alfonso Irigoien, Adolfo Arejita, Andolin Eguzkiza.

## Azaroa

— Espainieraren Erret Akademiak Felipe González gobernuburuari Espainian gaztelaniak jasaten omen duen baztertzeaz egindako gutuna dela eta, Euskaltzaindiaren Jagon Sailak adierazpena egiten du.

— Juan San Martinek, Teodoro Hernandorena euskaltzale hil berriaren aipamena egin du, eta Justo Garate Arriola euskaltzain ohorezko zenari buruz egin duen txostena irakurri du. Jose M. Satrustegik irakurri du ondoren Nils Magnus Holmer ohorezko euskaltzain hil berriaren omenez bere txostena.

— Bilbon, Akademiaren egoitzan, azaroaren 25ean ospatu da Xabier Kintana jaunaren euskaltzain-sarrerara. Aretoan, euskaltzain oso eta urgazleez gain, X. Kintanaren senide, adiskide eta erakunde zenbaiten ordezkariak ere egon dira. Aipagarrien artean, M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; José M. Rodríguez Ochoa, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kulturako foru diputatua; Juan J. Goirienea, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea; Alberto López Basaguren, Unibertsitate beraren idazkari nagusia; Sabin Intxaurrea, Eusko Legebiltzarreko kidea; Txetxu Aurrekoetxea, Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldua; Jose Elorrieta, ELA sindikatuaren idazkari nagusia, etab.



*Bilbo, 1994.11.25. Ezkerrétik eskuinera: Xabier Kintana, Jean Haritschelhar.*

Mahaikideak, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Juan M. Lekuona, buruordea, Endrike Knörr, idazkaria eta Jose A. Arana, diruzaina eta euskaltzain berriaren erantzun-emailea, izan dira.

Xabier Kintana euskaltzain berriak Bilboren euskal nortasunaz hitz egin du, batez ere.

## Abendua


— Gerediaga Elkarateak, Durangoko XXIX. Liburu eta Disko Azokan, argizaiola bana eskaini die Eusko Ikaskuntzari eta Euskaltzaindiari, bi instituzio hauen 75. Urteurrena dela eta.



*Durango, 1994.12.7. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar eta Jose Antonio Azkorbebeitia.*

— Oiartzungo Udaletxean Euskaltzaindiaren Zuzendaritzarako karguen berrizatzeko egindako bilkura berezian, banan-banan bozketara eraman ondoren, Jean Haritschelhar euskaltzainburu, Juan M. Lekuona buruorde, Endrike Knörr idazkari eta Jose Antonio Arana diruzain, berraukeratuak izan dira.

— Hilaren 29an, -Manuel Lekuona mendeurrenkari- III. Herri-Literatura Jardunaldiak egin dira Oiartzungo udal bibliotekan.



— Euskaltzaindiak, abenduaren 7tik 11ra bitartean egin den Durangoko XXIX. Liburu eta Disko Azokan parte hartu du.

— Hil honetan Akademiak honako aurkezpenak egin ditu:

– Donostiako ordezkarietan, *Euskaltzaindiaren Arauak* izeneko hizkuntz arauen bildumaren I. sortaren aurkezpena egin da.

– Akademiaren egoitzan, Bilbon, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak elkarrekin ematen dituzten sari hauen banaketa egin da, hots, *Txomin Agirre* eleberria, *Toribio Alzaga* antzerkia, *Felipe Arrese Beitia* olerkia eta *Mikel Zarate* saiakera literatura-sariak.

– Iruñean, Nafarroako Gobernuaren argitalpen-aretoan, Jose M. Jimeno Jurío eta Patxi Salaberri onomastika batzordekideen liburu honen aurkezpena egin da: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona/Iruña*. Argitalpen hau Onomasticon Vasconiae bildumako 12. liburukia da.

## **II. Euskaltzainak, karguak eta batzordeak**



## **II.1. Euskaltzainak eta karguak**

### **EUSKALTZAIN OSOAK:**

Patxi Altuna  
Jose Antonio Arana Martija  
Miren Azkarate  
Pierre Charritton  
Jean-Luis Davant  
Xabier Diharce «Iratzeder»  
Jean Haritschelhar  
Alfonso Irigoien  
Xabier Kintana  
Endrike Knörr  
Federiko Krutwig  
Antonio Maria Labayen (†)  
Emile Larre  
Juan Mari Lekuona  
Beñat Oihartzabal  
Francisco Ondarra  
Txomin Peillen  
Pello Salaburu  
Juan San Martin  
Ibon Sarasola  
Jose Mari Satrustegi  
Luis Villasante  
Patxi Zabaleta  
Antonio Zavala

### **ZUZENDARITZA:**

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

Juan Mari Lekuona, buruordea

Endrike Knörr, idazkaria

Jose Antonio Arana, diruzaina.

### **ERAGILEAK:**

Jose Luis Lizundia, idazkariordea

Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea

Jose Antonio Arana, bibliotekaria

Ricardo Badiola, argitalpen eragilea

Pello Telleria, eragile teknikaria.



## **II.2. Euskaltzaindiko batzordeak**

1993-94 urtebikoa

### **IKER SAILA**

**Iker sailburu:** Patxi Altuna

#### **I. HIZTEGIGINTZA**

Batzordeburu: Ibon Sarasola  
Idazkari: Mikel Zalbide

Batzorde hau hiru azpibatordetan banatzen da:

##### **I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)**

Arduradun: Ibon Sarasola  
Idazkari: Iñaki Segurola  
Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, Elixabette Kruzeta, Blanca Urgell, Eduardo Valencia.

##### **I.2. Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF)**

Arduradun: Miren Azkarate  
Idazkari: Jose Antonio Aduriz  
Kideak: Patxi Altuna, Xipri Arbelbide, Martxel Ensunza, Patxi Goenaga, Jose M.<sup>a</sup> Larrarte, Luis Mari Mujika, Beñat Oihartzabal, Lourdes Otaegi, Elixabete Perez Gaztelu, Andoni Sagarna, Patxi Uribarren, Tomas Uribeetxebarria, Patri Urki zu, Mikel Zalbide.

##### **I.3. Hiztegi Batuko azpibatzerdea**

Arduradun: Ibon Sarasola  
Idazkari: Jose Antonio Aduriz  
Kideak: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Mikel Zalbide.

## **II. GRAMATIKA**

Buru: Patxi Altuna  
Idazkari: Patxi Goenaga  
Idazkariorde: M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte  
Kideak: Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Alan King, Jose Mari Larrarte, Jesus Mari Makazaga, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

### **III. DIALEKTOLOGIA**

Buru: Txomin Peillen

#### **III.1. Atlasgintza azpibatzerdea**

Arduradun: Jean Haritschelhar

Idazkari teknikoak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain

Kideak: Isaac Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

#### **III.2. Euskalkien Ikerketa azpibatzerdea**

Arduradun: Txomin Peillen

Idazkari: Iñaki Gaminde

Kideak: Gotzon Aurrekoetxea, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Alfonso Irigoien, Rosa Miren Pagola, Karmele Rotaetxe, Xarles Videgain.

### **IV. ONOMASTIKA**

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Andres Iñigo, Alfonso Irigoien, Jose Mari Jimeno Jurío, Jose Luis Lizundia, Jean-Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

#### **Exonomastika lantaldea**

Dionisio Amundarain, Andolin Eguzkitza, Martxel Etxehandi, Antton Gurrutxaga, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Xabier Mendiguren, Beñat Oihartzabal, Jose M. Satrustegi.

### **V. LITERATURA**

Buru: Juan Mari Lekuona

Batzorde hau bi azpibatzerdetan banatzen da:

#### **V.1. Herri-Literatura**

Arduradun: Antonio Zavala

Idazkari: Pello Esnal

Kideak: Jose Maria Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Jose Mari Iriondo, Emile Larre, Abel Muniategi.

#### **V.2. Literatura-Ikerketa**

Arduradun: Juan Mari Lekuona

Idazkari: Jon Kortazar

Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jean Haritschelhar, Juan Kruz Igerabide, Luis Mari Mujika, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

#### **Aholkulariak**

Jon Casenave, Jon Juaristi, Jesus M. Lasagabaster, Jean-Baptiste Orpustan, Juan Otaegi, Bittor Uruga.

## **JAGON SAILA**

**Jagon sailburu:** Endrike Knörr

### **VI. JAGON SAILA**

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Andres Urrutia

Kideak: Ramuntxo Camblong, Pierre Charritton, Andres Iñigo, Xabier Kintana, Federico Krutwig, Juan Mari Lekuona, Jose Luis Lizundia, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Jose Mari Satrustegi, Jose Mari Velez de Mendizabal, Mikel Zalbide.

#### **Aholkulariak**

Jose Antonio Arana Martija, Juan Antonio Letamendia, Patxi Zabaleta.

## **EGITURAZKO BATZORDEAK**

### **VII. AZKUE BIBLIOTEKA**

Buru: Jose Antonio Arana Martija

Idazkari: Juan Jose Zearreta

Kideak: Federiko Barrenengoa, Jon Bilbao, Juan Luis Goikoetxea, Jose M. Larrarte.

### **VIII. ARGITALPENAK**

Buru: Jean Haritschelhar

Eragile/Idazkari: Ricardo Badiola

Kideak: Patxi Altuna, Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Juan Mari Lekuona, Txomin Peillen, Ibon Sarasola.

### **IX. JURIDIKOA**

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta.

## **BATZORDE SUNTSIKORRAK**

### **EUSKARA BATUKOA**

Buru: Patxi Altuna

Idazkari: Pello Salaburu

Kideak: Miren Azkarate, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola, Luis Villasante.

### **75. URTEURRENEKOA**

#### **Akademi azpibatzerdea**

Jean Haritschelhar, Juan M. Lekuona, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija, Patxi Altuna, Miren Azkarate, Pello Salaburu, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola, Luis Villasante.

#### **Antolakizun azpibatzerdea**

Endrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Juan Jose Zearreta, Ricardo Badiola, Pello Telleria.

## **AHOSKERA**

Buru: Patxi Altuna

Idazkari: Iñaki Gaminde

Kideak: Jose Luis Alvarez «Txillardegi», Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Jose Ignacio Hualde, Miren Lourdes Oñederra, Rosa Miren Pagola, Xarles Videgain.

## **HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN ESPARRUAN EUSKALKIEN EZAGUTZA NEURTZEKO BATZORDEA**

Buru: Miren Azkarate

Idazkari: Patxi Uribarren

Kideak: Juan Luis Goikoetxea, Xabier Kintana, Jose Mari Larrarte, Jose Antonio Mujika.

### **III. Iker Saila**



### **III.1. Hiztegitza**





### **III.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA**

*Orotariko Euskal Hiztegia* egiten ari den lantaldeak ohiko erredakzio- eta zuzenketa-lanean jarraitu du 1994an zehar, euskararen hitz-altxorra biltzen eta aztertzen.

Hiztegiaren VII. liburukia, *ERE-FA* zatia hartzen duena, kaleratu da 1994an. Guztira 798 orrialde ditu eta bertan 7.752 hiztegi-sarrera agertzen dira. Lantaldeak liburuki honen zuzentze-lana egin du lehen urte-erdian.

#### **1994ko lanen zehaztapena**

Ondoko eranskinetan ematen da *OEH*ko lantaldeak urtean zehar egindako lanen berri xehea.

Hona hemen, laburbilduz, egindakoa:

— Erredakzioari dagokionez, *GA-ID* tartea landu da.

— Zuzenketa-lanean, alde batetik, VII. liburukiari dagokion *ERE-FA* zatia egin da, eta bestetik, testu-zuzenketan *GAS*, sarrera-buruen zuzenketan *GA* eta zuzenketa filologikoan *GARR* atalak egin dira.

1. ERANSKINA

1994ko ZUZENKETA-LANAK

	KOORDINAZIOA ETA ZUZENKETA		TESTU ZUZENKETA	SARRERA BURUEN ZUZENKETA	ZUZENKETA FIL. ETA LEXIK. MAKINARATZEA
Urtarrila	est- 	esa- 	esa- eskas-	es-	—
Otsaila	ez- 	est- 	esk- est-	es-	est-ez
Martxoa		est- eur- 	est- et-	es- et- eu-	ez-
Apirila	ez- 		est- et-	eu- ez-	ez-
Maiatza	ere-/ez- 	ez- 	et- ez-	ez-	ere-/ez-
Ekaina	fa- 	fa- 	ez- fa-	ez- fa-	fa-
Uztaila	7. liburukiaren 2. zuzenketak	7. liburukiaren 2. zuzenketak	ez- fa-	ez- fa-	ere-/fa-
Abuztua	2. zuzenketak	—	fa-	fa-/fe-	ere-/fa-
Iraila	7. liburukiaren azken probak fe.../	—	fe-/fl-	fe-/fi-	—
Urria	fe.../	—	fl-/fr-	fi-/fr-	—
Azaroa	fe-/fu ga...	—	fr-/fu-	fr-/fu-	fe-/fu-
Abendua	ga-/garr-	—	gar-/gas-	fr-/fu- ga...	—

## 2. ERANSKINA

### 1994ko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
gau-	gau- gax- gaz-	gaz- gehi-	gehi- gel-	gel- gen- ger-	ger-	gero	gero- gerr- gert-	gert- geu- gez-	goi-	goi-	goi- gok- gol-
garbi-	garbi-	gar-	gar-	gar-	gor-	gor- gos-		gor- gos- got-	got- goz- gr-	goz- gr-	gr- id-
fra-/fre- fri- fro-	fro- fru- fun-	fun- fur- gib-	gi-	gi- go-	go-	gogo	gogo	gogo gu-	gu-	gul- gup- gur-	gur-
ga-	ezer ga-	hezi gab-	gab-	gab- gai-	gai-	gai-		gal-	gal-	gai- gal-	gai- gal-
farre	farre fax faz fede	fede feri ferm	fer- fes- fi-	gis- giz-	giz-	giz-	giz-	gl- gu-	gut-	gut- guz-	guz-



### III.1.2. LEF BATZORDEA

Batzorde honek bost bilera egin ditu 1994an zehar. Hiru gai nagusitan biltzen da batzordeak aurten egindako lana: Eratorpen-atzizkiak, erdal aurrizkien euskal ordainak eta *Hitz-elkarketa/2* liburuaren prestaketa. Batzordeak bekadun baten laguntza izan du urte-erdian.

#### Eratorpen-atzizkiak

Gai honetaz iaz lantzen hasitako txosten honen bigarren idazketa egin du Miren Azkarate batzordeburuak:

— *LEF batzordearen txostena: eratorpenaz.*

Txosten honetan bildu dira zalantzaren bat sortzen duten erabideak, batez ere azken urteotako sorkarietan sumatu diren berrikuntza, desoreka eta are bide-galtzeak:

- Atzizkien lema eta aldaerei dagozkien arazoak.
- Oinarriaren kategoriatik datozen auziak.
- Ez dagokion adiera edo balioa ematetik datozen akatsak.
- Erdal maileguen egokitzapenean erabilitako atzizkiak.

-AR / -TAR atzizkien sailean egindako oharra jarraituz, eta arazoa argitzeko asmoz, herrien izendegia sartu da ondoren txostenean.

#### Erdal aurrizkien euskal ordainak

Ondoko txostenak landu, aurkeztu eta eztabaidatu dira:

— *Re- erdal aurrizkiaren euskal ordainez*: Xipri Arbelbide. Txostenaren lehen idaztaldia.

— *Co(n)- eta equi- erdal aurrizkien euskal ordainez*: Jose M. Larrarte. Txostenaren bigarren idaztaldia.

— *Leku-denborazko erdal aurrizkien euskal ordainak euskaraz*: Beñat Oihartzabal. Txostenaren lehen idaztaldiaren jarraipena.

— *In- erdal aurrizkiaren euskal ordainez*: Patxi Goenaga. Txostenaren bigarren idaztaldia.

— *Erdal aurrizki zenbatzaileen irtenbide bila (II). (Ondore modukoak)*: Elixabete Perez Gaztelu. Txostenaren bigarren idaztaldia aurkeztu bakarrik egin da.

#### Hitz-elkarketa

Aurreko urteetatik amaitu gabe dagoen lan honen moldaketan jarraitu dute batez

ere batzordeburuak eta LEFeko bekadunak, *Hitz-elkarketa/2* izeneko liburuaren argitalpenaren prestaketa-lanetan. Hitz-elkarketaren barnean egindako lanak honako hauek izan dira:

— *Eguzki-lore* motako hitz-elkarketako hiru txostenen idazlana amaitu da.

— Hitz-elkartetako fitxategia osatu: bigarren sailkapena egin da, batzordeburuak prestatuz eta bekadunak fitxategian sartuz. Fitxategian, *Eguzki-lore* motakoez gain, *Hitz-elkarketa/3* liburuko eta eratorpeneko fitxategitik elkarketakora pasa beharreko fitxak ere sartu dira fitxategian. Fitxa berri horiei ere dagokien lehen sailkapena eman zaie.

— Fitxak bateratu eta laburtu egin dira, argitaratzeari begira. Guztira 6.635 fitxa daude.

— Lemak zehaztu: sarrera-hitzak zehazten saiatu da, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hitz-Elkarketa/4*ko irizpideei jarraituz.

— Testuinguruak zabaldu eta zuzendu dira, behar diren konprobazioak eginez, horrela fitxategia etengabe zuzenduz eta zalantzei erantzunez.

### III.1.3. HIZTEGI BATUKO BATZORDEA

Aurreko urtean lantzen hasitako hirugarren aztergaia izan da Hiztegi Batuko batzordearen langaia 1994. urtean. Hamasei bilera egin ditu, eta 3.600 forma aztertu, *birjintasun - haurgintza* bitartekoetan oinarritzkoenak eta erabilienak.

#### Aztergaia

Bitarikoia da hirugarren aztergaiaren oinarria: *EEBS (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoaren)* corpusean maizenik agertu diren 5.000 formak jasotzen ditu, bate-tik, eta, bestetik, tradizioko erabileretan halako bermea dutenak, *OEH-ren (Orotariko Euskal Hiztegiaren)* corpusak ziurtatzen duenez. Oinarri horiez gain (eta tradizio edo erabilera handirik gabeko adierazle egoki bat edo beste txertatuz), bere baitan biltzen ditu aztergai honek aurreko bietan landutako formak ere, hots: Euskaltzaindiak lehendik proposatuak dituen hiztegi eta hiztegitxo berraztertuak, hasi 1968ko *Batasunaren Hizte-gia*-tik eta 1986ko *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* arte, eragin nabarmena izan zuten *Merkatalgo izendegia* (1984) eta *Zortzi urte arteko ikastola Hizte-gia* (1975) barne.

#### Lan-prozedura eta irizpideak

Forma batuak erabakitzea-proposatzea da pasaldi honetako eginkizun nagusia. Une honetan, ordea, batasuna egiteko formak erabakitzea bezain garrantzizkoa da horretara heltzeko oinarri eta irizpideak landu eta agertzea, ahalik eta leialkiena jokatzuz. Horregatik, auzigairen bat sumatzean, tradizioko eta gaurko erabilerak islatzen dituzten txostenak lantzen dituzte UZEIko prestalaneko kideek, aipatutako corpus bietako informazioa eskainiz (eta bestelakorik ere gehituz, egokituz jotzean). Informazio hori irakurri eta interpretatuz, bere ondorioak atera ohi ditu batzordeak, bestelako alderdiak baztertu edo ahaztu gabe: adibidez, erregulartasun paradigmatico-sistematikoa zaintzen du, osae-ra argitzen, ikuspegi edota informazio zabalagoz (berr)ikusitako beharko direnak seinatzen, e.a.

Bi eginkizunok batera daramatza batzordeak, formen zein irizpideen ondorioak dokumentu banatan egituratuz eta horien berri emanez euskaltzainei eta gainerako iritzi-emaileei: *Hiztegi Batua: 3. aztergaia* izeneko agirietan ikus litezke lehenak; bigarrenak, berriz, *Hiztegi Batua osatzeko irizpideak* deituriko txostenean.

#### Iritzi-emaileei banatutako hitz-zerrendak

Apirilean, Hiztegi Batuko Jardunaldietan aurkeztu eta banatu ziren hirugarren aztergaiko lehen emaitzak:

- A letraz hasien zerrenda (1.200 bat forma).
- Irizpideen formalizazioa.

— Aztergai sistematiko zenbait (cf. maileguetako *g/j*, *j/i/x* grafiak eta *-ari/-ario*, *-tate/-dade* amaierak; *-ska/-xka* atzizkiaren forma).

Beste bi zerrenda banatu dira geroago:

— *B* letraz hasiena, ekainean, (1.400 bat forma), eta

— *C-D-E* letraz hasiena, irailean, (1.800 bat forma, guztira).

Hurrengo urtearen hasieran banatzeko prestatu dira, era berean, *F* eta *G* letraz hasienak.

Hitz-zerrenda hauek 84 ohargile eta iritzi-emailerri igorri zaizkie, oharrak egin ditzaten.



## **III.2. Gramatika batzordea**



## GRAMATIKA BATZORDEA

Gramatika batzordearen lanak 1994an bi alor ukitu ditu. Batetik, juntadurari buruzko lana amaitzea eta, bestetik, Leioako Biltzarra prestatzea. Aurreko urtean *juntadurari* buruzko azterketa hein handi batean amaitutzat eman zen, baina gaiaren berritasunak beti ere arazo berriak agerrarazten zituen eta, horregatik, 1994an zehar behin eta berriro juntagailuen azterketari ekin behar izan dio batzordeak.

### Bilerak eta aztergaiak

Ohiko bederatzi bilera egin ditu Gramatika batzordeak urtean zehar. Horiez gainera, Iruñean Jardunaldi berezia izan da 1994ko martxoaren 25ean, Nafarroako Gobernuaren jauregian, eta Leioan urriaren 3tik 7ra Euskaltzaindiak egin duen XIII. Biltzarrean ere Gramatika batzordeak parte hartu du.

a) *Juntaduraren azterketa*. Batzordeak aurreko urtean luzaro aztertu eta eztabai-datu duen gaia izan arren, gelditzen ziren hutsunez aritu behar izan du zenbait bileratan. Gai aurkibidea landu behar izan da eta azken orduko ukituak ere eman behar izan zaizkio lanari. Azken orrazketaz eta gaien koordinazioaz Miren Azkarate batzordekidea arduratu da. Nolanahi ere, lan hau izugarri atzeratu da Leioako Biltzarreko txostenaren prestaketa dela medio. Hain zuzen, horregatik izan ez balitz, lanak lehenago ikusiko zuen argia.

Edozein modutan, azken urteotako lanaren fruitu, 1994ko Durangoko Azokarako kalean izan da juntaduraren azterketaz ari den Gramatika batzordearen liburukia: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV (Juntagailuak)*.

b) *75. Urteurrenako Biltzarra*. Euskaltzaindiaren 75. Urteurrena ospatzeko, Gramatika batzordeak jadanik erabakia zuen zein izango zen haren emaitza. Gai xehe eta zehatzez osatutako zerrenda bat aurkeztea erabaki zuen bere garaian, eta 1994ko bilera-rik gehienak gai horiek lantzeari eskaini dizkio Gramatika batzordeak. Bi txosten-sortatan bilduak eskaini ziren gaiok Iruñeko Gramatika Jardunaldietan eta Leioako Biltzarrean: *Batasunerako proposamenak* izenekoa bata, eta *Okerrak zuzenduz* izenburupean bigarrena.

Lehenbiziko txosten-sortak beste hamasei gai xeheago biltzen zituen, denak euskararen batasunari zegozkionak:

1. *Hori eta, Hori edo* eta horrelakoen idazkeraz.
2. Diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea.
3. Partitiboa baiezko perpausetan noiz nola.
4. *-ko / -tako* bereizketa.
5. *Betiko ala betirako?*
6. Orduak adierazteko modua.
7. Datak nola eman aditzera.
8. *Ongi etorri / Ongi etorria*.
9. Zenbait aditzen erregimena (*gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu*).

10. *Egin asmoz / Egiteko asmoz.*
11. *Aditz arazleen erregimenaz.*
12. *Zu ezik / Zu izan ezik.*
13. *Zenbait juntagailuri buruzko gomendioak.*
14. *Merezi-ren erregimena.*
15. *-ez gero ala ezker?*
16. *Etorriko zen bezalakoak baldintzazkoetan.*

Modu berean, bigarren txosten-sortan gaur egun euskaldunen ahotan gertatzen diren zenbait oker jasotzen ziren:

1. *-a bokalaz amaitzen direnen mugagabeko deklinabideaz.*
2. *-z instrumentalaren zenbait erabilera oker.*
3. *Partitiboa eta aditzaren komunztadura.*
4. *Berri hitzaren gehiegizko erabilera.*
5. *Honezker? / Dagoeneko.*
6. *Iraun, balio/kosta, luzatu, neurtu, pisatu eta antzeko aditzen objektuez.*
7. *\*Ehun pezetatan garestitu.*
8. *\*Topikoa bihurtu.*
9. *\*Ez daukazu zertan egin beharrik.*
10. *Baita ere, ezta ere.*
11. *\*Bazkaria eta gero / Bazkaldu eta gero.*
12. *??Hitzaldia medio / Hitzaldia dela medio.*
13. *\*Hobe esan.*
14. *-z instrumentala pluralean: -et(z)az ala -ez?*
15. *.\*tazko.*
16. *Elkar izenordainaren erabilera eta deklinabidea.*
17. *Ahalezkoaren erabileraz eta balioaz.*
18. *Absolutiboa eta datiboa elkarren lehian zenbait aditz inbertsonalekin.*
19. *Konpletiboen inguruko zenbait gorabehera: -enik / -ela.*
20. *Konparaziozko eta baldintzazko zenbait esapide.*


Gai hauetako batzuk iaz prestatzen hasi baziren ere, gehienak 1994an burutu dira. Leioako Biltzarreraren ondorengo bi bilerak ere, funtsean, Biltzarrean eta Biltzarreraren ondoren jasotako oharra aztertzeari eskaini dizkio Gramatika batzordeak, gero Euskaltzaindiak bere Gomendio-Erabakiak ematerakoan ahalik eta langai egokiena izan dezan.

### **Iturriak**

Ohi den bezala, Gramatika batzordearen lana ezinezkoa gertatuko zatekeen OEH-rako landutako corpus-az baliazkerik izan ez balitz. 1994. urtean Leioako Biltzarrerako gaien prestakuntzara zuzenduak joan dira, batez ere, bilaketak, juntaturari dagozkion erreferentziak jadanik jasoak baitziren. Horrela, egin diren proposamenek behar zuten euskarria izan dute, proposamenak arrazoitzeko bidea eman baitzaio batzordeari. Orain arte bezala, EJI Eren laguntzaz baliatu da batzordea, eta J.M. Makazaga batzordekidea-ren bitartekotzari esker.

### **III.3. Dialektologia**

**Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)**



## **EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA**

Joan den urtean Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko lantaldea bi egiteko nagusiren inguruan aritu da gehienbat: datu-sarrera eta datuen elaboraketarako eta kartografiatzeko proiektua.

### **Inkestagintza**

A.M. Echaide andereak azken bi inkesten txatalak amaitu ditu urtearen hasieran: Abaurregaina eta Eugi herrienak.

### **Datu-sarrera**

#### **Lehen liburukia**

Lehen liburukia prestatzeko beharrezko datuak ordenagailuan sartzea apirilean amaitu da, aurrikusita zegoen bezala. Informazio hori sartu ahal izateko bost herri hauen datuak prestatzea falta zen, eta lehenik datu-prestaketa hori burutu da: Abaurregaina, Zilbeti, Legazpi, Mezkiritz eta Eugi.

Ondoren 51 herri hauen datuak sartu dira ordenagailuan:

- Bizkaia (15): Berriz, Etxebarri, Arrazola, Elantxobe, Zeberio, Busturia, Zeanuri, Orozko, Lemoiz, Bakio, Zollo, Laukiz, Sondika, Leioa eta Bermeo.
- Gipuzkoa (1): Legazpi.
- Nafarroa (7): Luzaide, Abaurregaina, Alkotz, Zilbeti, Mezkiritz, Oderitz eta Eugi.
- Lapurdi (8): Sara, Senpere, Azkaine, Beskoitze, Donibane-Lohizune, Mugerre, Bardoze eta Urketa.
- Nafarroa Beherea (11): Aldude, Irisarri, Uharte Garazi, Arnegi, Arruta, Jutsi, Arboti, Isturitze, Ezterenzubi, Larzabale eta Bastida.
- Zuberoa (9): Ürrüstoi, Barkoxe, Altzai, Santa-Garazi, Altzürükü, Phagola, Urdiñarbe, Larrañe eta Domintxine.

Maiatzean, beraz, prest geratu da lehen liburukiaren edukina.

#### **Bigarren liburukia**

Lehen liburukiko datuak sartzen amaitu orduko bigarren liburukiaren datu-sartze-ari ekin zaio, prestaketa-lanak egin ondoren.

Bigarren atalak lehenak baino 200 galdera gehiago dauzka guztira, eta beraz inkestak sartzeko behar den denbora ere luzeagoa izan behar derrigorrez.

Abenduaren amaierarako 59 herri hauen inkestak sartu dira ordenagailuan:

- Bizkaia (11): Errigoiti, Mañaria, Lemoa, Larrabetzu, Fika, Arrieta, Mungia, Berriz, Zollo, Sondika eta Laukiz.
- Gipuzkoa (23): Errezil, Getaria, Orio, Pasaia, Oiartzun, Asteasu, Tolosa, El-duain, Lasarte, Amezketza, Oresa, Itsaso, Donostia, Ikaztegieta, Hondarribia, Beasain, Eibar, Oñati, Araotz, Legazpi, Beizama, Zegama eta Arroa (Zestoa).
- Nafarroa (5): Arbizu, Urdiain, Etxaleku, Luzaide eta Eiaurrieta.
- Lapurdi (7): Bardoze, Makea, Beskoitze, Uztaritze, Itsasu, Urketa eta Mugerre.
- Nafarroa Beherea (8): Arnegi, Uharte Garazi, Bastida, Irisarri, Bidarra, Larzabale, Aldude eta Baigorri.
- Zuberoa (5): Eskiula, Ürrüstoi, Domintxine, Altzürükü eta Barkoxe.

Ondoko taulan adierazten da, zenbakitan, 2. liburukirako datu-sartzearen egoera abenduaren amaieran:

	DATU - SARRERA			
	OSORIK	2. LIB. EGINDA	GUZTIRA	FALTA
Bizkaia	4	11	36	21
Araba	0	0	1	1
Gipuzkoa	5	23	36	18
Nafarroa	7	5	27	15
Lapurdi	0	7	15	8
Naf. Beherea	2	8	18	8
Zuberoa	0	5	12	7
Guztira	18	59	145	68

### Datuen elaboraketa eta kartografia-lanak

Urtearen hasieran bultzada eman zaio proiektuaren eguneratzeari. Alde batetik, Frantziako CNRS (*Centre Nationale de la Recherche Scientifique*) erakundearekin bilera egin da, eta, bestetik EJI Erekiko harremanak bizkortu dira. Horrek guztiak proiektuaren definizioan eta zehazte-mailan aurrerapausoa emanarazi dio Atlasari. Alor honetan galdera batzuei buruzko mapa-probak egin dira eskuz. Mapa-proba hauek Atlasarako hautatu den kartografia-eredua biltzen dute.

Proiektua gehiago definitu ondoren, Frantziako atlasetan erabiltzen den eredu kartografikoa kontuan izanik eta EJI Erek tresneriaz eta programeriaz emandako aurrekontuarekin proiektuaren zuzendariak lana aurrera ateratzeko txostena aurkeztu diote Euskaltzaindiari apirilean, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas (EHHA) proiektuaren eguneratzea: datuen elaboraketa eta kartografia* deiturikoa. Euskaltzaindiak, une hartako diru-urritasuna ikusirik, proiektua geldierazi zuen, aurrera eramateko baliabiderik ez zuela eta. Geroztik, proiektuko lankideak datu-sartze lanean aritu dira ia osorik.



Hala ere, proiektuaren zuzendariek beste pauso batzuk eman dituzte geroztik:

— CNRS-ri txosten horren moldaketa eman zaio.

— CNRS-ren eskutik, Montpellier-eko GIP-RECLUS taldeko lanak ezagutu dira, kartografiarako irtenbide desberdinen bilaketan.

— Elhuyar elkartearekin ere izan da harremanik, datu-baseak, kartografia automatizatuak, tresneria eta programeriari buruzko informazioa, emaitzak argitaratzeko euskarri informatikoa, e.a. tratatuz.

— Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizen duen Geografia Fakultateko «Geografia Mintegi»arekin ere bildu dira Atlasaren zuzendariak, Erakunde horrek kartografia-arloan eskain dezakeenaz jabetu nahirik.

### **Euskaltzaindiko beste batzordeek eskaturiko txostenak**

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasak duen hizkuntz aberastasuna kontuan izanik, batzorde honek zenbait txosten-eskabide jaso du:

— Gramatika batzordeak hala eskatuta, EHHAk orduei buruz bildutakoaz txosten hau gauzatu da: *Orduak adierazteko erak EHHaren arabera*.

— Gramatika batzordearen eskariz, txostena egin da *gonbito*, -u gaitzat harturik.

— Onomastika batzordeak eskatuta, *Astronomia izenak EHHAn izeneko txostena* burutu da.

— Euskaltzaindiaren idazkariordeak eskatuta, *Erromintxela soziolinguistikoki ikerteko proiektua delakoaz* txostena egin da.

### **Zintak CD-ROMera pasatu**

Euskaltzaindiak abenduan Bizkaiko Diputazioarekin egindako hitzarmenaren bidez, Atlaseko 145 herriren inkestak jasotzen dituzten 2.400 zintak euskarri sendoagora pasatuko dira.

### **Beste zeregin batzuk**

— Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean bi txosten hauek aurkeztu dituzte Atlaseko lantaldekoek: *Hitanoa ahozko hizkuntzan Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera* eta *Bat/batzuk eta nor/nortzuk Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera*.

— Gotzon Aurrekoetxeak Lasarte-Oriatik Atlaseko datuez jasotako eskariari buruzko irizpena prestatu du.

— Laguntza eta aholku eske etorritakoëi erantzun zaie: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik *Nekazaritza Hiztegia* dela-eta, eta monografia dialektalak egiten ari diren ikerleak hurbildu dira Atlasera, argibide eta laguntza eske.

— Atlas lantaldeko Izaskun Etxebeste, Leitzañan izan da euskarari buruzko ikerketa egiteko bekaduna aukeratzeko epaimahaikide.

— Xarles Videgainek, Vielha (Vall d'Aran) hirian egin den «I. Simpòsi de dialectologia pirinenca» ekitaldian parte hartu du.

ERANSKINA

**EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA: DATU-SARRERA (94.12.31)**

INKESTA HERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
101 Getxo		X	X	X	X	X
102 Leioa	X	X				
103 Zollo	X	X	X			
104 Sondika	X	X	X			
105 Laukiz	X	X	X			
106 Lemoiz	X	X				
107 Etxebarri	X	X				
108 Zaratamo		X	X	X	X	X
109 Orozko	X	X				
110 Mungia	X	X	X			
111 Zeberio	X	X				
112 Bakio	X	X				
113 Fika	X	X	X			
114 Larrabetzu	X	X	X			
115 Arrieta	X	X	X			
116 Lemoa	X	X	X			
117 Dima		X	X	X	X	X
118 Zeanuri	X	X				
119 Errigoiti	X	X	X			
120 Bermeo	X	X				
121 Busturia	X	X				
122 Euba	X	X				
123 Mañaria	X	X	X			
124 Otxandio	X	X				
125 Ibarruri	X	X				
126 Mendata	X	X				
127 Kortezubi	X	X				
128 Elantxobe	X	X				
129 Berriz	X	X	X			
130 Arrazola	X	X				
131 Elorrio	X	X				
132 Bolibar	X	X				
133 Gizaburuaga	X	X				
134 Lekeitio	X	X				
135 M.-Etxebarri		X	X	X	X	X
136 Ondarroa	X	X				
201 Aramaio	X	X				
301 (Le.-)Gatzaga	X	X				
302 Arrasate	X	X				
303 Eibar	X	X	X			
304 Araotz	X	X	X			
305 Oñati	X	X	X			
306 Bergara		X	X	X	X	X
307 Elgoibar	X	X				
308 Mendaro	X	X				
309 Deba	X	X				
310 Azkoitia	X	X				
311 Urretxu	X	X				

INKESTA HERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
312 Legazpi	X	X	X			
313 Zegama	X	X	X			
314 Itsaso	X	X	X			
315 Zestoa (Arroa)	X	X	X			
316 Azpeitia		X	X	X	X	X
317 Getaria	X	X	X			
318 Beizama	X	X	X			
319 Beasain	X	X	X			
320 Ataun	X	X				
321 Errezil	X	X	X			
322 Aia		X	X	X	X	X
323 Orio	X	X	X			
324 Asteasu	X	X	X			
325 Ikaztegieta	X	X	X			
326 Amezketa	X	X	X			
327 Tolosa	X	X	X			
328 Donostia	X	X	X			
329 Lasarte	X	X	X			
330 Andoain		X	X	X	X	X
331 Elduain	X	X	X			
332 Oresa	X	X	X			
333 Hernani		X	X	X	X	X
334 Pasaia	X	X	X			
335 Oiartzun	X	X	X			
336 Hondarribia	X	X	X			
401 Urdiain	X	X	X			
402 Arbizu	X	X	X			
403 Dorrao	X	X				
404 Gaintza		X	X	X	X	X
405 Leitzza	X	X				
406 Etxarri		X	X	X	X	X
407 Oderitz	X	X				
408 Goizueta	X	X				
409 Ezkurra	X	X				
410 Beruete		X	X	X	X	X
411 Igoa	X	X				
412 Etxaleku	X	X	X			
413 Xuarbe	X	X				
414 Sunbilla		X	X	X	X	X
415 Donamaria	X	X				
416 Etxalar	X	X				
417 Alkotz	X	X				
418 Anitz		X	X	X	X	X
419 Lekaroz		X	X	X	X	X
420 Zugarramurdi	X	X				
421 Eugi	X	X				
422 Errazu		X	X	X	X	X
423 Zilbiti	X	X				
424 Mezkitz	X	X				
425 Luzaide	X	X	X			
426 Abaurregaina	X	X	X			
427 Eaurta	X	X				

INKESTA HERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
501 Hendaia	X	X				
502 Don.Lohizune	X	X				
503 Azkaine	X	X				
504 Sara	X	X				
505 Senpere	X	X				
506 Ahetze	X	X				
507 Arrangoitze	X	X				
508 Uztaritze	X	X	X			
509 Mugerre	X	X	X			
510 Itsasu	X	X	X			
511 Urketa	X	X	X			
512 Beskoitze	X	X	X			
513 Hazparne	X	X				
514 Makea	X	X	X			
515 Bardoze	X	X	X			
601 Aldude	X	X	X			
602 Bidarra	X	X	X			
603 Baigorri	X	X	X			
604 Arnegi	X	X	X			
605 Uh.Garazi	X	X	X			
606 Irisarri	X	X	X			
607 Isturitze	X	X				
608 Arruta-Sa.	X	X				
609 Armendaritze	X	X				
610 Ezterenzubi	X	X				
611 Gamarte	X	X				
612 Landibarre		X	X	X	X	X
613 Behorlegi	X	X				
614 Arboti	X	X				
615 Garruze		X	X	X	X	X
616 Jutsi	X	X				
617 Larzabale	X	X	X			
618 Bastida	X	X	X			
701 Phagola	X	X				
702 Domintxine	X	X	X			
703 Urdiñarbe	X	X				
704 Altzürükü	X	X	X			
705 Larrañe	X	X				
706 Altzai	X	X				
707 Sohüta	X	X				
708 Muntori	X	X				
709 Santa Grazi	X	X				
710 Ürrüxtoi	X	X	X			
711 Barkoxe	X	X	X			
712 Eskiula	X	X	X			

### **III.4. Onomastika batzordea**



## ONOMASTIKA BATZORDEA

Onomastika lan esparruan oso argi igarri da euskararen egoera berriak sortutako eskaera. Batzorde honek ohikoak izan dituen lanez gain, deitura eta ponte-izenen idazkera eta leku-izenei buruz, iaz hasitako exonomastika lanari gogor ekin dio, gizarte beharrei erantzuteko asmoz.

Jarraian aipatuko diren ekintzak nabarietak badira ere, badago etengabe bai egoitzan bertan eta bai ordezkartzetan, telefonoz nahiz zuzenean egiten diren lanak, besteak beste, ponte-izen eta deitura ziurtagiriak, hiritarrek, udalek, euskara zerbitzuek, elkarteek edo auzitegiek eskatuta.

Honetaz gain, hileroko batzorde bilkuretan sailka ikusi dira gaiak: leku-izenak, euskal deituren idazkerak, ponte-izenak eta exonomastikaren eremukoak.

Bilkurak hilabetero egin dira, abuztuko etenaldia alde batera utzita. Arrazoa hau da: kasu askotan erantzun bizkorra behar da, eta gehiegi atzeratzeak kalteak sortuko lituzkeelako, batzordea lanez itotzeaz gain. Honetaz landa uztailaren hasieran Miarritzen egun bitan V. Onomastika Jardunaldiak burutu dira, Exonomastika gaiak lantzeko.

Egindako ohiko lana bi alorretan banatu behar da. Batetik, pertsona mailako onomastika, hau da, deitura eta izen agiriak; eta, bestetik, toponomastikakoa, batez ere, herriek egindako eskaerak (kale-izenak euskaratzea edo herri-izena euskaraz jartzeko nahitaezko txostena egitea), baina beste herri-aginteez egindakoak ere erantzun behar direnak, Foru Diputazioek eta IVAP/HAEEEK bereziki. Udal-izenak euskaraz ofizialtzeko eskaerak aurreko urteetan baino ugariagoak izan dira, iaz euskal izenak ofizialtzeko eskaerak bidali baitziren. Zenbait kasutan euskal izena erabili arren ez zuten beharrezko prozedura bete eta besteetan erdal izena baino ez zuten jartzen.

Ohiko lan honi Exonomastika lantaldeak egindakoa gehitu behar zaio. Honen bilerak onomastika bileren ostean egin izan dira. Guztira sei bilera egin dira, uztaileko jardunaldi berezietz gain, hauen xedea urriaren Leioako Biltzarrean aurkeztu diren gaiak lantzea izan delarik. Talde honek dagoeneko munduko estatu-izenak, leku-izen historikoen zerrenda luze bat, tradizioko ponte-izen historiko erabilienak, Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomo eta Frantziako Errepublikako departamendu eta herrialdeen izenak, astronomia-izenak eta erabili beharreko transliterazio taulak zehaztu ditu, hots, batez ere alfabeto ez latinoaren dutenenak gurean idazkeran nola eman behar diren jakiteko.

Aparteko aipamena merezi du *Euskal Deituren Izendegiak*. Batzordea hasia da izendegia hobesteko lanean. Hala ere, lanaren neurriagatik beragatik ezin izan da bukatu.

Hona hemen batzordeak landu dituen alorrak:

### Leku-izenak

Batzordearen sorreratik hain garrantzitsua izan den atal honetan hiru motako lanak egin dira:

— Izen xumeak: hots, auzo txiki, kale, baserri, plaza eta udalek antzeko izenez egin dituzten galderak. Udal hauetatik iritsi dira eskabideak: Gipuzkoako Getaria, Gasteiz, Zigoitia, Aramaio, Durango, Segura, Barañain, Uharte, Araia, Urkabustaiz eta Uztaritze.

— Honako herriontzat prestatu dira udal-izen irizpenak: Agurain, Fruiz, Urdaitz, Etxebarri-Donetztebe, Ubide, Urkabustaiz, Gautegiz-Arteaga, Zigoitia, Olaberria, Biarritz/Miarritze eta Donemiliaga.

— Beste erakunde batzuetatik etorritako eskaerak: Osakidetzak galdera solte batzuez gain Osasun Zentruen izenei buruzkoa ere egin du, IVAP-HAEEK eskualde eta eskola bilguneen izenez, eta HPINek herri-izenez, nabarmenak bakarrik aipatzearren.

Honetaz gain bestelako galderak ere erantzun dira, esate baterako Zarauzko Udalak eskatuta batzordeak *Bizkaiko Itsasoa* edo *Bizkaiko Golkoa* izena hobetsi zuen gaztelaniaz *Mar Cantábrico* deritzona izendatzeko. Azkenik, euskal izenak berreskuratzeko ahaleginekin segituz okerreko izenei buruzko irizpideak ematen saiatu da, bereziki komunikabideetan ikusitako huts nabarmenenak zuzendu nahian.

## **Deiturak**

*Euskal Deituren Izendegia* egiteko beka ez zen berritzailea izan zoritxarrez. Lan honen egitasmoa erdal grafiaz heldu zaizkigun euskal deiturak gure hizkuntzaren arauetara egokitzea da. Gauza bi azpimarratu behar da: batetik, arauetara egokitzea ez dela euskara batuan idaztea, Euskaltzaindiaren Bergarako Biltzarrean (1978) ongi erabaki zen bezala. Bestalde Euskaltzaindiak argi eta garbi utzi baitzuen bere adierazpen batean batzordearen lana ez dela erdal deiturak itzultzea edo euskal idazkeran ematea, nahiz eta asko geografikoki hemengo eremukoak izan.

Izendegia burutu bitartean, Euskaltzaindiaren bulegoetara ziurtagiri eskaerak etengabe heldu dira. Gehienak errazak direlako besterik gabe ematen badira ere, arazodunak ere suertatu dira, ugarien afrikari/frikarien alorrean. Kasu horietan batzordera pasatu dira erabakia har zezan. Horrelakoetan banan banako azterketa egin eta gero irizpena eman da.

## **Ponte-izenak**

Ponte edo izen ttipien alorrak gehienetan arazo larriak sortu ez arren, egon da iritziak argitu beharra.

Izen hipokoristikoek, hau da, lagun edo familia artekoek sortu dute arazorik gehien. Kanpoko izenak euskaraz nola eman, eta izen berriak finkatzea izan da batzordearen beste eginkizun bat.

## **Exonomastika**

Gorago aipatu bezala lantalde honek bere fruitu oparoak eman ditu Miarritzen egin diren V. Onomastika Jardunaldietan, eta gero Leioan egin den XIII. Biltzarrean aurkeztu ditu.

Alor honetan orain arte egindako lana, labur bilduz, honako hau izan da:

- Gehien erabiltzen diren tradizioko ponte-izenen zerrenda.
- Munduko nazio, hiriburu eta biztanleen izen eta gentilizioak.



- Europako herrialde historikoen zerrenda.
- Munduko herrialde eta etnien izen-zerrenda.
- Munduko akzidente geografiko nagusienena.
- Espainiako herrialde eta probintzien, eta Frantziako eskualde eta departamendu-izenak.
- Transliterazio-etaulak.



### **III.5. Literatura batzordea**



### III.5.1. HERRI-LITERATURA AZPIBATZORDEA

Azpibatzerde honek hamaika bilera egin ditu 1994an, urtean zehar ekintza hauek burutu dituelarik:

#### III. Herri-Literatura Jardunaldiak


Bileretako ia denbora osoa gai honen inguruan eman da. Jardunaldietan parte hartuko zuten hizlari eta txostengileekin azken puntuak zehazten saiatu dira batzordeki-deak, hots, azken batean programa erabakitzen.

Horrela, bada, abenduaren 29an eta 30ean egin dira III. Herri-Literatura Jardunaldiak, Oartzunen, Manuel Lekuonaren mendeurrena ospatuz. Jardunaldi hauek Oartzungo Manuel Lekuona Bibliotekan egin dira, eta hau izan da programa:

#### Abenduak 29, arratsaldean

— Manuel Lekuonaren mendeurrena amaitzeko, III. Literatura Jardunaldien hasierako sarrera-hitzak: Jon Iñarra, Oartzungo alkateak eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburuak.

— *Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan*: Juan Mari Lekuona.



— *La historia del cantar de Perucho desde Garibay hasta Iztueta*: Antonio Cid, Menéndez Pidal Institutukoa, Madril.

— *Ama hizkuntza biziko dea? (ohar batzu)*: Emile Larre.

— *Artazuriketak eta kontagintza*: Patri Urkizu.

— *Au confluent du style oral et du style écrit: un decouvreur: Marcel Jousse; sa vie, son oeuvre, son actualité*: Yves Beaupérin, Pariseko Institut de Pédagogie rythmo-mimismologique-ko zuzendaria eta Marcel Jousse elkarteko kidea.

### **Abenduak 30, egun osoan**

— *Testu ihartuak euskal tradizioan*: Jose M. Satrustegi.

— *Les traditions de style oral: naissance, mémorisation et transmission d'après les travaux anthropologiques de Marcel Jousse*: Yves Beaupérin.

— *Ipuin eta esaunda bilketa*: Manu Etxebarria.

— *Tartaroak*: Xabier Kaltzakorta.

— *Literatura oral aragonesa*: Rafael Andolz, aho-literatura ikerlea, Zaragoza.

— *Aho-literaturatik ahozkotasunera*: Jon Kortazar.

— *Le problème de la transmission orale des chants narratifs dans le domaine français à travers l'oeuvre de P. Coirault et dans la tradition de la Bretagne Celtique*: Donatien Laurent, Brest-eko Unibertsitateko Centre de Recherche Bretonne et Celtique-ren zuzendaria.

— *Egungo bertsolaritzaren ezaugarriak*: Andoni Egaña.

— *On Manuel Lekuona: haustura eragotzi zuen gizona*: Joxe Ramon Zubimendi.

— *Pensamiento intuitivo y discursivo en la literatura oral*: Antonio Zavala.

— *Jardunaldien ondorioak*. Herri-Literatura azpibatzenordeak Jardunaldi hauei buruzko gogoetak jasotzen dituen adierazpena prestatu eta irakurri du jendaurrean, eta ondoren Jardunaldietako partaideen artean banatu.

— Azkenik, Jean Haritschelhar, Euskaltzainburuak eta Jon Iñarra, Alkateak eman diete amaiera Jardunaldi hauei.

Hitzaldiak eta txostenak, izenburuak dauden hizkuntzan eman dira, eta *Euskera* agerkarian argitaratuko dira.

Guztira, laurogei lagunek parte hartu dute Jardunaldi hauetan: Euskaltzainditik hogeita lauk, Oiartzungo Udaletxeko seik eta izena emandako gainerako berrogeita hamarrek.

### **Euskal metrikari buruzko ponentziak**

Aurrikusitakoaren arabera, ekainerako prestatuak zeuden Literatura-Ikerketa azpibatzenordearekin batera buruturiko hiru ponentzia hauek:

— *Bertso-lerroa*: Patxi Altuna.

— *Euskal estrofagintzaz*: Juan Mari Lekuona.

— *Errimaz*: Pello Esnal.

Azpibatzerde bakoitzak bere aldetik prestatu ondoren, uztailean Herri-Literatura eta Literatura-Ikerketa azpibatzerdeek elkarrekin egindako bileran eztabaidatu eta orraztu dira ponentzia horiek. Txosten horiek uztailean egin diren III. Literatura Jardunaldietan eta urrian Leioan egin den XIII. Biltzarrean aurkeztu eta banatu dira.

## **Herri-literaturaren inguruko ekintzak**

### **Bertsolari-eguna, 1994**

Euskal Herriko Bertsolari Elkartek eratuta, urteoro bezala, 1994an ere, urtarrilean izan da bertsolari-eguna. Eta, besteak beste, liburu bat argitara eman du Bertsolari Elkartek, *Bertsolari eguna 1994*, eta hitzaldi batzuk antolatu ditu. Azpibatzerde honetako kidea den Juan Mari Lekuonak idatzia da liburuaren aurkezpena, eta Pello Esnal eta Antonio Zavala izan dira bi hitzaldiren emaile: lehenengoa Donostiako Loiolan, urtarrilean, Joxe Aierberekin batera, *Bertso-paperak etorkizun bila* gai zuela, eta bigarrena Hondarribian, urtarrilean hau ere, *Xalbador Zapirain «Ataño»ren bizitza eta lanak* mintzagai.

### **Udarregiren heriotzearen mendeurrena**

Udarregi bertsolariaren (Aia, 1829 - Usurbil, 1895) heriotzearen mendeurrena dela eta, antolaketa-batzorde bat eratu da Usurbilgo herrian. Batzorde honek idatziz Euskaltzaindiari laguntza eskatuta, honek, Juan Mari Lekuona, Antonio Zavala eta Pello Esnal izendatu ditu ordezkari, eta antolatzaileek deitutako bilera guztietan parte hartu dute 1994an.

### **Otaño bertsolaria**

Zenbait ospakizun, hitzaldi, mahainguru izan dira Zizurkilen, Otaño bertsolaria gai hartuta. Azpibatzerde honen buru den Antonio Zavala izan da *Pedro Mari Otaño eta bere inguruaren* egilea, eta ekintza horietan parte hartu du.

### **Iruñeko «IV. bertso-astea»**

Iruñeko Udalak antolatutako «IV. bertso-astea»n parte hartu dute, urrian, Juan Mari Lekuonak eta Pello Esnalek, Patxi Altunarekin batera, bertsolaritzaz izan den mahaingururuan.





### III.5.2. LITERATURA-IKERKETA AZPIBATZORDEA

Azpibatzerde honek bederatzir bilera egin du 1994an zehar. Joan den urtea berezia izan zela esan daiteke. Urtearen hasieran eta bukaeran hiztegi-gintzari ekin bazaio ere, tartean gero eta arreta eta denbora gehiago eskaini zaio Literatura Jardunaldietan eta Euskaltzandiarren Biltzarrean *Euskal Metrikaz* aurkeztu ziren ponentzien prestaketari. Euskal metrika eta olerki-gintzaren zenbait puntu argitzeko aportazio interesgarria izan da hori guztia, zalantzarik gabe.

#### **Hiztegi-rako txostenak**

*Literatura Hiztegia* osatuko duten txosten hauek aurkeztu eta eztabaidatu ditu azpibatzerde honek bilera hauetan:

- *Olertia*: Gorka Aulestia
- *Kazeta*: Xabier Altzibar
- *Ernazimendua*: Aurelia Arkotxa
- *Komedia*: Txomin Peillen
- *Epika*: Juan Kruz Igerabide
- *Literatur teoria*: Ana Toledo
- *Estetika*: Luis M. Mujika
- *Literatur kritika*: Ana Toledo
- *Hoskidetza*: Juan Mari Lekuona
- *Iparraldeko estrofagintza*: Jean Haritschelhar
- *Pastoraletako errima*: Patri Urkizu.

#### **Termino-en esanahia argitu**

Hirugarren mailako terminu hauek aurkeztu dira, esanahia eztabaidatuz:

— *Alexandrinoa, aliterazioa, almanaka, anafora, anakrusia eta artazuriketa*: Jean Haritschelhar.

— *Asonantzia, balada, balantza, bederatzir silabakoa, eta bertso berri(ak)*: Juan Mari Lekuona.

— *Denotazioa eta konotazioa*: Jon Casenave.

— *Absurdua, agerlekua, agerraldia, aitzin-solasa, anagnorisia, antzertia, antzerki-gilea eta errejenta*, antzertiari buruzko hitzak, aztertu ditu Patri Urkizuk.

#### **Euskal Metrikako kontzeptuak argitu**

Herri-Literatura azpibatzerdearekin batera, metrikari buruzko kontzeptu nagu-

siak argitzen saiatu da azpibatzorde hau, horretarako batzordekideek egindako hiru txosten hauek eztabaidatuz:

- *Bertso-lerroa*
- *Euskal errima bertsolaritzan*
- *Euskal estrofagintza.*

Gai horiek, lehenik azpibatzorde bakoitzak bere aldetik aztertu ditu eta ondoren, elkarrekin egindako bileran tratatu.

### **III.6. Batzorde suntsikorrak**



### **III.6.1. EUSKARA BATUKO BATZORDEA**

Batzorde honek joan den urtean bederatzi bilera egin ditu. Egindako lana bi aro oso desberdinetan banatzen da: batetik, urtarrietik irailera artekoa, eta, bestetik, urritik abendura artekoa (Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarraz geroztikoa).

#### **Hitanoaz**

Aurreko urtean, 1993ko abenduan, iritzi-emaileei aditz honen testu-proposamena bidali zitzaizen *Hikako adizkiak* izeneko txostenean. Batzordeak jasotako erantzun-oharrak aztertu ditu eta horietatik zein diren kontuan hartzekoak erabaki. Ohar horien argitan testua berritu da eta euskaltzainei banatu zaie, azter dezaten. Azkenik, euskaltzainek egindako oharrak hileroko batzarrean aztertu dira, eta Euskaltzaindiak bi zatitan onartu du hikako adizkia: lehenik, aditz laguntzailearen formak, eta geroago, aditz trinkoa.

Urriaren 3tik 7ra Leioan egin den Biltzarrean parte hartzeko matrikulatu direnei, bestelako materialarekin batera, Euskaltzaindiak prestatutako hikako adizkiaren testua banatu zaie. Geroago ikusiko denez, Biltzarrean jasotako oharrak kontuan izanik, Euskaltzaindiak azaroko bilkuran eman du adizkera honi buruzko azken erabakia, kasuan kasuko zerrendak onartuz.

#### ***Benetako, Ohiko, Bat-batean, Behinik behin eta Batik bat.***

Aurreko puntuaren ildotik, forma hauei buruzko galdera egin die batzordeak iritzi-emaileei, eta jaso diren erantzunak aztertu ditu batzordeak. Erantzun horiek kontuan izanik, batzordeak eraberritu ditu kasuan kasuko proposamenak eta euskaltzain osoen hileroko bilkuran aurkeztu ditu, erabakia har dadin bertan.

#### **Urriko Biltzar osteko lanak**

Iritzi-emaileei ez zaie galdeketarik bidali, baina Leioan batzorde desberdinek aurkeztutako txostenei buruzko oharrak eta gutunak jaso dira geroztik eta batzorde honek ere aztertu ditu horiek.

Batzorde honek, ondoren adierazten diren hizkuntz puntu edo gai hauek tratatu ditu eta euskaltzain osoen bilkuretara eraman, ondoren Euskaltzaindiak kasuan kasuko erabakia hartu duelarik:

1. *Bat-batean, Behinik behin, Batik bat*
2. *Baitu, baikara, bainaz*
3. *Aurrealde edo aurreko alde*
4. *Hau guz(t)ia*

5. *Ene / nire, nirekin, niri*
6. *Arrain, usain, artzain*
7. Zenbakien idazkeraz
8. Zenbakien deklinabideaz (*hiru, lau*)
9. *-zio*
10. *Nornahi, nonahi, non-nahi*
11. *Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk*
12. *Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea
13. Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri
14. Adizki alokutiboak (hikako moldea)
15. Partitiboaren erabilera okerra
16. *Zu izan ezik*
17. Euskal alfabetoaren letren izenak
18. Ordinalen eta banatzaileen idazkera
19. *Benetako. Ohiko*
20. *Betiko* eta honen kideak
21. *Arabera*
22. *Iritzi*
23. *Arazi*
24. *Ba-* eta *gabe-*ren idazkera.

### **III.6.2. AHOSKERA BATZORDEA**

Batzorde hau 1993ko urrian sortu zuen Euskaltzaindiak, oraingoz batzorde suntsikor bezala, 75. Urteurrena zela eta. Ahoskera Jardunaldiak antolatu ditu eta Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean parte hartu du, zenbait txosten aurkeztuz.

Batzorde suntsikor hau urtarriletik maiatzera bitartean bost aldiz bildu da.

#### **Ahoskerari buruzko txostenak eztabaidatu**

Gai honi buruz zenbait txosten egin eta eztabaidatu dira, baina lan horren emaitzarik sakonena eta nabarmenena Miren Lourdes Oñederrak eta Pilartxo Etxeberriak prestatutakoak izan dira, *Ahoskera baturantz?* izeneko txostenaren barruan daudenak, eta gero III. Jardunaldietan irakurri direnak. Txosten horretan bildu dira batzordeak ahoskerari buruz duen ikuspegia eta iritzia.

### **XIII. Biltzarra**

Gainerako Jardunaldietako txostenen antzera, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean parte hartu dutenen eskueran izan dira Ahoskera Jardunaldietan irakurri direnak ere.

Biltzarrean bi batzordekidek hitzaldi hauek irakurri dituzte:

— *Ahoskera araupetzeaz*: Miren Lourdes Oñederra.

— *Euskal Azentu ereduen sailkapenerako*: Jose Ignacio Hualde.







### III.6.3. ADMINISTRAZIOKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNETAN EUSKALKIAK NEURTZEKO BATZORDEA

Otsailean Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaindiari Administrazioan 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunetarako euskalkiak neurtzeko irizpideak ematea eskatu dio. Hil horretan bertan Euskaltzaindiak batzorde suntsikorra sortu du eskatutako gaia aztertzeko, batzordekideak hauek direlarik: buru: Miren Azkarate; idazkari: Patxi Uribarren; kideak: Xabier Kintana, Jose Antonio Mujika, Jose Mari Larrarte eta Juan Luis Goikoetxea.

Gaiak sorrera hau izan du. Abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuak euskal administrazio publikoetan euskararen erabilpenaren normalizaziorako plangintza ezartzeko zenbait neurri arautzen ditu. Hirugarren atalak hauxe dio:

*«Aldi berean, lehenengo eta bigarren hizkuntza eskakizunei dagokienez, saio horietarako, egun bizirik dauden euskalki guztiak hartuko dira kontuan, Euskaltzaindiaren txostena jaso ondoren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak honi buruz emandako erabakiaren arabera».*

Ildo horretatik, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak txostena eskatu dio Euskaltzaindiari honako gai hau argi dezan: lehenengo eta bigarren hizkuntza-eskakizunetara aurkeztuko diren herri-langileek azterketa egiterakoan euskalkiren bat aukeratu ko balute, zer-nolako hizkuntza-arauak gorde beharko lituzketen ortografia eta morfosintaksiaren alorrean.

Batzorde honek lau bilera egin ditu, gaia aztertu eta bere proposamena prestatzeko. Batzordekideek txosten hauek prestatu dituzte:

- *Euskalkiak eta Administrazioa*: Xabier Kintana.
- *1. eta 2. hizkuntza eskakizunak: ortografia eta gramatika arauak euskalkien erabileran*: Jose Antonio Mujika.

Batzordekideek, gaiaren oinarritzko irizpideetan ados jarri ondoren, Juan Luis Goikoetxeari eman diote batzordearen izenean txostena idazteko agindua. Honek, *Euskalkien erabilera Administrazioko 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunetan* izeneko txostena aurkeztu du, eta batzordearen txosten hau apirilean euskaltzainei aurkeztu zaie.

Maiatzeko osokoen batzarrean, zenbait ohar egin ondoren, Euskaltzaindiak ontzat eman du gai honi buruzko txostena, eta Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiari bidali dio, Euskaltzaindiak, horrela, legez aitortzen eta ematen zaion aholkularitza-lana burutuaz.



## **IV. Jagon Saila**



## JAGON SAILA

Jagon Sailak bost bilera egin du 1994. urtean. Sail honen ekitaldirik sendo eta garrantzitsuena, zalantzarik gabe, egin dituen Jardunaldiak izan dira. Jardunaldi horien antolamendu akademikorako bi bilera egin dira. Horrezaz gain, euskararen erabilera eta aplikazioari buruzko zenbait adierazpen ere prestatu ditu, eta Euskaltzaindiaren hizkuntz arau guztien argitalpena prestatzeko egitasmoa burutu du.

### Sail honen jardunaldien beharraz

Akademiaren Jagon Sailak aspaldidanik zuen kezka eraginda, eta 75. Urteurrenaren barruko ekitaldietan, bere lehen Jardunaldiei ekin die, euskararen kalitatea aztertzeko asmoz, *hizkuntzaren erabilera zuzenaz*, hain zuzen ere.

Euskarak hizkuntza ofizialaren estatusa lortu duenetik, ahalegin handiak egin dira estandarizazioa eta normalizazioa lortzeko bidean, gizartearen eremu zabaletan ezartzeko, irakaskuntza-hizkuntza bihurtzeko, eta abar. Baina honekin batera, prozesu honetan nolako euskara erabiltzen den aztertzeko garaia dela uste izan du Euskaltzaindiak. Hala-beharrez, bat-batean sortu behar izan dira Administrazioan erabili beharreko hiztegi eta



Bilbo, 1994.2.25. I. Jagon Jardunaldiak. Ezkerretik eskuinera: Patxi Uribarren, Andrés Urrutia, Mikel Zalbide, José Luis Lizundia, Marian Lizarralde.

esamolde berriak. Irakaskuntzaren alorrean, guztiz beharrezkoa den eredu elebiduna zabaltzeaz gain, ez du garrantzi txikiagoa haurtzaroan jasotzen den hizkuntza zuzenaren finkapenak, eta horregatik bere egokitasunari arreta berezia eskaintzea nahitaezkoa da. Beste aldetik, Unibertsitateko irakaskuntzak badu euskara hizkuntza zientifikoa bihurtzen berebiziko erronka. Baina zalantzarik gabe, hizkuntzaren estandarizazio-prozesuan eragin handiena dutenak komunikabideak (idatziak eta ikus-entzutezkoak) dira, eta hori -beste arrazoi batzuen artean- gizarte mailan duten erakarren indartsuagatik da eta mezuak mugaz bi aldeetarara zabaltzen dituztelako.

Jardunaldien amaiera-ekitaldian, Jagon Sailak *I. Jagon Jardunaldien ondorioak* izeneko adierazpena prestatu eta irakurri du Jardunaldietan parte hartu dutenen aurrean.

### **Beste esperientziak**

Euskaltzaindiak, Sail honen bidez, Espainian hizkuntza propioa duten autonomi elkarteek hizkuntzaren egokitasuna lortzeko egin dituzten lanak eta gaur egun egiten ari direnak ezagutu nahi izan ditu. Horretarako, Jagon Sailak begiz jo du Hizkuntza Politikarako arduradun guztiak lehenengo aldiz biltzea. Horrela, I. Jagon Jardunaldiei hasiera emateko ekitaldian parte hartu dute erakunde horietako ordezkariak.

### **Adierazpenak**

Goian aipatutako Jardunaldietan egindako adierazpenaz gain, honako hauek egin dira:

— *Nafarroako Euskararen Lege Foralari buruzko ebazpen parlamentarioaz eta Euskararen Erabilerarako Dekretu foralaz Euskaltzaindiaren adierazpena* izeneko idazkia zabaldu du Euskaltzaindiak uztailaren 4an.

Bost puntuko dokumentu honetan, lehendabizi Euskararen Lege Forala garatzeko izan den aukera huts egin dela esaten da, eta irakaskuntzan, administrazioan eta komunikabideetan euskararen erabilera lehen bezain murriztua gelditzen dela deitoratzen da. Euskaltzaindiaren ustez, ez dira lortu aipatutako legearen erreformak erabilera juridikoan sortuko lituzkeen hobekuntzak. Halaber, Euskararen Erabilerarako 70/94 Dekretu Foralaren aurrean, Akademiak bere adostasuna erakutsi du, Nafarroako Administrazioan euskararen sustapenerako ekarriko dituen aurrerapausoak kontuan harturik.

Azkenean, euskarari buruz egin diren sasi-adierazpen batzuegatik eta oraindik jasaten duen jarrera diskriminatzaileengatik bere kezka eta haserrea erakutsi du Euskaltzaindiak eta berriro gogorarazi du euskararen etorkizuna, alderdikerien gainetik, denon ardura dela.

— Frantses Gobernuari, Iparraldean euskararen ofizialtasuna lortzeko eskaria.

Europako Parlamentuak hizkuntzen eskubideei buruz egindako gomendioari jarraituz, eta Hegoaldean euskarak lortu duen ofizialtasuna bere normalizaziorako tresna egokia bilakatu dela ikusirik, Euskal Herriko Komunitate Autonomoan eta Nafarroan duen ofizialkidetasun berbera Iparraldeko hiru herrialdeetan izan dezala eskatu dio Euskaltzaindiak Frantses Gobernuari. Bide batez, Hegoaldean Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egin duten bezala, Frantses Gobernuak Euskaltzaindiari ezagutza ofiziala aitortzea eskatu du.

— Espainieraren Erret Akademiak Espainiako Gobernuburuari egindako gutuna dela eta Euskaltzaindiaren adierazpena.

Hizkuntzaren eskubideak zaintzea bere eginkizunen artean egonik, aipatutako gutunean ez dela aintzakotzat hartzen indarrean dagoen legeria aldarrikatzen da. Hizkuntza

propioa duten Autonomi Elkarteetan gaztelania bultzateko neurriak eskatzen direnean, ahaztu egiten da euskarak mendeetan jasan duen zokoratzea eta baztertzea, eta oraindik ez duela inondik ere erdararen maila lortu. «Euskalduna da maiz aski arrotza bere lurraldean, dagozkion hizkuntz eskubideez ezin baliatuz», dio adierazpenak. Euskaltzaindiak gogoratzen du Estatuaren bizkar dagoela gaztelaniaz gain beste hizkuntzak suspertzeko erantzunkizuna. Bukatzeko, berriro ere beste hizkuntz akademiekin lan egiteko prest dagoela adierazi du euskal Akademiak.

### **HABE patronatoa**

Jagon sailburuak, HABE patronatoko kidea denez gero, erakunde honek urtean zehar egindako bileretan parte hartu du.

### **Euskaltzaindiaren Arauak**

Euskaltzaindiak hizkuntzari buruz hartzen dituen Erabakiak eta ematen dituen era guztietako Arauak euskal gizartean ez dira behar bezala ezagunak. Gertakari horren aurrean, erabaki-proposamen hau onartu du Sail honek: Euskaltzaindiak bere sorreratik hartu dituen hizkuntz arauak -eta gaur egun indarrean daudenak- argitalpen bakar batean eskaintzeko plana prestatzea. Hori egiteko agindua sailkide bati eman zaio, eta urtearen amaieran onikusia eman dio Jagon Sailak Mikel Zalbide sailkideak aurkezturiko txostenari, *Euskaltzaindiaren gomendio-arauen zabalkundeaz* izenekoari.





## **V. 75. Urteurrena:**

**Ospakizunak, Jardunaldiak eta XIII. Biltzarra.**



## **Ezaugarri nagusiak**

Euskaltzaindiaren sorreraren 75. Urteurrenaren ospakizuna Arantzazu/Oñatin hasi bazen ere -1993ko irailaren 30ean eta urriaren 1ean- 1994an gauzatu da horretarako ospakizun eta jardunaldi ugari eta Biltzar handia antolatuz. Ospakizunok orain 25 urte gertatutakoaren antzera, bide jakin bat eraman dute: ospakizunak herrialde guztietan antolatu dira, orduan bezalaxe, eta hauek jardunaldiekin txertatu dira, ekintzak bateratuz.

Euskaltzaindia, Euskal Herri osoaren erakundea delako kontzientziarekin, eta Euskal Herriko hizkuntzaren lehen Erakundea delako, Euskal Herri osoan zehar egin ditu ospakizunak eta jardunaldiak. Oñatiko Unibertsitate zaharrean hasi, eta, egungo Euskal Herriko Unibertsitatean buka. Bilboko egoitzaz gain Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazio jauregietatik igaro da Akademia, Iparraldea, hots, Miarritzeko Udala ahortzi gabe. Ospakizun horien barruan gonbidatu zituen otsailean, alde batetik, Estatu-ko beste hizkuntzen hiru akademietako ordezkariak eta hizkuntzaren normalizazioko administrazioen agintari nagusiak, Jagon Jardunaldien barnean.

Ospakizun hauetan, Euskaltzaindiak oroitarazi eta omendu ditu hasierako herrialde bakoitzeko euskaltzain oso eta urgazle aipagarrienak.

Euskaltzaindia osotu zen toki eta ordu berean, Gipuzkoako Diputazioan, 1994ko irailaren 21ean, ospakizuna egin nahi izan da. Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean ospatu da XIII. Biltzarra.

## **75. Urteurreneko batzordea**

Ospakizunak, jardunaldiak eta XIII. Biltzarra antolatzeko, Euskaltzaindiak 75. Urteurreneko batzorde suntsikorra izendatu du bi azpibatzaorderekin: bata, azpibatzaorde akademikoa eta bestea antolakizun-azpibatzaordea. Azpibatzaorde biok, elkarrekin eta barkarka, zortzi bilera egin dute urtean zehar ekintza horien ildo nagusiak bideratzeko. 75. Urteurreneko batzordearen planak gauzatzeko, Euskaltzaindiaren zerbitzuetako langileak aritu dira antolakizunen xehetasunak, kudeaketa eta koordinazioa eratzeko (kanpo-harremanak eta tokian tokiko herri-agintariekikoak, ostatu-zerbitzuetarako gestioak, prentsa, inprimaketak, informazioa, propaganda, tresneria, izen-ematea, e.a.). Ospakizunak, jardunaldiak eta Biltzarra behar bezala gauzatzeko, izan diren baliabide mugatuak kontuan izanik, lan osagarri handia eginarazi dio honek guztiak Euskaltzaindiari, bere ohiko eta egunoroko zereginak baztertu gabe egin baitira lan horiek.



## **V.1. Ospakizunak**



## AKADEMIEN ARTEKO ANAITASUNEZKO EKITALDIA

Euskaltzaindiak, bere Bilboko egoitzan egin den anaitasunezko ekitaldira deitu ditu gainerako hizkuntz Akademiak. Mahaian eseri dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua; Fernando Lázaro Carreter, Real Academia Española-ren zuzendaria; Marino Dónega, Real Academia Galega-ren idazkaria; Joaquim Rafel i Fontanals, Institut d'Estudis Catalans-eko idazkaria, eta E. Knörr, Euskaltzaindiaren idazkaria. Euskaltzain oso eta urgazleez gain, aretoan aurkitzen ziren, besteak beste, Jesus Hugueta, Valentziako Generalitateko Hizkuntz Politikarako zuzendaria; Aina Moll, Balearretako Hizkuntz Normalterako kanpainaren arduraduna, eta Glynn Williams, North Wales Unibertsitateko irakaslea.

J. Haritschelhar mintzatu da lehendabizi. Ongi etorri beroa egin ondoren, Euskaltzaindiaren 75. Urteurrena eta Arantzazuko Biltzarraren 25.a ekarri ditu gogora, bai eta Iruñean, Nafarroako Diputazioaren jauregian, 1968ko abenduaren 4an egin zen ekitaldia, lau Akademiaren eta Valentziako Lo Rat Penat eta Balearretako Obra Cultural-en ordezkariekin. Ondoren, Euskaltzaindiak beste Akademiekin izan dituen eta orain ere dituen lotura estuak aipatu ditu. Menéndez Pidal, Tovar, Caro Baroja, Azkue, Urquijo, Mitxelena, Piñeiro, Corominas eta Francesc de B. Moll gogoratu ditu, jakite alorreko eta adiskidetasuneko lotura hauen adibide. Azken 25 urte hauetan Espainiako legerian gertatu den eta Frantziakoan gerta litezkeen aldaketek hitz egin ondoren, Euskaltzaindiaren lana azaldu du. Gero, euskaldunak izan beharko lukeen hizkuntzen ezagutza oroitarazi du, eta Salvador Espriuren neurtitzez bukatu:

*«Diversos són els homes i diverses les parles,  
i han convingut molt noms a un sol amor».*

Ondoren, Fernando Lázaro Carreterrek hitz egin du. Euskaltzaindiaren sorreran Azkuek Madrileran egin zuen bidaia, Espainieraren Akademiaren arautegia eta ibilpidea ezagutzeko asmoz, aipatu du. Callejo ministroaren eraginez 1927an egindako izendapenak, beste Akademiaren ordezkariak, adierazi ditu, haien artean Azkue eta Urquijo, biok kide oso. Azken hitzetan zorionak eman dizkio Euskaltzaindiari 75. urteurrenari.

Hurrena, Marino Dónega mintzatu da labor, Galizieraren Akademiaren historiaz, 1903an Kubako galegista batzuen eraginez sortu zenetik.

Azkenik, Joaquim Rafel i Fontanals-ek, Institut d'Estudis Catalans-ek dituen egitura eta eginkizunak azaldu ditu, bere sail guztiekin.

## OSPAKIZUN IBILTARIAK

### NAFARROAKO DIPUTAZIO JAUREGIAN

Iruñean, Nafarroako Diputazioaren jauregian, martxoaren 25ean, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarra, Akademiaren 75. Urtemugaren ospakizunen barnean, ondo-

ren aipatzen diren kideak bertan zirela. Mahaian, J. Haritschelhar euskaltzainburua, Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako gobernuburua, E. Knörr, J.A. Arana, J.M. Rodriguez Ochoa, Nafarroako Hizkuntz Politikarako zuzendari nagusia, J.M. Satrustegi eta Iñaki Camino hizlaria. Aretoa beterik zegoen eta bertan ziren, besteak beste, Mirentxu Amigorena, Nafarroako Hizkuntz Politikarako zuzendariordea; Juan José Ekisoain, Nafarroako Hezkuntza saileko Euskara Zerbitzuaren arduraduna, eta Tomas Urzainki, Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako buruordea.

Alli jaunak egin ditu hasierako hitzak. Euskaltzaindia Diputazioaren jauregian behin baino gehiagotan izan dela oroitarazi ondoren, Akademiaren lana goraiatu du, euskara trebatzeko eta gaurkotzeko bere ahaleginean. Arturo Campión historiagilea eta euskaltzalea omentzea guztiz egokia dela esan du, eta *Blancos y negros* eleberriak zer pentsa eman behar duela, gizartearen hausturak gaingaitzeko.

J. Haritschelharrek, euskaraz eta erdaraz, Euskaltzaindiaren eskerrona agertu dio Nafarroako gobernuburuari. Aurtengo eginkizunez labor mintzatu eta gero, hizkuntzak bizi duen ofizialkidetasun maila aipatu du esperantzatsu.

J.M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak, Campiónen izena eta omena noraino zapuztu ziren adieraziz hasi du «Arturo Campiónen itzala» deritzan bere mintzaldia. Haren ondareak nozitu duen egoera tamalgarria azaldu du, eta euskaltzale eta euskaltzainaren bere bizitzaren zertzelada nagusiak gogora ekarri, besteak beste, Asociación Eúskara de Navarra eta Nafarroako Euskararen Adiskideak elkartetan izan zuen lekua.

J.A. Arana Martijak, «Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bidelaguna Nafarroan zehar» titulupean, printzeak Nafarroan egindako hiru bidaien berri dakarren dokumentuaz, orain arte ezezagunaz, hitz egin du. Iñaki Camino irakasleak, «Bruno Etxenike eta Aezkoako dialektologi lekukotasuna» izeneko hitzaldian, baztandarrak egin eta eragindako lanak aipatu ditu.

## ARABAKO DIPUTAZIO JAUREGIAN

Gasteizen, Arabako Diputazioaren jauregian, apirilaren 22an, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarra, Akademiaren 75. Urtemugako ospakizunen barnean. Batzar Nagusien aretoan ziren, gainera, agintari hauek: Juan Pastor, Batzar Nagusien burua; Alberto Ansola, diputatu nagusia; Roberto San Ildefonso, diputatu nagusiordea; M. Teresa Rodriguez Barahona, Lehendakaritza saileko foru diputatua, eta J. Carlos Asín, Plangintza saileko foru diputatua. M. Karmen Garmendia, Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiaren izenean, Roman Berriozabal etorri da. Eneko Oregi, Herri Arduraltzaren Euskal Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren burua ere aretoan izan da.

Juan Pastorrek egin ditu hasierako hitzak. 500 urte baino gehiago dituzten eta euskara jagon eta jagoten duten Batzar Nagusientzat ohore dela Euskaltzaindia bilera-areto hartan izatea, esan du.

Alberto Ansola mintzatu da hurrena, euskaraz. Euskal Herriaren erakundeen artean Euskaltzaindiak toki berezia duela esan du. Arabako lehenbiziko euskaltzainak oroitaraztea egoki dela aditzera eman du eta probintziaren euskaltasuna gerora ere gordezke guztion ahaleginen beharra dagoela esan, arabarrek euskara jakin eta erabil dezaten.

J. Haritschelharrek, euskaraz eta gaztelaniaz, Euskaltzaindiaren eskerrona agertu dio Arabako Diputazioari. Ospakizun urte hau lan urtea izango dela esan du eta egindakoa eta eginkizuna laburbildu.

Patxi Altunak, Erraimun Olabide Arabako lehen euskaltzain osoaren (1865-1942) bizitza eta lanak azaldu ditu, orobat euskaraz eta gaztelaniaz, bere hitzaldian, orain arte ezezagunak ziren agiri eta berri askorekin.




E. Knörrek, halaber bi hizkuntzetan, Odon Apraiz gasteiztarra (1896-1984) eta Federiko Belaustegigoitia laudiarra (1865-1947), hasierako urgazle arabarrak, goraiatu ditu, merezimenduekin. Apraizen ikerlanak azaldu ditu labur eta Belaustegigoitiak euskararekiko zuen jarrera praktikoa eta Euskaltzaindia politikatik at edukitzeko iritzi sendoa nabarmendu.

Manuel M. Ruiz Urrestarazuk, Luis Gonzalez de Etxabarri, «Aizkibel'dar Bingen» (1893-1971) idazlearen bizitza eta lanen berri eman du, aurreko hizlariek bezala euskaraz eta gaztelaniaz.

## MIARRITZEKO UDALETXEAN

Ekainaren 30ean, Didier Borotra Miarritzeko auzapez jaunak eta Udal honetako gainontzeko zinegotziek Euskaltzaindiari harrera ofiziala eskaini diote. Auzapezaren ongi etorri hitzaldiaren ondoren, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak aipatu ditu Hizkuntza Akademia honen lanak eta helburuak bere sorreratik, duela 75 urte. Bestalde, euskarari Iparraldeko hiru probintzietan zor zaion aitormen ofizialaz aritu da eta gogoratu du Frantziako Gobernuari horren ildotik Euskaltzaindiak aspaldi egindako eskaria, hots, gure hizkuntzak Euskadiko Autonomi Elkartean lortutako gaztelaniarekiko ofizialkide-tasuna eta era berean Euskaltzaindiaren onarpena.



*Miarritze, 1994.7.1. V. Onomastika Jardunaldiak.*

Ekintza honetan, Miarritzeko auzapez eta zinegotzietz gain, parte hartu dute, besteak beste, Max Brisson Departamentu kontseilariak, Urruña, Donibane Lohizune eta Sarako auzapezek eta Institut Culturel Basque elkarteko lehendakari jaunak; Hegoaldetik, M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak.

## GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAN

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1994ko irailaren 21ean, arratsaldeko bostetan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarra, Akademia eratu zeneko 75. Urtemugakari. Mahaian, J. Haritschelhar euskaltzainburuaren ondoan, jaun-andere hauek jarri dira: Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia; Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia; Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusia; M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Jose Antonio Ardanza lehendakariaren izenean, eta Jose Maria Rodriguez Ochoa, Nafar Gobernuako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, Juan Cruz Alli gobernuburuaren ordezkari. Aretoan, euskaltzain oso eta urgazleez gainera, kultura, politika eta gizarte alorretako pertsona asko ziren, besteak beste, Jose Maria Setien, Donostiako apezpiku jauna; Gregorio Monreal, Eusko Ikaskuntzaren burua; Jon Esnal, Gipuzkoako Batzar Nagusien burua; M. Jesus Aranburu eta Tomas Uribetxebarria, Gipuzkoako eta Bizkaiko kultura foru diputatuak. Bereziki gonbidatutako euskal komunikabideen ordezkariak ere bertaratu dira.

Jean Haritschelhar izan da lehen hizlaria. Hasi aintzin, jaso diren goresmenezko zenbait telegramaren berri eman du: Juan Carlos Erregerena; Juan Ignacio Uria, Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkarteko buruarena eta Ander Manterola, Labayru elkartearen zuzendariarena, besteak beste. Bere hitzaldian, Haritschelhar jaunak, Akademia eratu zeneko 75. Urtemugan, toki, egun eta ordu berean, bildu dela esan du. Erakundearen eskerrona agertu du gero Herri Aginteenganako, aldioro Euskaltzaindiarengana erakusten duten estimu eta atxikimenduagatik. Euskaltzaindiaren iragana, oraina eta geroa izan ditu hizpide ondoren. Sorreran bertan kazetalaritza, zuen garrantziagatik, aintzat hartua izan zela gogoratu du eta Euskaltzaindia orduko uste hartatik ez dela aldendu. Euskara batuari buruz orain arte egindako bide luzea aipatu ondoren, Leioako Biltzarra, urtemuga lantsu honen amaiera oparoa izango dela adierazi du.



Donostia, 1994.9.21. Ezkerretik ezkuinera: Jose M. Rodriguez Ochoa (Nafarroako Hizkuntza Politikarako idazkaria), Alberto Ansola (Arabako diputatu nagusia), Jean Haritschelhar (euskaltzainburua), Eli Galdos (Gipuzkoako diputatu nagusia), Jose Alberto Pradera, (Bizkaiko diputatu nagusia), M. Karmen Garmendia (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkaria).

Ondoren, Mari Karmen Garmendiak, Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren gutuna irakurri du. Estatu Batuetan delako ezin etorria adierazteaz gainera, Ameriketako euskaldunen lana oroitarazi du, Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia, Garate eta Bilbao aipa-


tuz, besteak beste, bai eta adierazi zenbait egitasmo, Autonomi Estatutua eta Eusko Jaurlaritzaren bera, han egosi zirela. Akademiak agintarien babesa duela esanez bukatu du bere gutuna.

Jose Maria Rodriguez Ochoa mintzatu da hurren. Nafarroako Diputazioa edo Gobernua Euskaltzaindiaren laguntzaile izan dela esan du eta lan ugaria opa dio hizkuntza erakunde honi.

Alberto Ansolak Arabaren nortasunean euskarak duen garrantzia aditzera eman du, batez ere, bere mintzaldian. Jose Alberto Praderak Euskaltzaindiak Euskal Herri osorako sortzetik beretik izan zituen asmo eta helburua aipatu ditu, bai eta Bizkaiak euskarari egin dion ekarpen aberatsa. Azkenik, Eli Galdosek euskaldun guztien Euskaltzaindiarekiko aitortpena azaldu du.

## ESPAINIAKO ERREGE-ERREGINARI BISITA

Irailaren 19an Euskaltzaindia, bere 75. Mendeurrenaren hariaz, Espainiako Errege-Erreginekin Madrileko La Zarzuela jauregian bildu da. Akademiaren ordezkariak honako euskaltzain hauek izan dira: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, E. Knörr, P. Altuna, M. Azkarate, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, J.M. Satrustegi eta L. Villasante eta J.L. Lizundia, P. Sancristóval eta J.J. Zearreta euskaltzain urgazleak. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak jarraian hitzaldia irakurri ondoren, Euskaltzaindiaren argitalpen batzuk eskaini dizkie.



*Madril, 1994.9.19. Ezkerretik eskuinera: J.M. Lekuona, L. Villasante, E. Knörr, J. San Martin, J.M. Satrustegi, M. Azkarate, J. Haritschelhar, Juan Carlos I.a Erregea, Sofia Erregina, P. Altuna, P. Salaburu, I. Sarasola, J.L. Lizundia, P. Sancristoval, J.J. Zearreta.*

Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio Erregeri 1976an Euskaltzaindiaren legeztatzean parte hartu zuelako, eta hizkuntza minorizatuen alde jokatu izan duelako. Gogorazi du, halaber, Alfonso XIII.a, oraingo erregearen aitona, Oñatin, 1918an Euskaltzaindiaren sorreran izan zela. Bestetik, Euskaltzaindiaren ustez hizkuntza guztien artean egon beharko lukeen begirunea eta tolerantzia-giroa azpimarratu du. Azkenik, Frantziarekiko akordioa egitea eskatu du hitzaldian, bi estatuetan eta administrazio-eremu desberdinen menpe dagoen euskararen erabilera berma dadin.



## **V.2. Jardunaldiak**



Dagokion batzordeak txostenak burutu dituenean, eragile teknikariaren esku utzi ditu, jardunaldi aurretik euskaltzainei igortzeko eta jardunaldietako partehartzaileei banatzeko.

Batzordeek jardunaldiei buruz eta idazkaritzak ospakizunez emandako informazioarekin, egun berean burutu den egitaraua jaso duen esku-programa moldatu eta argitaratu dute eragile teknikariak eta Gasteizko bulego-arduradunak.

Jardunaldien berri emateko, besteak beste, prentsaurrekoak egin dira. Horrezaz gainera, Herri-Agintariei eta, gaiaren arabera, alorrez alorreko adituei bidali zaie jardunaldietan parte hartzeko gonbidapena, egitarauarekin batera.

Jardunaldiak egin diren lurraldeko bulegoko langileak arduratu dira antolamenduzko zenbait eginkizunez, material-prestaketa, banaketaz, e.a.

Jardunaldien ondoren jaso diren oharra eta gutunak kasuan kasuko batzordeari helarazi zaizkio, azter ditzaten. Batzordeek, jardunaldietan bertan edo geroztik jasotako oharren ondorioz, zenbaitetan aldatu eta osatu egin dituzte beren txostenak.

## **LEF Jardunaldiak**

Jardunaldi hauek bi zatitan egin dira. Gipuzkoako Diputazio jauregian egin da Jardunaldi hauen lehen zatia 1994ko urtarrilaren 28an. Gaia hau izan da:

— *Eratorpen-atzizkiak*: Miren Azkarate. Zenbait atzizkiren tradiziozko erabilera aztertu eta azken urteotako desbiderazioak ikusi ondoren, erabilera zuzena sustatzeko proposamenak egin nahi izan dira. Txostena euskaltzainei alde aurretik banatu zaie, oharra Jardunaldietan egin ditzaten.

Egun honetan txostena osorik eztabaidatu ez denez, apirillean amaitzekotan utzi da.

Horrela, apirilaren 22an, Euskaltzaindiaren Gasteizko ordezkartzan egin da Jardunaldi horien bigarren zatia, Hiztegi Batuko Jardunaldien aurretik. Urtarrileko Jardunaldietan jasotako oharrekin laugarren idaztaldea eman zaio txosten horri. Txosten horretan jaso dira, LEF azpibatzailearen ustez argi dauden puntuen ondoan, irtenbide bat baino gehiago izan ditzaketen auziak ere, aukera egiteko bideak eta arrazoiak leialki agertuz.

Jardunaldi hauetan, urtarrilean, 35 lagunek parte hartu dute: horietatik 19 euskaltzain osoak izan dira, eta gainerako 16ak batzordekideak eta gonbidatuak; apirillean, 54 lagunek parte hartu dute, horietatik 16 euskaltzain osoak eta gainerako 38ak batzordekideak eta gonbidatuak.

## **I. Jagon Jardunaldiak**

Jardunaldi horien antolamendu akademikorako bi bilera egin dira aurren. Jardu-

naldi hauek 1994ko otsailaren 24tik 26ra egin dira Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, eta gaitzat *Hizkuntzaren erabilera zuzena* izan dute. Hona hemen, egunez egun, I. Jagon Jardunaldi horien egitaraua:

**Otsailak 24:** *Kanpoko esperientzia*

— *Jardunaldien aurkezpena:* Endrike Knörr.

— *Actuación de la Generalitat de Catalunya para garantizar la calidad de la lengua:* Isidor Mari i Mayans, Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako zuzendariorde nagusia.

— *Estándar, administración pública y la función de calidad de la lengua:* Jesús Huguet Pascual, Valentziako Generalitateko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

— *Tutela de la lengua en las Islas Baleares:* Aina Moll Marqués, Baiaetako Hizkuntzaren Normalizaziorako kanpainaren arduraduna.

— *Potenciación del uso del gallego y protección administrativo-jurídica de la lengua:* Manuel Regueiro Tenreiro, Galiziako Xuntako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

— *Aspectos sociológicos para la estandarización del galés:* Glyn Williams, Galesko Unibertsitateko irakaslea.

**Otsailak 25:** *Euskararen erabilera zuzena Administrazioan*

— *Hizkuntzaren erabilera zuzena Autonomi Administrazioan:* Mari Karmen Garmendia, Jose M. Rodriguez Ochoa.

— *Euskararen erabilera zuzena: Ikuspegi juridiko-administratiboak:* Jose Luis Lizundia, Andres Urrutia.

— *Euskararen erabilera zuzena Foru eta Udal administrazioan:* Patxi Uribarren, Marian Lizarralde.

**Otsailak 26, goizean:** *Euskararen erabilera zuzena Hezkuntzan*

— *Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntzabide:* Mikel Zalbide.

— *Eskolan ikasia bizitzan nola itsatsi:* Joxe Mari Berasategi.

— *Hutsen zuzenketa eskolan:* Ibon Olaziregi.

— *Euskara Hizkuntza Eskola Ofizialetan. Antolaketa eta erabilera:* Andres Iñigo, Patxi Iñigo.

— *Unibertsitatean euskararen ofizialtasunak dituen problema batzuk:* Xabier Kintana.

**Otsailak 26, arratsaldean:** *Euskararen erabilera zuzena komunikabideetan*

— *Euskara eta kazetaritza:* Antton Aranburu.

— *Euskararen erabilpen zuzena Iparraldeko komunikabideetan:* Luzien Etxezaharreta.



— Euskararen erabilera zuzena egunkari batetik arloz-arlo: Patxi Petirena.

— Hizkuntz egokitasuna EITBko saioetan: Igone Etxebarria.



Bilbo, 1994.2.26. I. Jagon Jardunaldiak: Patxi Petirena, Antton Aranburu, Miren Azkarate, Igone Etxebarria, L. Etxezaharreta.

Jardunaldi hauetan 126 lagunek parte hartu dute: horietatik 17 euskaltzain osoak izan dira, eta gainerako 109ak batzordekideak eta gonbidatuak.

### Ondorioak

Jardunaldien amaierako ekitaldian, Jagon Sailak *I. Jagon Jardunaldien ondorioak* izeneko adierazpena irakurri eta banatu du. Bertan, hizkuntzaren erabilera zuzena edozein alor eta egoeratako beharrezanean egokitu behar zaiela esaten da. Horretarako, herri-aginteez, bakoitzak bere esparruan, babes juridikoa, neurriak, ikuskaritzak eta denetari-ko baliabideak eskura jarri behar dituzte, horrela administrazio desberdinetan, hezkuntza-maila guztietan eta komunikabideetan euskararen erabilera zuzena bermatzeko.

### Gramatika Jardunaldiak

1994ko martxoaren 25ean, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren jauregian, Gramatika Jardunaldiak egin dira, goiz eta arratsaldez. Leioako Biltzarrean jendaurrean aurkeztuko den txosten-sorta, lehenik Jardunaldi hauetan euskaltzainei eta zenbait gonbidaturi aurkeztu die batzordeak.

— Goizean, txosten-sorta baten aurkezpena egin du Patxi Altunak: *Egun hedatzen ari diren badaezpadako zenbait esamolderi aurre egin beharra*. Ondoren, eztabaida izan da, euskaltzainek eta bestelako gonbidatuek oharrak egin dituztelarik.



*Iruñea, 1994.3.25. Gramatika Jardunaldiak: Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Patxi Altuna, Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Jose Antonio Mujika.*

— Arratsaldean, beste txosten-sorta baten aurkezpena egin du Patxi Goenagak: *Gramatika batzordearen zenbait proposamen euskara batuari begira*. Ondoren, eztabaida izan da, entzuleen partaidetzarekin.

Gramatika batzordeak gai hauei guztiei buruz egindako lana 119 orrialdetan banatu zaie Jardunaldi horietan bilduei, eztabaidatzeko eta aztertzeko.

Jardunaldi hauetan 50 lagunek parte hartu dute: hauetatik 17 euskaltzain osoak izan dira, eta gainerako 33ak batzordekideak eta gonbidatuak.

### **Hiztegi Batuko Jardunaldiak**

Gasteizko Euskaltzaindiaren ordezkartzan egin dira, 1994ko apirilaren 22an eta 23an Jardunaldi hauek. Hona hemen aurkeztu eta eztabaidatu diren txostenak:

#### **Apirilak 22**

— *Aztergai sistematikoak*: Mikel Zalbide.

#### **Apirilak 23**

— *Hiztegi Batuko forma aztertuen aurkezpena*: Ibon Sarasola.

— *Hiztegi Batua osatzeko irizpideak*: Jose Antonio Aduriz.

Euskaltzainekin eta gainerako gonbidatuekin batera, batzordeak darabiltzan irizpideak aurkeztu eta eztabaidatu dira. Besteak beste, arazo hauek tratatu dira: *g/j* grafia auziak, *-ari / -ario* amaierak maileguetan, *-ska/ -xka* atzizkiaren forma, etab. Euskaltzainei, eta Jardunaldietan izan diren partaide guztiei banatu zaie txosten guztien ale bana



*Gasteiz, 1994.4.2. Hiztegi Batuko Jardunaldiak. Ezkerretik eskuinera: Miren Azkarate, Jean Haritschelhar, Jose Antonio Aduriz.*

zenbait ohar bertan jaso direlarik, eta oharrak geroago ere egiteko aukera eskaini delarik.

Jardunaldi hauetan 54 lagunek parte hartu dute: horietatik 16 euskaltzain osoak izan dira, eta gainerako 38ak batzordekideak eta gonbidatuak.

### **III. Ahoskera Jardunaldiak**

Ebakerari buruzko I. Jardunaldiak Euskaltzaindiak Azkoitian egin zituen, 1982an, eta II. Jardunaldiak, Durangon, 1986an.

Oraingoan, berriz, 1994ko maiatzaren 27an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, egin dira Jardunaldi hauek. Hona hemen irakurri eta eztabaidatu diren hitzaldiak eta txostenak:

— *Hitz pareak*: Patxi Altuna.

— *Euskal azentuak eta euskara batua*: Jose Ignacio Hualde.

— *Ahoskera batzeaz; Hizkera zainduaren ingurukoak sakonduz; Abiaburu zehatz batzuk*: Miren Lourdes Oñederra, Pilartxo Etxeberria.

Jardunaldi hauetan 79 lagunek parte hartu dute: horietatik 16 euskaltzain osoak izan dira, eta gainerako 63ak batzordekideak eta gonbidatuak.



Bilbo, 1994.5.27. Ahoskera Jardunaldiak. Ezkerretik eskuinera: Iñaki Gaminde, Patxi Altuna, Jean Haritschelhar, Miren Lourdes Oñederra, Jose Ignacio Hualde.

## V. Onomastika Jardunaldiak

Jardunaldi hauek 1994ko uztailaren 1ean eta 2an egin dira, Miarritzeko *Palais des Festivals* kultur etxean. Hona hemen bi egun horietan aurkeztu eta eztabaidatu diren hitzaldiak eta txostenak:

### Uztailak 1

— *Criterios lingüísticos para la traducción de nombres propios*: M. Teresa Espinal, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

— *Euskaltzaindiko Exonomastika azpibatzordearen proposamenak: historia eta irizpide nagusiak*: Xabier Mendiguren.

— *Espainia-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa*: Andolin Eguzkitza, Xabier Kintana.

— *Munduko estatu eta hiriburuen izenak; Munduko akzidente geografiko nagusiak; Jentilizioak euskaraz emateko taula*: Iñaki Irazabalbeitia.

— *Ponte-izenak; Astronomi eta mitologi izenen inguruan*: Andolin Eguzkitza, Xabier Kintana.

— *Transliterazio taulez*: Iñaki Irazabalbeitia.

### Uztailak 2

— *Euskal kontextuko exonomastika mundu greko-latinoaren inguruan*: Alfonso Irigoien, Iñaki Usabiaga.

— *Latin jatorriko izen bereziak euskal idazleetan*: Gidor Bilbao.

— *Gainerako exonomastikaz*: Antton Gurrutxaga.

Beste zenbait txosten:

— *Exonimo eta pertsona-izenak Iparraldeko usadioan*: Emile Larre.

— *Nafarroako antroponimia*: Patxi Salaberri, Andres Iñigo.

— *Arabako hagonimia*: Jose Antonio Gonzalez Salazar.

Hitzaldiak eta txostenak irakurri ondoren, Jardunaldietan parte hartu duten kideen arteko eztabaida izan da, euskaltzain eta bestelako gonbidatuena, partaide guztiei hitzaldi eta txostenen ale bana eman zaielarik.

Jardunaldi hauetan 54 lagunek parte hartu dute: hauetatik 12 euskaltzain osoak izan dira, eta gainerako 42ak batzordekideak eta gonbidatuak.

### **III. Literatura Jardunaldiak**

Herri-Literatura azpibatzerdearekin batera, euskal metrikari buruzko III. Literatura Jardunaldiak antolatu ditu Literatura-Ikerketa azpibatzerdeak.

Jardunaldi hauek 1994ko uztailaren 22an egin dira, Gipuzkoako Foru Diputazioan. Hauek izan dira Jardunaldi horietan irakurri diren txostenak:

— *Bertso-lerroa*: Patxi Altuna.

— *Euskal errima bertsolaritzan*: Pello Esnal.

— *Euskal estrofaingintza*: Juan Mari Lekuona.

Gainerako Jardunaldietan bezala, hauetan ere lehendik euskaltzainei bidali zaizkie txosten hauek, oharrak Jardunaldietan egin zitzaizkien, eta bertan izan diren gonbidatuei ere banatu zaie kopia bana.

Txosten hauek Leioan egindako Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean ere aurkeztu dira, biltzarkideei idatziz eskainiz eta hizlariak txostenen laburpena eginez.

Jardunaldi hauetan 33 lagunek parte hartu dute: horietatik 15 euskaltzain osoak izan dira, eta gainerako 18ak batzordekideak eta gonbidatuak.



### **V.3. XIII. Biltzarra:**

**Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean,  
1994ko urriaren 3tik 7ra.**





## Prestaketa

Euskaltzaindiak sortutako 75. Urteurreneko batzordeak 1993an bertan abiarazia zuen XIII. Biltzarraren antolamendua. Biltzarraren behin-behineko egitarauaren berri eman zaie aurtengo udaberrian euskaltzain osoei, euskaltzain urgazleei, ohorezkoei, ohargileei, iritzi-emailei, kultur munduko hainbat laguni eta Herri-Aginteei.

Euskaltzaindiak XIII. Biltzarrerako hitzaldiak eta txostenak egitea eskatu die arlo jakinetako adituei, eta beste askori aukera eman die txostenak aurkezteko. 75. Urteurreneko azpibatzerde akademikoa arduratu da eskabide horiek jasotzen, aztertu eta kasuan kasuko erabakia hartzen, Eragile teknikariaren bitartekotza eta koordinazioarekin.

Batzorde desberdinek Jardunaldietan aurkeztu dituzten hitzaldi eta txostenak, ondoren egindako zuzenketekin, karpeta propioan bildu dira guztiak, *XIII. Biltzarra: eztabaida gaiak* izenburuarekin. Material honen guztiaren argitalpenerako beharrezko moldaketa Donostiako bulegariak egin du.



*Leioa, 1994.10.7. XIII. Biltzarra. Ezkerretik eskuinera: J.M. Lekuona, F. Ondarra, L. Villasante, P. Salaburu, P. Altuna, T. Peillen, B. Oihartzabal, J. Haritschelhar, X. Kintana, J.A. Arana, I. Sarasola, P. Charritton, M. Azkarate.*

XIII. Biltzarraren egitaraua Euskal Herriko kultur munduko gune ugarietara bidali da: administrazioetara, ikastetxeetara, euskaltegietara, unibertsitateetara, komunikabideetara, itzulpen-bulegoetara, testugileengana, e.a. Egoitzatik egin da bidalketa: Eus-

kaltzainburuaren gonbidapen-eskutitza eta Biltzarrean parte hartzeko eskabide-orria 1.500 lekutara igorri dira. Biltzarrean parte hartzea irekia izan da, matrikulatzea 10.000 pezeta edo 400 libera kobratu delarik. Matrikulatu diren guztiei, Biltzar aurretik goian aipaturiko karpeta eman zaie Erakundearen bulego guztietan, bertan 554 orrialdeko hitzaldi- eta txosten-sorta zegoelarik.

Irailean prestatu dira matrikulatuen zerrendak eta biltzarkideentzako kontrol-txartelak. Biltzarraren behin-betiko egitarauaren moldaketa informatikoa Gasteizko bulego-arduradunak egin du.

XIII. Biltzarra Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean egin da, eta bertako arduradunekin zenbait bilera egin ditu antolakizun azpibatzerdeak xehetasunak zehazteko.

Matrikulatuei Leioan bertan ostatua hartzeko aukera eman zaie, hala eskatu dutenei ostatuaren erretserba egin zaielarik.

### **Biltzarrean bertan, orohar**

Biltzarkideei honako hau banatu zaie: kontrol-txartela, egitaraua, Biltzarraren barne-araudia eta otorduetarako Leioako jatetxeen informazioa.

Biltzarrean zehar zerbitzu hauek eskaini dira:

— Informazio-zerbitzua izan da denbora osoz.

— Euskaltzaindiaren argitalpenen salmenta-zerbitzua.

— Euskaltzaindiak bere sorreratik argitaratu dituen liburuen erakusketa eratu du Azkue Bibliotekak, lehen sei euskaltzainburuen argazkiekin. Argitalpen horien guztien katalogoa, 212 libururen fitxa bibliografikoz hornitua, Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz argitaratu da, eta biltzarkideei banatu zaie.

— Euskaltzaindiak historian zehar bilerak egin dituen herrien izenekin mapa egin da eta ikusgai izan da Biltzarrean zehar.

— Egunoro irakurri diren txostenen 6na ale izan dira biltzarkideen eskueran.

— Euskaltzaindiak hizkuntz arauari buruz iritzia eskatu dien pertsonen izen-zerrendak eta horiek emandako erantzunak biltzarkideen ikusgai izan dira.

— Biltzarrean parte hartu izanaren ziurtagiria eskura eman zaie Biltzarrean bertan hala eskatu dutenei.

— Egunoroko hizlari eta txostengileei otordua eta ostatua eskaini zaie, eta baita hala eskatua zuten biltzarkideei, horren guztiaren ardura Ekonomi eragilearena izan delarik.

Biltzarreko lana aurrikusita zegoen bezala gauzatu da, eta hitzaldiak eta txostenak izan dira Biltzarraren muina eta ardatza. Biltzarraren aretoko mahaian moderatzaileak, hizlariak eta txostengileak eseri dira. Hitzaldia edo txostena irakurri ondoren une batean entzule guztiei aukera eman zaie entzundakoaz galderaren bat orduan bertan egiteko. Izena eman dutenei denbora mugatua eman zaie beren galdera edo oharrak egin ditzaten. Ondoren hizlariak edo txostengileek banan-banan erantzun egin diete galdera horiei. Biltzarrean zehar, guztira, 136 galdera edo azalpen egin dituzte entzuleek. Areto barruko koordinazio-lana, mahaikoez gainera Argitalpen eragileak eta Eragile teknikariak egin dute. Bestetik, Biltzarrean irakurri diren hitzaldiak eta txostenak grabatu egin dira zintetan.

Biltzarraren antolamendurako eman duten laguntzagarriak aipatzekoak dira Euskal Herriko Unibertsitatea eta Aurten Bai Fundazioa.

Biltzarraren egitarautik kanpora egin diren ekintzen artean, hauek dira aipagarrienak. Batetik, Leioako Udalak Euskaltzaindia hartu du kultur etxean, eta bertako kontserbatorioko ikasleek musika-emanaldia eskaini diote. Bestetik, iluntze batean *Ama Lur* filmea eman da hitzaldi-aretoan. Azken egunean, Aurten Bai Fundazioaren eskutik, euskara batuaren historian protagonista izan diren pertsonen buruzko ikus-entzutezko saioa eskaini zaie biltzarkideei.

Biltzarraren azken ekitaldian, Leioako Udalak Euskaltzaindiari, oroigarri gisa, eskultura bat eman dio. Amaieran, Euskaltzainburuak Biltzarraren adierazpena irakurri du eta ondoren jendartearen banatu da. Horrez gain, Biltzarrean tratatu diren gaien buruz gero ere iritzia idatziz emateko aukera badutela esan die Euskaltzainburuak biltzarkideei, berauei Biltzarrari buruz beren iritzia edo kritika egitea eskatu dielarik. Azkenik, Euskaltzainburuak, XIII. Biltzarra behar bezala gauzatzeko parte hartu duten guztiei eskerrak eman dizkie.

### **Prentsa-bulegoa**

Egun osoz eta Biltzarrak iraun duen bitartean Euskaltzaindiaren prentsa-zerbitzua lanean aritu da, horretaz prentsa-arduradunak eta Gasteizko bulegoko langileak jardun dutelarik. Asteaz zehar eta aurreko zenbait egunetan ere prentsa-bulego hau komunikabideen zerbitzuan aritu da. Orohar, honako zerbitzuak eman ditu:

— Biltzarrari buruzko informazioa aldeztu aurretik eman.

— Egunez eguneko egitaraua banatu.

— Medio bakoitzari aurretik hitzartutako informazioa: txostenen laburpenak, elkarrizketak, irrati eta telebistetarako kronikak, agerraldiak eta Biltzarrean gertatutakoaren gorabeherak.

— Egunero, egitarauaren gai nagusiak kontuan harturik, batzordeen arduradunekin prentsaurrekoak antolatu dira. Horrela, gramatikari buruzko azken arau-proposamenak eta euskara batuari buruzko hainbat abiapuntu azaltzeko, asteaztean, Miren Azkarate, Patxi Altuna eta Pello Salaburu izan dira mahakideak. Asteazkenean, Xabier Kintanak, Iñaki Irazabalbeitiak eta Xabier Mendigurenek kanpoko izenei euskal forma emateko nola jokatu azaldu dute. Ostegunean Ahoskera batzorde berriaren helburuak eta irizpideak ekarri dituzte mahaira Iñaki Gamindek, Miren Lourdes Oñederrak eta Rosa Miren Pagolak.


Denetara, XIII. Biltzar honetan, 34 komunikabidetara zabaldu du zerbitzu honek informazioa: 10 egunkari, 13 irrati, 3 telebista, 3 aldizkari eta 5 prentsa-agentziatar.

### **XIII. Biltzarraren egitaraua**

#### **Urriak 3, astelehena**

Moderatzaileak: J. Haritschelhar eta J.M. Lekuona

- 9.30: Jendea hartzea eta txartelen banaketa
- 10.30: Hasiara: Euskaltzainburuaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Erretorearen ongi etorria
- 11.00: *Euskara batuaren filosofiaz*  
Luis Villasanteren hitzaldia
- 12.30: *Biltzarraren ibilbideaz eta helburuez: euskara batuaren egungo premiak*  
Pello Salabururen hitzaldia
- 15.30: *Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (I):*  
— Agiria euskal hitzei buruz



Leioa, 1994.10.3. XIII. Biltzarra. Luis Villasante.

- Letra larrien erabilera
- Deklinabidea: *bat/batzuk; nor/nortzuk*
- Zenbakiak eta ordinalak
- Zenbait aukeraren zergatia: *arabera, iritzi, baitu, aurrealde, usain, -zio, arazi*
- hau guztia, nornahi
- Ibon Sarasolaren hitzaldia
- 16.45: Atsedenaldia
- 17.00: Txostenak:
  - *Ortografia-gomendio batzuei buruzko gogoeta*. Joseba Butron
  - *Ortografiazko arazoak: esploradore ala esploradore*. Miren Lourdes Oñederra
  - *Zergatik gorde x letra maileguzko hitzetan*. Martzel Ensunza, J.R. Etxebarria, Kepa Altonaga
  - *Bat/batzuk eta nor/nortzuk Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera*. Koro Segurola, Izakun Etxebeste
  - *Laburtzapenen deklinabidea*. Igone Zabala
  - *Laburdura-sistema berezi bat. Konposatu kimikoen formulazioa*. Juan Karlos Odriozola
  - *Euskaltzaindiaren gomendio-arauen idazkeraz: letra larriei buruzkoaren kasua*. Antton Elozegi

#### Urriak 4, asteartea

Moderatzaileak: P. Altuna eta P. Salaburu

#### Goizeko saioa

- 9.30: *Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (II). Hitz elkartuak: irizpide nagusiak eta banan-banako arauak:*
  - *Hitz elkartuen erabilpen eremua; hitz junturako hots aldaketak: hots legeak; lehen osagaiaren amaiera -a denean: galdu ala ez; berrelkarketa; bereiz idazteko*

hitz elkartuak; marrarekin idazteko diren hitz elkartuak; loturik idazteko diren hitz elkartuak; marrarekin edo bereiz idatz daitezkeen hitz elkartuak; marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak.

Mikel Zalbideren hitzaldia

11.00: Txostenak:

— *Aditzoia Ioannes Leizarragagan*. Esther Zulaika

— *Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak*. Juan Luis Goikoetxea

11.30: *Gramatikari buruzko proposamenak (I). Batasunerako proposamenak*. Gramatika batzordearen zenbait proposamen euskara batuari buruz:

— Diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea; *hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkeraz; orduak nola esan; *ezkero/ -ez gero*; zenbait aditzen erregimena (*gonbidatu, iguriki, itxaron, itxoin, deitu*); baldintzaren ondorioetako *egingu nuen* bezalakoak; *betiko* eta *betirako*; *ekartzea merezi du*; partitiboa baiezko perpausetan; *egiteko asmoz, egin asmoz, zu (izan) ezik*; juntagailuei buruzko gomendioak; data nola adierazi; *hiru kilo(ta)ko*.

Patxi Goenagaren hitzaldia

*Arratsaldeko saioa*

15.30: *Gramatikari buruzko proposamenak (II). Okerrak zuzenduz*. Egun hedatzen ari diren badaezpadako zenbait esamolderi aurre egin beharra:

— *Honezkero / dagoeneko; iraun, balio, kosta, luzatu, neurtu, pisatu; \* bost durotan garestitu; \*topikoa bihurtu; ez daukazu zertan negar egin beharrik; baita ere /ezta ere; ongi etorri!; \*bazkaria eta gero /bazkaldu eta gero; \*hitzaldia medio / hitzaldia dela medio; \*hobe esan /hobeto (hobeki esan); -tazko; \*elkar ondo moldatu; galdera itsusietaz; partitiboa eta aditz komuntadura; -a bokalarekin amaitzen diren izenen mugagabeko kasuak; -z instrumentalaren zenbait erabilera oker; *berri* vs. *beste bat / beste batzuk*; konpletiboen inguruko gora-beherak; baldintzazkoak; konparazioak; *\*guztiei gonbidatzen zaie; kanpo ministroak dimiti lezake*.*

Patxi Altunaren hitzaldia

17.00: *Hitanoaz*:

— Erregularitasuna, bai/ez; tradizioa / oraingo hedadura; -i bai ala ez (*niagok / nagok*); *nagok / negok eta zagok / zegok*; *zabilak / zabilek; ditiat / dizkiat; niake / nitek*.

Beñat Oihartzabalen hitzaldia

18.15: Txostenak:

— *Hitanoa non eta nork erabiltzen duen*. Xabier Alberdi

— Neurtu aditzaren erregimenaz. Iñaki Azkune

— Neurtu aditzaren erregimenaz. Julio Garcia, Martzel Ensunza, J. Ramon Etxebarria, Kepa Altonaga

— *Hitanoa ahozko hizkuntzan Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera*. Go-tzon Aurrekoetxea

**Urriak 5, asteazkena**

Moderatzaileak: B. Oihartzabal eta Miren Azkarate

9.30: *Hiztegi gintza (I). Eratorpenaz*

Zenbait atzizkiren tradiziozko erabilera eta azken urteotako desbiderazioak:

— Atzizkien lema eta aldaerei dagozkien arazoak.

— Oinarriaren kategoriatik datozen auziak:

— Ez dagokion adiera edo balioa ematetik datozen akatsak.

— Erdal mailegu eratorrietatik datozen atzizkiak.

Miren Azkarateren hitzaldia

11.00: Txostenak:

— *Mitxelenaren zine kritiketako hitz elkartuak*

Elixabete Perez

- *Mitxelenaren zine kritiketako hitz eratorriak*  
 Maria Luisa Telletxea, Elixabete Perez
- 11.30: *Hiztegigintza (II). Aztergai sistematikoak eta irizpideak:*  
 — *Hiztegi Batuko batzordeak orain arte egindako lanaren zerrendak eta jasotako oharren berri eman.*  
 — *Batzordeak, batasunerako formak proposatzerakoan, baliatu duen irizpide sorta.*  
 Ibon Sarasolaren hitzaldia
- 15.30: *Euskal metrikaz:*  
 — *Euskal estrofez*  
 Juan Mari Lekuonaren hitzaldia  
 — *Bertsu lerroa*  
 Patxi Altunaren hitzaldia  
 — *Puntua bertsolaritzan*  
 Pello Esnaolen hitzaldia
- 17.15: *Hiztegi teknikoak*  
 Andoni Sagarnaren hitzaldia
- 18.00: *Hiztegi juridikoa*  
 Andres Urrutiaren hitzaldia
- 18.45: *Txostenak:*  
 — *Hiztegi Batuaren datu-base lexikografikoa*  
 Jose Antonio Aduriz, Miriam Urkia  
 — *Noiz g(e, i) eta noiz j(e, i) latinetiko mailegu berrietan*  
 Jose Antonio Mujika.

#### **Urriak 6, osteguna**

Moderatzaileak: J. A. Arana eta E. Knörr

- 9.30: Endrike Knörren sarrera-hitzak Exonomastikaz
- 9.45: *Exonomastika (I). Batzordearen proposamenak, historia eta irizpide nagusiak.* Xabier Mendigurenen hitzaldia
- 11.00: *Txostenak:*  
 — *Kultura-hitzak euskaraz et nomina exonomastica scribendi forma in lingua uasconum.* Alfonso Irigoien  
 — *Transliterazio taulez.* Iñaki Irazabalbeitia
- 11.45: *Exonomastika (II). Munduko estatu eta hiriburuen izenak eta munduko akzidente geografiko nagusiak.* Iñaki Irazabalbeitiaren hitzaldia
- 15.30: *Exonomastika (III). Ponte-izenak eta Espania-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa.* Xabier Kintanaren hitzaldia
- 16.45: *Atsedena*
- 17.00: *Mahaingurua: Euskara batua eta komunikabideak.* Partehartzaileak: Mikel Atxaga, Antton Aranburu, Patxi Petrirena, Igone Etxebarria, Emile Larre eta Joxe Aranzabal. Moderatzailea: Jose Mari Satrustegi
- 18.15: *Txostenak:*  
 — *Hiribarrenen Euskaldunak poemako izen bereziak.* Amaia Boneta  
 — *Nafarroako toponimia nagusia. Arazoak.* Patxi Salaberri  
 — *Aditz modalen erabilpena dela eta.* Alan King  
 — *Izen arrunt bizigabeen toki-denborazko deklinabide kasuak Hegoaldeko parte batean.* Mitxel Kaltzakorta.

#### **Urriak 7, ostirala**

Moderatzaileak: J. Haritschelhar eta J.M. Lekuona

- 9.30: *Ahoskera (I). Azentua eta euskara batua*  
 Jose Ignacio Hualderen hitzaldia
- 10.45: *Txostenak:*  
 — *Hiz pareak.* Patxi Altuna  
 — *Euskararen normalizazioa eta linguistika konputazionala.* Itziar Aduriz, Izaskun Aldezabal, Jose M. Arriola, Xabier Artola, Miriam Urkia

- 11.45: Atsedenaldia  
 12.00: *Ahoskera (II). Ahoskera baturantz?*  
 Miren Lourdes Oñederraren hitzaldia  
 15.00: Euskaltzaindiaren bilkura  
 16.00: Mahaingurua: *Euskara batua eta literatura kreazioa*  
 Partehartzaileak: Andu Lertxundi, Andolin Eguzkitza, Juan Garzia eta Aurelia Arkotxa. Moderatzailea: Ibon Sarasola  
 17.15: Biltzarraren amaiera: ondorioak eta agurrak.

## **Euskaltzaindiaren Leioako adierazpena**

«Euskaltzaindiak, Leioan bildurik urriaren 3tik 7ra egindako XIII. Biltzarraren ondoren,

— eskerrak eman nahi dizkie Biltzar honetan parte hartu duten hizlari, txostengile eta biltzarkide guztiei, aitortuz eskerga izan dela batzordekideen lana, eta batez ere batzordeetako idazkariena;

— esker bereziak eman nahi dizkio Euskal Herriko Unibertsitateari, Biltzarra behar bezela egiteko erraztasun guztiak eman dituelako. Baita komunikabideetako kazetariei ere, hauei esker baitira orain Euskaltzaindiaren ekintzak ezagunago.

Eta honako hau adierazten du:

1. Biltzar hau beste urrats handi bat izan da batasunaren bidean, aurkeztu diren lanen mailagatik eta biltzarkideen artean sorturiko eztabaidengatik. Agerian utzi du, halaber, Arantzazuko eta Bergarako biltzarretan eta ondorengo urteetan egin den lana zein emankor, mamitsu eta garrantzitsua izan den. Pozgarria da, orobat, horrenbeste jende eta hain toki desberdinetakoak, bildu izana.

2. Euskaltzaindiak erabakiak hartuko ditu hurrengo hilabeteetan hemen eztabaidatu diren gaiei buruz, bereziki gramatikari eta exonomastikari dagozkienei buruz. Bestalde, ahaleginak egingo ditu hiztegi batuari eta ahoskerari dagozkienak ere, egin arau, ahalik eta lasterren argitaratzeko.




3. Euskaltzaindiak oso gogoan izango du, orain arte bezala, euskalkiek eskaintzen duten aberastasun oparoa, hiztegikoa eta esaeretakoa, batez ere. Euskal Herri osoari, eta ez zati bati bakarrik, dagokion hizkera batua bultzatu nahi du, iraganetik belaunez belaun datorren hizkuntza ondarea zainduz eta premia berrietara egokituz. Arreta berezia jarriko du Espainiaren eta Frantziaren arteko estatu mugak sortzen dituen hizkuntza bereizketak gainditzen.

4. Euskaltzaindiak argi utzi nahi du euskal gizarteak eskatzen dionari erantzun diola, beti ere hartarako behar dituen baliabideak eskuratuko dituen neurrian.»

## **Biltzarraren inguruan zenbait datu**

Ondoko laukietan zehatzago ikusiko denez, 390 lagunek izena eman dute entzule gisa parte hartzeko, eta hoietarik 354k jardun dute astean zehar. Lanbidez, gehiengoa irakasleek osatzen dute (190 lagun, unibertsitate, institutu, eskola eta alfabetatze-euskalduntzeko irakasleak direnak); bigarren, administrazioetako langileak, gehienbat euskara teknikariak; hirugarren, itzulpen, kazetaritza eta literatura alorretakoak.

Adinari dagokionez, %83a, 26 eta 50 urteko adin-taldean kokatzen dira biltzarkideak. Hauetarik gazteenak 20 urte besterik ez ditu eta zaharrenak 83. Jatorriz, 151 bizkaitarrak, 141 gipuzkoarrak, 30 arabarrak, 22 nafarrak eta 10 Iparraldekoak; gizonak izan dira entzule gehienak (% 60a).



XIII. Biltzar honekin bukatzen da, ekintzetan eta batez ere emaitzetan, oso oparoa izan den Euskaltzaindiaren 75. Mendeurrenkaria. Aurten finkatu eta ezagutarazi du Euskaltzaindiak hemendik aurrera bere gain hartu behar dituen eginkizunak: hizkuntzaren normalizazioaren garapena eta zabalkundea, euskalkien ondareaz baliatzea eta, bere baliabideen arabera, euskal gizartearen eskakizunei era egokian erantzutea.

Biltzar honetan aurkeztu diren txosten eta lanen maila handia agerian geratu da, eta ez bakarrik euskaltzain osoen eta Akademiaren batzordeek egindakoenena, baizik eta baita ere erakundetik kanpoko gainerako 26ena ere.

Adierazgarria eta pozgarria benetan ikustea euskara batuaren inguruan 1968an Arantzazun 60 pertsona bildu baldin baziren, orain, 25 urte geroago, Leioako Biltzarrean, ia 400ek jardun dutela.



## **VI. Zerbitzu orokorrak**



## ZERBITZU OROKORRAK

Atal honetan Euskaltzaindiak Iker eta Jagon sailtako eta gainerako batzordeen azpiegitura bezala egiten dituen lanen berri ematen da, eta baita euskararen lege eta gizartearekiko normalkuntza bidean aurrera joan dadin, erakunde eta gizabanakoei eskaintzen zaien aholku eta laguntza-lana. Akademiaren zeregin hau bere Arautegian agertzen da eta Bilboko egoitzaz gain, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionako ordezkartzen bidez gauzatzen da.

Euskaltzaindiaren ekintza hauek asko ugaritu dira, bertako eta kanpoko ikerlariak euskararekiko duten gero eta arreta handiagoagatik. Horrez gain, euskal gizartean gure hizkuntzaren erabilera oparoagoa dagoela adierazten da.

Herri-Aginte eta unibertsitateetatik aholku eta laguntza eskeen kopurua izugarri ugaltzen ari zaió Euskaltzaindiari. Ponte eta leku-izenen irizpen eta ziurtagiriak, deituren euskal ortografiara egokitzeak, testuen hizkuntza-zuzenketak, bibliografia galderak, gramatikazko zalantzak, eta abarrek Akademiaren zerbitzu orokorrak erabat gaindituak uzten dituzte askotan.

Euskaltzaindiaren azken Gomendio akademikoen berri jakitera geroago eta jende gehiago zuzentzen da egoitza eta ordezkartzetara, alegia, ikasle, irakasle, itzultzaile, idazle, kazetari, Administrazioako funtzionari, eta abar. Orobat, bere jardunaldi eta egiten dituen ekintzez, bereziki, erakundearen 75. Urteurrena dela eta, antolatu direnei buruzko arreta eta interesa agertuz.

Akademiaren argitalpen zerbitzuaren garrantzia areagotu da azken urte hauetan, baina honen berri zehatzagoa atal honetan geroago emango da. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekak eskaintzen dituen zerbitzuen albiste oparoagoa ere sail honetan azalduko da.



## **VI.1. Egoitza**



Hiru sailetan bil daitezke Euskaltzaindiaren egoitzan, bere zerbitzuburuaren agin-  
dupean, eskaintzen diren zerbitzuak.

### **Zerbitzu akademikoak**

Zerbitzu akademikoen kudeaketa eta koordinazioari dagokionez, hauek izan dira  
ohikoenak:

— Hileroko osoen bilkura-deietarako dokumentazioa bildu, Euskaltzainburuari  
eta Zuzendaritzari pasatu eta euskaltzainei barreiatu.

— Harremanen koordinazioa: Euskaltzaindiaren barnekoa, eta beste aldetik, hiz-  
kuntz akademiana, aginteena, unibertsitate eta beste antzerako erakundeena, Euskal-  
tzainburuarekin eta Idazkariarekin kontatuz.

— Euskaltzain oso, urgazle eta batzordekideei Euskaltzaindiari buruzko informa-  
zioa ematea, kasuan kasu Ekonomi eragile, Eragile teknikari eta Argitalpen eragilearen  
laguntzaz.

— Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren bilkuren kudeaketa egitea.

### **Kanpo zerbitzuak**

— Egoitza eramatzen dira harreman orokorrak, baita Bizkaikoak ere zuzenean,  
eta beste herrialdeetakoak ordezkartzen bidez gauzaturik.

— Harremanen alorrean, jendearekikoek gero eta garrantzi handiagoa izan dute  
azken urtean: hiritarrekiko kontsultak, deitura-izenenak, toki-izenenak, era bateko eta  
besteko diktamen edo irizpenak, galdera arruntei buruzkoak, faxez edo telefonozko gal-  
derei buruzko erantzunak zuzenean edo besteen bidez gauzatuak. Ziuurtagiriei dagokie-  
nez, izenen aldaketarako 54 egin dira, ponte-izenenak 153 eta deiturak direla eta 2.088  
ziurtagiri egin dira. Ildo beretik, egoitzaren mugimenduaren adierazgarri ere izan daiteke  
1994. urtean 2.504 dokumentu edo gutun desberdin atera izana.

Bestetik, aipatzekoa da 1994an, egoitzara 5.379 lagun etorri direla kontsulta edo  
gestioren bat egitera. Hortik ikusten da, egunetik egunera, zer garrantzi hartu duen egoi-  
tza berriak, ez bakarrik zuzenean Euskaltzaindiarekiko gaietan, baita ere aretoaren era-  
bileran, dela erakusketa, dela prentsaurreko eta antzerako ekitaldietarako, euskarareki-  
ko erakunde eta elkarteek gero eta gehiago erabiltzen baitute egoitza akademikoa.

### **Zerbitzu orokorrak**

Horrela dei dakieke, erakunde batek bere egoitzaren bidez gauzatzen dituen ho-  
nelako edo antzerako kudeatze- eta administrazio-gaiei. Urte honi -1994.ari- dagokionez,  
alor hauen kudeaketaren ardura eraman da batik bat:

— Harreman instituzionalen kudeaketa: dela Herri-Aginte, erakunde eta elkarte oro.

— Artxibo akademiko hurbila, hots, azken urteetako artxiboaren ardura egoitzako zerbitzu orokorretan gauzatu da. Artxibo historikoa Azkue Bibliotekak darama.

— Ordezkaritzetako bulegoen arteko eginkizunen koordinazio eta kudeaketa; eginkizunen informazioa jasotzea eta abar, bertatik eramaten da.

— Diruzaintza zerbitzua ere egoitza honetatik eraman da. Atal honi dagokio diru edo kontu administrazioaren kudeatzea, bai orokorki eta baita egitasmo eta ordezkartzena ere.

— Gainerako zerbitzuen berri -argitalpenak eta beren banaketa, diruzaintza, Azkue Biblioteka- berariazko txostenen bidez ematen da dagokion lekuan.

— Oraindik ere «D» mailako agiriaren artxibategia eramaten da egoitzatik, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren eta norbanakoen kontsultei erantzunez. Horrezaz landa, aurtan bi aldiz egin dira Iparraldean euskararen agiri hori eskuratzeko azterketak.

Amaitzeko, honako hau aitortu behar da: 1994. urtean egoitzako zerbitzu hauek langile orori esker eskaini ahal izan dira. Urte honetako lanak ez dira aurrekoetakoak baino txikiagoak izan, oso alderantziz baizik, zeren eta arruntez gain, 75. Urteurreneko jardunaldiei eta Biltzarrarrari zegozkienei aurre egin behar izan baitzaie. Hala ere ez da gehitu langile-kopurua.

### **Batzordeen eta iker-lanen koordinazio zerbitzua**

Euskaltzaindiari 1992an egin zitzaion Aditegiak zenbait gomendio eman zion Erakundeari batzorde eta egitasmoen lanen jarraipen hurbilagoa eta egokiagoa egin zezan. Gomendio horiei jarraiki, Euskaltzaindiak 1992an bertan bere organigrama aldatu egin zuen, besteak beste eginkizun horretarako Eragile teknikariaren lanpostua sortuz, eta 1993an eragile hori izendatuz, hots, Pello Telleria. Eragile teknikariaren lana izan da 1994an gai hauei buruzko eginkizunak bideratzea:

#### *a) Batzordeekiko harremanak:*

— Hala behar izan denean, bilera-deiak eta bilera-aktak egin ditu. Erabateko partaidetza izan du 75. Urteurreneko azpiatzorde akademikoaren funtzionamenduan.

— Batzordeen lana hurbilagoetik jarraitzeko batzordeen zenbait bileratan izan da.

— Jardunaldiak prestatzea eta koordinatzea: programa egiteko eta txostenak jasotzeko, harreman estuak izan ditu kasuan kasuko batzordearekin, ondoren txostenak euskaltzainei bidali ahal izateko.

— Jardunaldien egitaraua egin du dagokion batzordearekin, eta ondoren egitarau horren egituraketa eta inprimatzeko moldaketa Gasteizko bulego-arduradunarekin egin du.

— Batzordeetan eztabaidatu diren txostenak jaso ditu.

— Batzordeen bilera-agiriak jaso ditu, eta horien berri eman dio Diruzaintzari horrek guztiak duen diru-ondorioetarako.

— Batzorde eta egitasmoen aldiaren aldiaren errendapen-txostenak eskatu dizkie, aldez aurretik horien urteko kronogramaren berri eman ondoren. Egin beharreko egoki-



tzapenak egin eta gero, horien berri eman die sailburuei, Zuzendaritzari eta Herri-Aginteen Batzorde Teknikoari.

— Euskara Batuko batzordearen proposamenak euskaltzain osoei, 8 ohargileri eta 76 iritzi-maileri bidali dizkie, eta jasotako erantzunak batzorde horren esku jarri ditu.

— Batzordeei hurrengo urteko plana eskatu die, eta horren berri eman die Zuzendaritzari eta Herri-Aginteen Batzorde Teknikoari.

— Batzorde eta egitasmoei *Oroit-Idazkirako* kasuan kasuko txostenak eskatu dizkie. Txosten horiek jaso, aztertu eta zuzendu edo egokitu egin ditu batasuna izan dezaten beren artean eta argitalpenaren gainerako atalekin.

— Batzordeburuei, idazkariei eta ordezkarietzi *Albistorria* helarazi die.

#### *b) Batzorde Teknikoarekiko harremanak:*

— Aldian-aldian batzorde eta egitasmoen errendapen-txostenak bidali dizkie batzorde horretako bi kideei. *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren egitasmoen eta LEF batzordearen kasuan hiru hileroko errendapenak egin eta bidali dira, eta gainerako batzordeen kasuan urtean bi aldiz.

— Batzorde Tekniko horretako ordezkariak deitutako bileretara joan da, eta aurkeztutako errendapen-txostenei buruzko argibide osagarriak eman ditu.

### ***Albistorria***

Gorago aipaturiko Aditegiak Erakunde barnean ez dagoela nahi hainako komunikaziorik adierazi zuen. Norbera bere alorrean murgildu eta gainerakoen berririk izan gabe aritzeko arriskua uxatzeko, aldiro-aldiro prestatu eta banatzen den argitalpen labur hau sortu du Euskaltzaindiak 1994an. Honela, Erakundearen atal desberdinek Akademiaren ekintza nagusien berri izan dute, eta zalantzarik gabe horrek Erakundearekiko atxikimendu-maila sendotu egingo du. *Albistorria* izeneko argitalpen honen arduradunak Idazkariordea eta Eragile teknikaria dira.

Argitalpen honetan, alde batetik hilabete jakin batean Erakundearen barnean izan diren gertakari nagusiak aipatzen dira, eta bestetik hurrengo hilerako aurrikusitako ekintza garrantzitsuenen berri ematen da, besteren artean euskaltzain osoen hileroko batzarra, Zuzendaritzaren bilera eta batzordeen bilera-egunak.

### ***Euskaltzaindiaren ARAUAK***

Euskaltzaindiak bere hizkuntz Arauak berriazko argitalpen batean banatzea erabaki ondoren, Argitalpen eragileari eta Eragile teknikariari eman die idazkariordeak horretarako plana prestatzeko agindua. Plan hori Argitalpen batzordeak aztertu du, eta egin beharreko zuzenketak egin ondoren I. Arau-sorta abenduan, Durangoko 29. Liburu eta Disko Azokan, kaleratu da.



## **VI.2. Ordezkaritzak**



## **GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA**

Azken urtean, 1994koan, bi bereizkuntza izan ditu egoitza honetako langintzak. Bata izan da, ohiko lanez gain, XIII. Biltzarrerarako material jakin batzuk prestatzea; eta bestea, ekainetik aurrera, bi langileetatik bat bakarrik jardun izana egoitzako zeregine-tan, bestearen gaisoaldiagatik.

### **Batzordeen azpiegitura**

Donostiako ordezkartzan biltzen diren batzorde eta lantaldeak, hauek dira: Zuzendaritzakoek hilean behin gutxienez, egoitzarekin txandatu, bertan egiten dute beren bilera; gero, Atlaseko bi langilek egoitzan egiten dute lan ordu oroz, urte guztian; eta Iker saileko batzordeak badira beren bileretako bertan biltzen direnak, edota bertako zerbitzuez baliatzen direnak, hala nola, Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF), Hiztegi Batukoa, Literatura-Ikerketa eta Gramatika batzordea.

Azken urtean eginiko zenbait zerbitzu nabari aipatzekotan, hauek bereizi genitzake:

a) *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - IV (Juntagailuak)*: Gramatika batzordeak egina. Ordezkaritzan prestatu zen inprimategira eramateko lan guztia: zuzenketak, make-tazioa, e.a.

b) Hiztegi Batuko batzordea: *A, B, C, D* eta *E* letrei oharrak idazteko, 100en bat pertsonari hemendik banatu zaie batzordeak pasaturiko hitz zerrenda. Gero, egindako oharrak, UZEIn, —hots, batzordea biltzen den tokian—, Akademiaren ordezkartzan eta egoitzan jasotzen dira.

c) Batzordeek behar dituzten materialak eta txostenen fotokopiak hemen bertan egiten dira, jatorrizko testua artxiboan gordetzen delarik.

d) Literatura-Ikerketa batzordea: koordinazio lan guztia ordezkartza honetatik egin ohi da: bilerak, materiala zabaltzea, deiak, eta, hala balegokio, hiztegiko artikuluren bat makinaz jotzea

e) Herri-Literatura azpibatzerdeko III. Herri-Literatura Jardunaldietan, M. Le-kuonaren mendemugan, Jardunaldien azpiegituraz arduratzea.

f) Euskaltzaindiaren 75. Urtemugaren aurrean, Donostian ospaturiko LEF eta Literatura Jardunaldietako materiala taxutu eta fotokopiatu da bulego honetan.

### **Erakunde eta jendearekiko harremanak**

Euskaltzaindiaren eraketak eta langintzak hala eskaturik harreman estuak ditu ordezkartzak Gipuzkoako Diputazioarekin. Azpiegituraren aldetik, ordezkartza bera Foru Aldundiarena denez, eta Euskaltzaindiak, euskaltzain osoen bilkurak direla eta,

urtean lau bilera Diputazio jauregian egin ohi dituzenez, eta Gramatika batzordea ere bertan biltzen baita, ordezkariak honi dagokio idazkariordearekin batera Diputazioarekiko harremanak zaintzea eta bideratzea.

Bestalde, Donostiatik euskal albistek hartzen duten hedaduragatik, besteak beste, zortzi prentsaurreko egin dira bertan. Prentsaurreko gehienak egin dira, Leioako Biltzar Nagusia zela eta, Jardunaldi desberdinak aurkezteko. Azpimarratzekoak dira, 75. Urtemuga zela eta, eginiko prentsaurrekoa, irailaren 13an; eta Manuel Lekuonaren mendemuga zela eta, III. Herri-Literatura Jardunaldiak aurkezteko egin zena.

Horietaz gainera, badu ordezkariak zuzeneko harreman ugari jendearekin, bai telefonoz, bai aurrez-aurre, izenei, deiturei eta toponimiari buruz. Gero eta maizago egin ohi dira honelako kontsultak.

### **Ordezkaritza zerbitzuak**

Ziurtagiriak. Iazko urteari dagokionez, 272 egin ziren hemendik, gehienak deiturei buruzkoak.

Gutuneria. Igon egin dela esan behar zerbitzu honen emaria. Guztira, 995 irteera eman dira. Faxe gero eta gehiago erabiltzen da barne-komunikazio eta lanen koordinaketarako.

Argitalpen zerbitzua. Salgai daude ordezkarietan Euskaltzaindiaren lanik erabilienak, aldian-aldian ekartzen direlarik Erakundearen argitalpen berriak. Eta bai telefonoz, bai hitzez, bideratzen dira Euskaltzaindiari loturiko bibliografiaren galderak.

## **ARABAKO ORDEZKARITZA**

Arabako ordezkariak, Euskaltzaindiak bere zerbitzu orokorren bidez gizarteari eskaini behar dizkion laguntzak eta argibideak ematen eta Jagon Sailak eskatzen dituen eginkizunak betetzen saiatu da.

### **Erakunde eta jendearekiko harremanak**

Kontuan izanik Euskal Autonomi Elkarteko erakundeak Gasteizen daudela, zuzeneko harremanak daude Eusko Jaurlaritzako sail eta zerbitzu zenbaitekin, Eusko Legebiltzarra, Arartekoa, Emakunde eta antzerako erakundeekin.

Era berean, Arabako Foru Diputazioarekin hainbat ekintza akademiko eta kulturalean elkartzen da Erakunde hau, ahaztu gabe gutxienez urtean behin Euskaltzaindiak Diputazio jauregian egiten duela bere ohiko bilera. Aurten, apirilean, Euskaltzaindiak Arabako Diputazio egoitzan omendu ditu hasierako euskaltzain arabarrak, Alberto Ansoa diputatu nagusia eta Juan Pastor Arabako Batzar Nagusietako lehendakariak ere parte hartu dutelarik.

Gobernu Zentralaren Ordezkaritzarekin ere elkarlanean aritu izan da Euskaltzaindia azken urte hauetan euskararekiko gaitan, batez ere Euskal Herrirako egiten dituen idazki eta inprimaki guztien euskaratzearen zuzenketetan eta, behar denean, itzulpenetan. Horrela aurten, besteak beste, 1994ko hauteskundeetako eta 1995eko Udal hauteskundearen material osoa aztertu eta zuzendu egin da.

Probintzia honetan kokaturik dauden hainbat kultur elkartekin ere izan dira harremanak eta eskatutako laguntzei erantzuten saiatu da Euskaltzaindia bere ordezkariaren bidez: Ikastolen Federazioa, Euskaltegiak (HABE, AEK, IKA, Hegoalde, Uda-berria...), GEU Gasteiz elkarte, Landazuri, Arabako Bertsolarien Elkarte, Hegoa, e.a.

Erregistro Zibilak izen-deituren argibideen eske, eta Lurralde honetako udalek (Gasteiz, Oion, Aramaio, Agurain, Eltziego, Artziniega, Legutiano, Zigoitia, etab.), erro- tulazio, toponimia eta euskararen erabilpen zuzenari buruzko kontsultak egin dituzte.

Euskararen egoera Araban, beronen erabilpena, kontzientziazio kanpainak, erro- tulazio elebidunak eta orokorrean Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren eginkizunen barruan sartzen diren gaiak izan dira ordezkariak honetatik arta bereziarekin jarraitu direnak.

Gasteiz hiriko Nomenklator ofizialean agertzen diren kale-izen guztiak aztertu eta euskara egokian jartzeko, batzordeño bat bildu da Gasteizko ordezkariak, hamaboste- ro, 1994. urtean zehar. Batzordeño honetan, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak, Gasteiz Udaleko Euskara zerbitzuburuak eta GEU Gasteiz elkarteko bi kidek parte hartu dute.

Bestalde, Arabako ordezkariak aretoa euskara edo kulturarekiko gaiei buruz- ko hitzaldiak, prentsaurrekoak eta adierazpenak egiteko ere erabili da.

## **Ordezkaritza zerbitzuak**

Arabako ordezkarietatik lurralde mailako eskakizunei eta Euskaltzaindiak izan dituen zenbait beharri erantzun zaie.

Ziurtagiriak: Idazkaritza eta Onomastika batzordearen irizpideei jarraituz 123 izen-deituraren ziurtagiriak luzatu dira. Zalantzazko kasuak aipatutako batzordera eramn dira dagozkien argigarriak eta erabakiak har ditzan.

Gutuneria: ordezkariak honetatik aurtan 867 gutun desberdin igorri dira.

J.M. Zabalaren sermoiak: Aita Luis Villasante euskaltzainaren zuzendaritzapean, Juan Mateo de Zabalaren sermoien bilketa eta berauek transkribatzeko lanak egin dira eta egiten ari dira Arabako ordezkarietan.

75. Urteurrena. Gertakizun honi eskaini zaion atalean ikusiko denez, egoitzako eta beste ordezkarietako langileekin batera egin da urte honetako ekintzen prestaketa: egitarauak, inprimakiak, zerrendak, agiriak, e.a. Horrez gain, ordezkariak honetako langilea Euskaltzaindiaren prentsa-zerbitzuko kidea izan da.



## NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Nafarroako egoeran euskararen aldeko jagon lana behar-beharrezkoa da eta horretan saiatu da bereziki ordezkari-tza urtean zehar. Hiru maila desberdinetan gauzatu da, batez ere, ahalegin guztia:

— Agintariekin, alderdi politikoen arduradunekin, eta euskara munduan dabil-tzan talde eta pertsonekin hartu-emanak sustatuz.

— Komunikabideekin lotura iraunkor-  
rak mantenduz etengabeko baliapenerako. Komunikabideekin mantendu den lotura ez da izan Euskaltzaindiak egiten dituen adierazpenerako gonbidapenak eta agurrak igortzeko soil-soilik. Irrati saioetarako berri bila datoz, ez Euskal Herria Irratia, ez Xorroxin Irratien antzeko euskaldunak bakarrik, RNE, COPE eta TOP 40 bezalako erdaldunak ere maiz aski.

— Euskaltzaindiaren azken erabakiei buruz eta izen-deituren grafia aldaketaz izan dira galdera eta eskaera gehienak. Aurten epaitegietarako 328 ziurtagiri egin dira. Eskualde askotan zerbitzu amankomunak sortu dira eta zerrendak igortzen dituzte banan-banako eskakizunen orde-z.

### Batzar eta ekintza nagusiak

75. Urteurrenaren ospakizunen barruan, Nafarroako Diputazio jauregian ospatu-takoaz gain, besteak beste, honako hauek izan dira kanpora begira burutu diren ekintza nagusiak:

— Gramatika Jardunaldiak, martxoaren 25ean.

— *Eslaba aldeko euskararen azterketa Toponimiaren bidez*. Onomasticon Vaco-niae 11. liburuaren aurkezpena. 1142 orrialdeko bilduma mardul honetan, Patxi Salaberri irakasle eta Onomastika batzordekidearen tesi laburtua jasotzen da.

— *Toponimia de la Cuenca de Pamplona/Iruña*. Onomasticon Vasconiae 12. alea-ren aurkezpena. 527 orrialdetan Nafarroako hiriburuko leku-izenak biltzen dituzte Jose M. Jimeno Juríok eta Patxi Salaberrik.

— Martxoan egin da ordezkari-tzan euskaltzain osoen hileko batzarra.

— Bi aldiz bildu da ordezkari-tzan Onomastika batzordea. Nafarroako zenbait udaletatik bidalitako kale-izenak aztertu dira, hala nola, Uharte Iruñerrikoak eta Barañaingoak, beste gai askoren artean.

— Ordezkari-tza honetatik aurten 1.039 gutun desberdin igorri dira.

## **Epaimahaiak**

— Nafarroako Foru Parlamentuaren eskariz, itzultzaile lanpostu berri baten horniketak azterketen epaimahaian parte hartu du J.M. Satrustegik Euskaltzaindiaren izenean.

— Iruñeko Udalak antolatutako «IX. Literatur Lehiaketan», Euskaltzaindiaren izenean epaimahaiko izan da Juan Carlos Lopez Mugartza, napar olerkari eta irakasle gaztea. Euskaraz idatzitako olerki, narrazio labur eta bertso paperak sartzen ziren deialdian.

## **Kanpoko hartu-emanak**

Asko dira euskararen esparruan mugitzen diren elkarteak Nafarroan eta maiz datoz ordezkartzara arazoak aurkeztera. Besteak beste, komunikabideak, Nafarroako Gazte Kontseilua, Euskal Herrian Euskaraz, Ikastolen Elkartea, etab. Aipamen berezia merezi du Euskal Herria Irratiak izan duen auziak. Legezko baimenik gabe bere saioak egunoro ematen dituen euskal irrati honek Auzitegi Nagusiaren erabakiari erantzunez Epaitegira bidalitako errekurtsoren testua ekarri du ordezkartzara. Euskaltzaindiak ere, bere aldetik, adierazpen bat egitea onartu du.

## **BAIONAKO ORDEZKARITZA**

### **Ordezkaritza zerbitzuak**

«Autoroutes du Sud de la France» entpresak jakinarazi du bere bezeroek dudak dituztela ordaintzerakoan: xeka egin beharrean, ez dakitela zuzen zenbakiak nola idatzi. Euskaltzaindiak bidesarien zerrenda euskarara itzuli die.

Bestalde, urte guziz, ainitz jende eta erakundek Euskaltzaindiari buruzko argitasunak galdegiten dituzte, maiz Frantziatik edo berdin beste erresuma batzuetatik. Adibidez:

— Komunikabideetan: Europe 1 frantses irratiari txosten luzea igorri zaio, Euskaltzaindiaren historia, gaurko egoera eta iharduerak xeheki aurkezten dizkiona, Euskaltzainburuari elkarrizketa egin diezaion.

— Unibertsitate sailean: Txinako unibertsitate bateko ikerlari batek Baionako auzapezari euskarari buruzko artikulua bat eskatu dio *Etudes Françaises* izeneko aldizkarian agertzeko. Jean Haritschelharrek erantzun dio Baionako auzapezarengatik eskuratu galde horri.

Halaber, Maison des Sciences de l'homme de l'Aquitaine, Bordeleko Unibertsitateko ikerketa adarrari artikulua bat helarazi zaio Euskaltzaindiaz.

— Baionako ordezkariak Herriko etxeei eskaintzen dien laguntzaz gain, herritar edo kanpotarrei itzulpen labur zenbait egin dizkie 1994an: saltoki baten izendatzeko, edo salgaiak euskaraz ere agertzeko, etab.

— Batzuetan, Euskaltzaindiak du ekimena hartzen, hala nola prentsaren bidez edo beste, hutsak ikusten dituelarik erakunde edo entpresaren batek egindako itzulpenetan. Hala gertatu da Miarritzeko aireportuan, *Ongui ethorri* idatzi baitzuten. Horrelakotan, Euskaltzaindiak arduradunari idazten dio hutsa zuzen dezan.

— Ordezkaritza honetatik 173 gutun desberdin igorri da.

### **Erakunde eta jendearekiko harremanak**

— Udaletakoak: herri barneko bide-seinaleen euskaratzeko laguntza eman zaie bi herri hauei: Donapaleu eta Uztaritze. Azken honek berriki muntatu duen toponimia batzordean parte hartzeko gomita luzatu dio Euskaltzaindiari. Beñat Oihartzabalek du lan jarraiki hori bere gain hartu.

— Frantziako Errepublikarenak: 1992ko irailean *demande de reconnaissance d'utilité publique* galdea urte bat berantago berriz egin zuen Euskaltzaindiak, artean frantses

gobernua aldatu baitzen. 1994an, beste argitasun batzuk eman behar izan dizkio Euskaltzaindiak frantses Barne Ministerioari. Bestalde, Departamendu honetako bi ministrok (Lamassoure eta Bayrou jaunek) gutun bat helarazi diote barne ministroari, Euskaltzaindiaren eskaera oroitarazteko eta bere onespena entzunarazteko. Baina 1994. urtea ere iragan da Estatu Kontseiluak erabakirik hartu gabe.

— Bestalde, Toubon kultura ministroari gutun bat igorri zaio martxoan, frantsesaren babesteko egin zuen lege proiektuak, euskara bezalako hizkuntza gutxituak beti bazterturik atxikitzen baititu. Gutun horren kopia Departamenduko ministro, diputatu eta senatoreek ukan dute.

— Akitaniako Kontseiluko presidente den Valade jaunari hitz-ordua eskatu dio Euskaltzainburuak, Akademiaren eginkizunak ezagutarazteko eta honen zerbitzuak eskaintzeko xedearekin.

### **Ekitaldi bereziak**

EGA diplomarako azterketa bi aldiz urtean (ekainean eta urrian) antolatu du Baionako ordezkariak Iparraldeko bizilagunentzat. Guztira 64 lagun aurkeztu dira aurtan.

Euskal Kultur Erakundeak Ondarearen egunak antolatzen ditu bi urtetarik behin, Irisarrin. Euskaltzaindiaren lan eta argitalpenen ezagutarazteko xedearekin, parte hartu du ordezkariak bi egun horietan, argitaratutako liburu guztiak agertuz.

Halaber, Pazko biharamunean, Saran antolatzen ohi den azokan eta Donibane-Lohizuneko Gau Eskolak azaroaren 19an eratutakoan, Euskaltzaindiak jalgi dituen premia handiko liburu zenbait saldu ahal izan ditu, bereziki gramatika, hiztegia eta klasiko batzuk.

Azkenik, Baionako ordezkariak prentsaurreko zenbaiten deiak banatu ditu Iparraldean. Batetik, urtean iragan behar ziren jardunaldi eta biltzarraren egitaraua zabalteko eta bestalde, Iker 8an argitaratu ziren *Oihenarten Biltzarraren aktak* ezagutarazi dira: Baionan azaroaren 14an, eta Maule eta Donapaleun bi aste berantago.

### **VI.3. Azkue Biblioteka**



## **Barne antolamendua**

Aurreko urteetan bezala, aldaketarik gabe jarraitu du langilegoak. Arantzazun, 1993ko irailaren 30ean, osoen bilkuran, onartu ziren Barne Erregelaren arabera antolatu da lana. Testu hori bilakatu, Zuzendaritzak 1994ko otsailaren 15ean onartu zuen funtzionamendurako ibilbidea indarrean jarri da.

## **Eskurapenak**

Egunkariak, kartelak eta garrantzi txikiko beste inprimakiak kontuan hartu gabe, 1994. urtearen zehar, 5.360 monografia eta dokumenturen sarrerak erregistratu dira. Sarrera hauetatik, 1.854 monografiak dira eta horietatik 553 bakarrik erosiak, 1.320.826 pezeta ordaindu direlarik; beste 1.301 dohainik edo trukez jasoak izan dira. Jasotako aldizkariak eta bestelako dokumentuak 3.506 izan dira, eta horietatik erosiak izan direnengatik 806.671 pezeta ordaindu dira. Aldizkari baliotsuenak koadernatu egin dira, 456.639 pezeta ordainduz.

Une honetan 90.000 aletik gora daude Bibliotekaren ondarean eta 1.706 aldizkari (orain argitaratzen direnak edo suntsituak).

Jaso direnen artean aipamen berezia egin behar zaie honako hauei: *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée*, bilduma osoa, Alemanian erosia, eta *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* (1869-1903), bilduma honetatik liburuak batzuk falta direlarik, baina 1995ean jasoko direnak, bilduma osotuz. Monografiaren artean bereziki aipatu behar da J. B. Erroren *Alfabeto de la lengua primitiva de España* liburua (Madrid, 1806) merkatuan aurkitzeko oso zaila dena. Xabier Diharce «Iratzeder» euskaltzainari esker, Guilsou-ren *Erranak* lanaren eskuizkribua lortu da.

## **Fonoteka**

Bizkaiko Foru Diputazioaren diru-laguntzari esker, zeinen Lehendakaritza Sailarekin sinatu baitzen hitzarmena Durangon 1994.eko abenduaren 7an, Euskal Herriaren Hizkuntz Atlasaren 2.400 zinta magnetikoak CD-ROM euskarri iraunkorragoan grabatzea lortu da, 1995.eko ekainean edo, lana bukatua izango delarik. Lan hau burutzea Aurten Bai Fundazioari atxeki zaio. Altxor honen kalitatea galdu gabe, iraupen luzeagoa ziurtatzeaz gain, Euskal Herriko 145 herritan, aurretiaz prestatutako galdeketei emandako erantzunak biltzen dituzten grabaketa hauek, Bibliotekan entzuteko aukera emango zaie goi mailako ikerleei.

## Erakusketak

Bizkaiko meategiez Bilboko FEVEk antolatu duen erakusketarako gaiarekin zeri-kusirik duten hainbat liburu utzi ditu Bibliotekak.

Aurten hil diren Antonio M. Labaien euskaltzain oso eta Justo Garate eta Jon Bilbao euskaltzain ohorezkoen omenez, Gerediaga Elkartek Durangon XIX. Euskal Liburu eta Diskoen Azokan antolatu duen erakusketarako, euskaltzain hauen liburuak eta argazkiak utzi dira.

Euskaltzaindiak Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean antolatu duen XIII. Biltzarrean, Akademiak sorreratik argitaratu dituen liburuen erakusketa egin da, dagokion Katalogoarekin.

## Ikerle eta bisitariak

Urtearen zehar, iaz etorritako 1.065 ikerleen kopurua gehituz, 1.202 ikerleri eskaini dizkie Bibliotekak zerbitzu ugari. Kontsultarako 1.800 monografia eta dokumentu utzi zaizkie eta 40.000 fotokopia egin.

Bibliotekak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, *Orotariko Euskal Hiztegiari*, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasari eta Euskaltzaindiaren beste ikerkuntzako batzordeei eskaintzen dizkien ohiko eta etengabeko zerbitzuez gain, honako aipamen bereziak egin behar dira: *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco* argitaratzeko *El Mundo* egunkariari utzitako zortzi mapa eta hamalau diapositiba, Aretxabaletako Loramendi Elkarteari emandako idazle honen liburuen fotokopiak, komunikabideei etengabe emandako informazio idatzia eta grafikoa euskal bibliografiaz, euskaltzainen eta euskal idazleen bibliografiaz, eta abar. Aipamen berezia merezi du aurten Bartzelonako Mercury Telebistari emandako Azkueri buruzko informazioa eta dokumentazioa. Pertsonaiaren garrantziari dagokionetik, azpimarratu behar da Azkueren musika lana ikertzen ari dela -tesia prestatzeko- Bibliotekan Mercedes García Pérez.

HABE, AEK, IRALE, institutu, ikastola, herri-eskola, ikastetxe eta abarreko ikasleei, jadanik ohiko bisitak egiten dituztenean, Biblioteka eta beronen funtzionamendua erakusten zaie. Hauetatik aparte, jaun-andere ospetsu hauek izan dira Bibliotekan: Fernando Lázaro Carreter, Real Academia Españolako zuzendaria; Fernando Dónega, Real Academia Galegaren idazkaria; Maria José Jerez Amador de los Ríos, Secretaría de Estado de Universidades e Investigación delako erakundekoa; Marcelino Oreja, Europar Batasuneko Komisarioa, Jaime Mayor Oreja eurodiputatuarekin eta Jaime Saiz de Valdivielso parlamentariarekin etorri da; Geoffrey West, British Library-koa; Juan Pons, Zaragozako liburu-saltzailea; José Antonio Zarzalejos, *El Correo* egunkariaren zuzendaria; Jesus Muruzabal, Nafarroako Comptos Ganbarakoa; Miguel Angel Astiz, Herri-Kontuen Euskal Epaitegikoa; eta beste asko. Azkue Bibliotekaren ondare baliotsua goraiipatu dute denek.

Azkenik, esan behar da katalogatze lanak egunoro egiten ibili arren, ezin izan dela ondare osoa katalogatu horretarako beharko lirakeen langile faltaz.



## **VI.4. Argitalpenak**

Zerbitzu honek bi azpiatal ditu:

- Argitalpen batzordea
- Argitalpen banaketa eta salmenta zerbitzua.



## VI.4.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordeak hiru bilera egin ditu aurten, 1994. urtean zehar, liburu hauek argitaratu direlarik:

1. *Euskera* (1993,3): Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko ospakizunen hasiera / Conmemoración del 75. aniversario de la fundación de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak: *-zio, -zione, -zino*, Ordinalen eta banatzaileen idazkera. Batzar-Agiriak. «1994. urterako Euskaltzaindiaren egutegia»; «El euskera en el valle de Cigoitia (Alava)»; «Huarte / Uharte»; «Huarte / Uharte dela eta»; «El nombre IZKI»; «Antonio Tovar euskalariaren oroipena eta haren alargunak Euskaltzaindiari emandako euskal liburutegia»; «Azkue, kazetaria»; «Commentaire critique des *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*»; «Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: galdesorta / Cuestionario / Questionnaire»; «La novela costumbrista de Domingo de Aguirre»; «*Bidegileak* liburukia aurkeztean»; «*Bidegileak* liburukiaren aurkezpenean: 'Azkue eta Urkixo'»; «Presentación de *Bidegileak*: Koldo Eleizalde y Arturo Campión»; «*Bidegileak* liburukiaren aurkezpenean»; «Pierre Broussainen fondoa hartzean»; «Pierre Broussainen fondoa jasotzean- Pierre Broussain-en artxibotik jasotako dokumentuak»; «Pierre Broussainen fondoa hartzeaz»; «Literatura-sariak 1993»; «1993. urtean batzarretera joandako en zerrenda»; «Euskaltzaindiaren aurkitegia»; «Aurkitegia 1993».

2. *Euskera* (1994,1): Espainiako Akademien arteko anaitasunezko ekitaldia: «Hizkuntzaren erabilera zuzena»; «75 aniversario de la fundación de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia»; «75. aniversario de Euskaltzaindia»; «Jornadas sobre tutela de la lengua». Lehen Jagon Jardunaldien aurkezpenean: «Zenbat euskaratik nolako euskarara / Del 'cuánto euskara al qué euskara». Beste herrialdeetako esperientzia. Erabilera zuzena nola zaintzen den han-hemen / La actuación tutelar de las lenguas en sus ámbitos correspondientes: «Potenciación del uso del gallego y protección de la lengua»; «Actuaciones de la Generalitat de Catalunya para garantizar la calidad de la lengua»; «Estandar, Administración Pública y la función de calidad de lengua»; «La tutela en las Islas Baleares»; «Language standardisation, correctness and society». Euskararen erabilera zuzena Administrazioan: «Hizkuntzaren erabilera zuzena Autonomi Administrazioan»; «Euskararen erabilera zuzena Administrazioan»; «Euskararen erabilera zuzena ikuspegi juridikotik»; «'Dagiak agindua, jan dezala'. Euskararen erabilera zuzena. Ikuspegi administratiboak»; «Euskararen ibilbidea foru aldundietan»; «Zuzenketa normalizaziorako bide». Euskararen erabilera zuzena hezkuntzan: «Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide»; «Eskolan ikasia bizitzan nola itsatsi»; «Hutsen zuzenketa eskolan»; «Euskara hizkuntz eskola ofizialetan»; «Euskara U.P.V. / Euskal Herriko Unibertsitatean: erabilera, zuzentasuna eta kontrola». Euskararen erabilera zuzena komunikabideetan: «Euskara eta kazetaritza»; «Euskararen erabilpen zuzena Iparraldeko komunikabideetan»; «Euskararen erabilera zuzena *Euskaldunon Egunkariaren* ikuspegitik: arlos arlo»; «Hizkuntz egokitasuna Euskal Telebistako saioetan». Lehen Jagon Jardunaldien ondorioak. Batzar-Agiriak. «Fruniz / Fruiz»; Euskarazko biblien historiak; «Kostaldeko ekosistemen erakusketa»; «Euskaltzaindiak Jose Luis Linzundiari eta Maria Pilar Lasarteri domina eman»; «Prensa idatziko eta ikusentzuteko komunikabideetako euskara: azken hitzak». «R. M. Azkue sariketako idazlanen argitalpena»; «Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia 'Resurreccion Maria Azkue' sariak ematean».

3. *Euskera* (1994,2): Euskaltzaindiaren 75. urteurrena Gipuzkoako Foru Aldundian: «Euskaltzaindiaren 75. mugakari»; «Euskaltzaindiaren 75 urte direla-eta»; «Euskaltzaindiaren 75. urteurrenean: Araba eta euskara»; «Euskaltzaindiaren 75. urteurrenean»; «Euskaltzaindiaren 75. urteurrena. Batzar-Agiriak. «Arturo Campionen itzala»; «Etxenike eta Aezkoako lekukotasun dialektologikoa»; «Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bidelagun Nafarroan zehar»; «En el 75. aniversario de la fundación de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia»; «Euskaltzaindiaren 75. urteurrenean»; «Erraimun Olabide, Odon Apraiz eta Luis González de Etxebarri jaunei omenaldia Euskaltzaindiaren 75. urtemugan»; «Raimundo Olabideren bizitza eta lanak (1869-1942)»; «Luis González de Etxebarri, hasiera euskaltzain urgazlea»; «Aita Lhande zenaz»; «Martin Landerretxe euskaltzain apezka (1842-1930)»; «Un inédito de Aizquibel»; «Aizquibel e Iztuetan»; «Deklinabidearen jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan»; «Commentaire critique sur les *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*»; «Ubidea / Ubidea»; «Anteiglesia de San Esteban de Etxebarri / Etxebarri Doneztebeko Elizatea»; «Atxuriaga-La Aceña»; «Hospital de Santiago Apóstol / Donejakue Apostoluaren Ospitalea / Jaundone Jakue Ospitalea»; «Ayala / Aiara»; «Luxondoko OZ / Luiandoko OZ (Bizkaiko Enkartazioetan)»; «Kalero-Basauriko OZ / Kareaga-Basauriko OZ»; «Basauri-San

Miguelko OZ / Basauri Elexaldeko OZ»; «Guerniquesado / Busturialdea»; «Zuhatzu (Osasun zonaldea eta OZ) / Zuhatzu (Barakaldo); «Enkarterriak / Enkartazioak»; «Arangurengo OZ»; «La Bulaga / La Baluga»; «Mamariga-San Juan / Mamariga-Donibane»; «Abanto-Zierbana Osasun Zonaldea / Somorrostro»; «Donostia / Donostia-Beterri»; «Bidasoa / Bidasoa Beherea»; «Deba Behea / Deba Beherea»; «Tolosa / Toloserri»; «Agurain / Salvatierra»; «Legutioko hidronimia aitzaki»; «Santa Engracia / Ibarbaltz(a)»; «Pentsamenduaren klasikoak euskaraz / Los clásicos del pensamiento universal en euskara»; «Unamuno eta Shopenhauer euskaraz / Unamuno y Shopenhauer en euskara»; «Jon Bilbao Azkarreta (1914-1994 )».

#### 4. Euskaltzaindiaren Arauak:


1. *Bat-batean, behinik behin, batik bat*; 2. *Baitu, baikara, bainaiz*, e.a.; 3. *Aurrealde* edo *aurreko alde*, e.a.; 4. *Hau guz(t)ia*; 5. *Ene / nire, nirekin, niri*, e.a.; 6. *Arrain, usain, artzain*, e.a.; 7. Zenbakien idazkeraz; 8. Zenbakien deklinabideaz (*hiru, lau*); 9. *-Zio*; 10. *Nornahi, nonahi, non-nahi*; 11. *Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk*; 12. *Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea; 13. Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri; 14. Adizki alokutiboak (hikako moldea); 15. Partitiboaren erabilera okerra; 16. *Zu izan ezik*; 17. Euskal alfabetoaren letren izenak; 18. Ordinalen eta banatzaileen idazkera; 19. *Benetako, ohiko*; 20. *Betiko* eta honen kideak; 21. *Arabera*; 22. *Iritzi*; 23. *Arazi*; 24. *Ba-* eta *gabe-ren* idazkera.

5. *Oihenarten laugarren mendeurrena / Cuarto centenario de Oihenart / Quatrième centenaire d' Oyhénart* (Iker 8): Babesleak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques, Direction Régionale d' Action Culturelle, Syndicat de Soule, Euskal Herriko Unibertsitatea, U.R.A. 1055 du C.N.R.S., Bordeaux III.

6. *Euskal Gramatika: Lehen urratsak-IV (Juntagailuak)*. Gramatika batzordearen emaitza. Azken moldatzailea: Miren Azkarate. Aurreko liburukiak, lokailuak aztergai zituenak, eta oraingo honek osatzen dute koordinazioari dagokion atala. Eta aurrekoan bezalaxe, oraingoan ere, berrehun eta hogeit hamar orrialdetan zehar, euskal juntagailuez inoiz eman den informaziorik zabal eta aldi berean xeheena eskaintzen da. Hona nola banatu den liburua: *juntagailu, menderagailu* eta *lokailu*-en arteko bereizkuntza argitzen duen lehen kapituluaren ondoren, hiru sail nagusitan bildu dira juntagailuak, sail bakoitzari kapitulu mardula eskainiz: *emendiozkoak, hautakariak* eta *aurkariak*.

7. *Andoaingo toponimia* (Onomasticon Vasconiae 10). Amaia Usabiaga Flores andereak paratua. Euskaltzaindiak Andoaingo Udalarekin koedizioz argitaratua.

8. *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez* (Onomasticon Vasconiae 11). Patxi Salaberri Zarategi jaunak paratua. Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren babesaz argitaratua.



9. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona / Iruña* (Onomasticon Vasconiae 12). José Mari Jimeno Jurio eta Patxi Salaberri Zaratiegi jaunek paratua. Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren babesaz argitaratua.

10. *Pedrotxo*. Martín Ugalde. Txomin Agirre Saria, 1993. Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia.

11. *Garraren eta karroiaren margoak*. Juan Karlos Lopez-Mugartza. Felipe Arrese Beitia saria, 1993. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

12. Euskaltzaindiaren *Oroit-Idazkia (1993)*. Erakundeak 1993. urtean buruturiko ekintza eta lanen zehaztasunak eta azalpenak ematen dituen argitalpena.



## VI.4.2. ARGITALPEN BANAKETA ETA SALMENTA ZERBITZUA

### Salmenta

Erakundearen barneko ataletara bideratzen diren argitalpenen banaketa egitea eta egoitzara idatziz eta telefonoz zuzendutako eskariei erantzutea izan da aurten, batez ere, zerbitzu honen egitekorik garrantzitsuena. Urte honetan, argitalpenen salmentari dagokionez, hauek dira gehien saldu diren liburuak:

— *Euskera* Agerkaria 1993,1-2-3. Orotara 2.000 liburuki.

— *Lekukoak* bildumakoak, 36.

— *Iker* bildumakoak, 25.

— *Onomasticon Vasconiae* bildumakoak (Toponimiaz), 85.

— *Diccionario Vasco-Español-Francés*, 200.

— *Euskal Izendegia*, 1.500.

— *Hitz Elkarketa / 3-4*, 175.

— *Gramatika: Lehen Urratsak I,II,III,IV*, 850.

— *Euskal gramatika laburra. Perpaus bakuna*. 1.500.

— *Hitz egin metodoa I,II,III* mailetako irakurgaiak, 2.400.

— *Axularren Gvero*, 50.

— *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, 20.

— *Euskalerraren Yakintza (I,II,III,IV t.)*, 12.

— *Cancionero popular vasco I-II*, 136.

— *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano I-II, Morfología del verbo auxiliar vizcaíno I-II, Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional I-II, Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional, Morfología del verbo auxiliar roncalés*, 28, guztira.

— *Euskaltzaindiaren ARAUAK* bildumaren I. sorta, 1.500.

Salmenta horien emaitza 6.549.334 pezetakoa izan da, fakturatutakoa eta *Euskera*-ren harpidetzarena, biena batuaz. Euskal Herriko Unibertsitatearen campusean, Leioan,

Euskaltzaindiak egindako XIII. Biltzarrean, bere argitalpenen salmentarako saltokia jarri du. Salmenta horrek 159.550 pezetako emaitza izan du. Durangon, XXIX. Liburu eta Disko Azokan, 850.000 pezetako salmenta egin da. Orotara, beraz, urteko argitalpenen salmentaz jasotako diru-kopurua 7.558.884 pezetakoa izan da.

### Banaketa

Euskaltzaindiak, argitalpenen salmenta gehien bat *Zabaltzen* banatzailearen bitartez bideratua du Euskal Herrian, eta Bizkaiko banaketari dagokionez *San Miguel* banatzaileak ere egiten du. Bestalde, *Bitarte* banatzaile berriaren -Yoar Nafarroan, Sortalde Gipuzkoan, Bitarte Bilbon- eskaintza izan du Erakundeak argitalpenen banaketarako, eta jadanik lanean hasia dago banaketa-etxe hau.

Erakundeak, bere Bibliotekaren bidez, beste erakunde batzuekin trukerako akordioa eginga du, eta trukezko horiei ere ohiko banaketa egiten zaie. *Euskera* agerkariak gain beste argitalpenez hornituriko igorketa, salmenta- eta banaketa-zerbitzuak burutu du. Era berean, euskaltzainei, batzordeetan parte hartzen duten 100 bat pertsonari eta Akademiaren zerbitzuetakoei ere banaketa egin zaie. Horrezaz aparte, berariazko bidalketak egiten dira egoitzatik, hala nola Herri-Agintariei, bisitari zenbaiti, atzerriko norbaiti, e.a. Aurten, 1994an, banaketa-zerbitzuak dohainik emandako liburuak, guztira, 3.500 inguru izan dira.

### Azokak

— XXIX. Euskal Liburu eta Disko Azokan, Durangon, abenduaren 7, 8, 9, 10 eta 11n bi saltokitan egon da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau egoitzako lankideen eta Arabako ordezkarietakoaren partaidetzarekin. Argitaratutako liburu berriak honako hauek izan dira:

*Euskera 1994,1; Oihenarten laugarren mendeurrena. (Iker 8); Andoaingo toponimia (Onomasticon Vasconiae 10); Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez (Onomasticon Vasconiae 11); Euskal Gramatika: lehen urratsak IV (juntagailuak) eta Euskaltzaindiaren Arauak bildumaren I. sorta, hauek guztiak Azoka horretan aurkeztu direlarik. Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearen esanetan, Euskaltzaindiaren Arauak (I) izan da, seguru asko, argitalpenen artean gehien saldu dena.*



## EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

(1994ko urriaren 28tik hasita)

1. *Bat-batean, behinik behin, batik bat*
2. *Baitu, baikara, bainat*
3. *Aurrealde edo aurreko alde*
4. *Hau guztia*
5. *Ene/nire, nirekin, niri*
6. *Arrain, usain, artzain*
7. *Zenbakien idazkeraz*
8. *Zenbakien deklinabidea: (hiru, lau)*

(I)

1994ko azaroan argitaratua



— LIBER' 94, martxoaren 15etik 19ra Madrilen, Salón Internacional del Libro delako erakustazokan egin da. Azoka Nagusi horretarako, E.A.E.ko beste erakunde eta elkarteekin batean, Eusko Jaurlaritzak jarritako saltokian, aurreko urteetan bezala, 47 liburu eta 29 argitalpen titulu aurkeztu ditu Euskaltzaindiak, Erakundearen izenean inor joan ez bada ere. Aipatzekoa da, komunikabideetan izan den oihartzunagatik, Azoka horretan liburu hauei egin zaien kritika ona: *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*; *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* (egilea eta lehen argitalpenaren argitaletxea aipatuz); *Gvero* eta *Opera Omnia Vasconice*.

Iparaldeko bi azoka hauetan parte hartu du Euskaltzaindiak: apirilean Saran, eta azaroan, Donibane-Lohizunen, horietan batez ere gramatikak, hiztegiak eta klasikoen argitalpenak saldu direlarik.



## **VI.5. Bestelako zerbitzuak**



## **BESTELAKO ZERBITZUAK**

### **Itzulpenak**

Aurten gauzatu diren itzulpen- eta gainbegiratze-lanetatik, hauek dira aipagarrienak:

#### **Egoitzan:**

— Erakundeak: ISBN (Madril), Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Bizkaiko Diputazioa.

— Banku eta Aurrezki Kutxak: Banco Bilbao Vizcaya, Bilbao Bizkaia Kutxa, Caja Laboral / Euskadiko Kutxa, La Caixa, Banco Atlántico, Banco Santander.

— Udalak: Bilbo, Getxo, Eibar, Elgeta.

— Publizitate enpresak: Aurman, Deika, Herrero & Asociados, Estudios Arriaga.

— Beste zenbait enpresa eta gizabanako: Iberia, Ferrovial, Metro Bilbao, Consejo Regulador Pacharán Navarro, Karlan, Librería papelería Nervión, Polo y Seitz abogados (Madril), Autoservicio nocturno, Parleris (Madril), Arrantzale kofradia (Zierbana), Angel Dominguez, AEK, Urretxindorra liburudenda, Ideko (Elgoibar).

#### **Arabako ordezkartzan:**

Gobernu Zentralaren ordezkartzak eskatuta, honako itzulpen hauek zuzendu dira: 1994ko Hauteskunde orokorretarako eta 1995eko Udal Hauteskundeetarako materiala aztertu eta zuzendu.

Aldi berean, gramatikarekiko zalantzak, hiztegegintza, metodoak, bibliografia, euskara ikasteaz, lantzeaz eta metodologiaz, itzulpen-teknikaz, alfabetatze-orientabideez, hor-hemen buruturiko itzulpenei oniritzia emateaz, Administrazioako lanpostuetarako azterketei buruzko kontsultei erantzun zaie, bai egoitza eta bai ordezkartzetatik.

### **Prentsa zerbitzua**

Euskaltzaindia, bere lanak, eginkizunak eta euskararen garapenak gizartearen eremu eta maila guztietara helarazi behar dituela ohartu da aspaldi. Honen lekuko dira, 75. Urteurrenaren ospakizunen barruan prentsari bereziki eskaini dizkion bi ekintza hauek: I. Jagon Jardunaldietan, «Euskararen egokitasuna komunikabideetan» deritzon esparrua (Bilbon, otsailean) eta Gipuzkoako Diputazioan, irailean, ospatutako ekintza akademikoa.

Euskaltzaindiak, aurreko urteetan ere bere eginkizun eta ekintza nabarmenen inguruan prentsa-zerbitzua antolatu duen arren, 1994an eman dio zerbitzu honi lehen ez bezalako iraunkortasuna. Nerea Azurmendi kazetariaren ardurapean eta Gasteizko bule-

go-arduradunaren lankidetzaz osatu da zerbitzu hau. Hauek dira aurreko buruturiko ekin-tza aipagarriak:

### **Prentsaurrekoak**

#### 1. 75. Urteurrena

Batzorde desberdinek egin dituzten Biltzar aurreko Jardunaldiak aurkezteko, honako prentsaurreko hauek egin dira:

- Lexiko Erizpideen Finkapenerako Jardunaldiak (LEF). Urtarrila, Donostia.
- I. Jagon Jardunaldiak, hizkuntzaren erabilera zuzenaz. Otsaila, Bilbo.
- III. Gramatika Jardunaldiak. Hasierako nafar euskaltzainei omenaldia. Martxo, Iruña.
- Hiztegi Batuko Jardunaldiak. Euskaltzain arabarrei omenaldia. Apirila, Gasteiz.
- Donostian, maiatzean, Akademiak 1994ko lehenengo hilabeteetan egin dituen urteurreneko ospakizunen balantzea eta aurrerantzean egingo diren Jardunaldien aurkezpena: III. Ahoskera batzordearen Jardunaldiak (maiatzean, Bilbon), V. Onomastika Jardunaldiak (ekainean, Miarritzen) eta III. Literatura Jardunaldiak, euskal metrikaz (uztailean, Donostian).

#### 2. Argitalpenen aurkezpenak

Euskaltzaindiaren argitalpenetatik aurkezpen hauek antolatu dira:

- *Andoaingo Toponimia*. Onomasticon Vasconiae 10. Donostia, uztailean.
- *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*. Onomasticon Vasconiae 11. Iruña, urrian.
- *Oihenarten IV. mendeurrena. (Iker 8)*. Donostian eta Baionan, azaroan.
- *Euskaltzaindiaren Arauak*, 1. alea. Abenduan, Donostian.
- Bilboko egoitzan, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak elkarrekin ematen dituzten sarien banaketa egin da, abenduan.
- *Toponimia de la Cuenca de Pamplona/Iruña*. Onomasticon Vasconiae 12. Iruña, abenduan.

#### 3. Prentsa-bulegoa

Prentsa-bulego bana eratu dira Jagon Jardunaldietarako eta Leioan, XIII. Biltzar-arrerako. Komunikabideei bulegoaren bidez, dokumentazio-zerbitzua, txostenen laburpenak, elkarrizketak, artikuluak, irrati-saioak, prentsaurrekoak, egitarauak, eta Jardunaldien inguruko bestelako informazioa eskaini zaizkie. Horrez gain kazetariak izan dituzte bulego honetan euren lana burutzeko oinarrizko baliabideak eta azpiegitura.

### **Adierazpen akademikoak**

Nafarroako Gobernuaren Euskararen Lege Foralari buruz eta Iparraldeko hiru probintzietan euskararen ofizialkidetza eskatuz Frantziako Gubernuburuari Euskaltzaindiak egin dion eskaera dela eta, beroriei buruzko adierazpenak plazaratu dira Prentsa-zerbitzuaren bitartez.

1994. urtearen zehar egin diren Jardunaldiak eta geroko XIII. Biltzarra bere osotasunean kokatzeko asmoz, Euskaltzaindiari buruzko oinarrizko informazioaz osatutako dosierak prestatu dira. Hauetan, Akademiaren historia, azpiegitura, organigrama, batzordeen funtzionamendua eta eskaintzen diren zerbitzu orokorrak agertzen dira. Nerea Azurmendik bideratu ditu jaso diren eskaeren arabera, euskaltzain eta beste ikertzaile-

kin elkarrizketak. Horrela medio bakoitzari, aurretik hitzartutakoaren arabera, informazio pertsonalizatua ematen saiatu da Euskaltzaindia.

Harreman iraunkor eta biziak izan dira Euskal Herrian zehar kokatuta dauden medio orokorrekin eta ekintza bakoitzeko kokapenaren arabera, tokian tokikoekin. Adibidez, I. Jagon Jardunaldietarako, zerbitzu honen eskaintza zabalagoa izan da eta erantzuna eman die honako hauei ere:

Katalunian: *La Vanguardia, Avui, El Periódico de Cataluña. El Diari de Barcelona, Diario de Tarragona, Diari de Girona, Punt Diari, Diario de Lleida, Segre.*

Valentzian: *Informació (Alicante).*

Balearrak: *Palma de Mallorca.*

Galizian: *El Correo Gallego, El Ideal Gallego, El Progreso, La Región, La Voz de Galicia, El Faro de Vigo.*

## **AURKITEGIA**

### **EGOITZA**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: 94-4158155  
Faxa: 94-4158144  
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

### **AZKUE BIBLIOTEKA**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: 94-4152745  
Faxa: 94-4150051  
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

### **GORDAILUA**

Bilbo-Donostia errepidea, z/g - 4,5 km  
Edif. SAGA - 1. solairua  
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)  
Telf.: 94-4406258  
Arduraduna: Rosa Mari Arza

\* \* \*

## **ORDEZKARITZAK**

### **ARABA**

San Antonio, 41  
01005 GASTEIZ  
Telf.: 945-233648  
Faxa: 945-233940  
Ordezkarria: Manuel M. Ruiz Urrestarazu

### **GIPUZKOA**

Hernani, 15  
20004 DONOSTIA  
Telf.: 943-428050  
Faxa: 943-428365  
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

### **NAFARROA**

Conde Oliveto,2-2.  
31002 IRUÑEA  
Telf.: 948-223471  
Faxa: 948-210713  
Ordezkarria: Jose Maria Satrustegi

### **IPARRALDEA**

37, rue Pannecau  
64100 BAIONA  
Telf. eta faxa: 07-33-59594599  
Ordezkarria: Pierre Charritton



## VI.6. 1994. urteko balantzea

SARRERAK			IRTEERAK		
74	Hustiaketarako Laguntzak	238.257.537,-	60	Erosketak (Biblioteka)	2.769.161,-
75	Kudeaketa sartzak	16.079.237,-	62	Kanpo Zerbitzuak	131.404.761,-
76	Finantza sartzak	265.768,-	64	Gizabanakoei Ordainketak	185.858,-
77	Ibilbetuagatiko Mozkinak	12.989.267,-	63	Zergak	114.110.492,-
			65	Beste Zenbait Gestio-Gastu	45.105,-
			66	Finantza Gastuak	6.373.351,-
			68	Amortizazio Zuzkidura	<u>12.989.267,-</u>
		<b>267.591.807,-</b>			<b>267.877.995,-</b>
	<b>Mentsa</b>	<u><b>286.188,-</b></u>			
		<b>267.877.995,-</b>			<b>267.877.995,-</b>





